

PSOE
eta euskal abertzaletasuna
(1894 - 1934)



HORDAGO

JOXE AZURMENDI

PSOE
eta euskal abertzaletasuna
(1894 - 1934)



HORDAGO PUBLIKAPENAK
PUBLICACIONES

Plaza Guipúzcoa 11-1.º - Donostia
Tel. 429127 - 429128

HORDAGO, S. A.

Edita: EDITORIAL LUR (Plaza de Guipúzcoa 11 - 1.º, Donostia)

ISBN 84-7099-095-0

Dep. Legal S. S. 209/79

Impreso en Itxaropena S. A. - Víctor Pradera, 2 - Zarauz

SOZIALISTA KLASIKUAK ETA ABERTZALETASUNA

“Sozialista nola izan zintezke?”, esaten digu zaharrak: sozialistak euskaldunon etsai dira”. Horrelaxe: ez abertzaleon etsai, katolikuon etsai, baina euskaldunon etsai. Eta: sozialistak; ez sozialista horiek edo haiek, baina sozialistak, denak.

Zaharrak ez du asko estudiatu liburuetan. Ikasi, ordea, nahiko egin du, bizitza den liburuan. Zaharrak ikasi duena, da, sozialistak, edo hobeto, PSOE-sozialistak, azkenean ez direla PNV-ren, edo Estatutu proiektoen etsaiak, euskaldunon eta Euskal Herriaren etsaiak baizik. Eta zaharrak asko daki, asko ikusi du.

Arana Goirik hasi eta Jose Antonio Agirrek buka, denek horixe agertzen dute: sozialismo espainolaren inkomprentzioa, ezin ikusia, euskal arazoarentzat. “El movimiento obrero es extraño al nacimiento del nacionalismo vasco”, esaten du Beltzak. Gehiago esan beharko litzatekeela, ematen du. Sozialisten *intenso sentimiento antinacionalista* aipatu du Fusik. Haien *imperialismo cultural*-a Solozabalek eta *postura antivasquista del socialismo bilbaino*. Aspaldi da Orueta liberalak PSOE-ri anti-euskaldun zertziala: anti-euskaldun eta beste ezer ez; ez bakarrik anti-

PNV. “Aquí el socialismo es puramente antivascongado”, idazten zuen halaber Doktor Areilzak, Alderdi guziek apuiatzen zuten mugimendu foralista boikotatzen bakarrak berak izan zirenean. Eta holako beste mila lekukotasun. Azaña nola Prietoren *violento rencor anticatalanista*-z mintzo ohi zen, gogoratzen gara.

“La incomprensión que históricamente ha aquejado al PSOE ante las nacionalidades, particularmente las nacionalidades oprimidas por el Estado español”, salatu du Pelai Pagès katalanak; eta, areago, “la ceguera del socialismo español ante el hecho nacional”. Askoz lehenago, Andreu Nin beste katalanak PSOE-ren “espíritu chovinista, absorbente, asimilista, que no tiene nada que envidiar al del poder central monárquico desaparecido” salatzen zuen.

Kexa bera katalanek zein euskaldunek, aspal-aspalditik eta gaur arte.

Dagoeneko salapenok oso jeneral bihurtu dira. Ez dira, inola ere, abertzale radikal itsuren batzuen gehiegikeriak. “Gudatea baino lehen —irakurtzen diogu Karlos Santamariari— alderdi abertzale bat edo bi bakarrik ziren, besteak euskal nazionalitatearen etsai amorratuak bait ziren, orduko guziok gehiegi dakigunez”. *Euskal nazionalitatearen etsai amorratuak*, irakurtzen dugu berriz ere: ez, Alderdi abertzaleen etsaiak.

Ez da dudarik: PSOE-k, bere historia luzearekin Euskal Herrian, euskaldun asko eta askori utzi dioen inpresioa horixe da; batez ere euskal nazioaz, euskal kulturaz, euskal nortasunaz pittin bat arduratu izan direnei, abertzale itxura puxka bat hartzen diegun gehien-gehieni, eskuineko nahiz ezkerrekoei, utzi dien inpresioa, hori da.

EUSKAL ABERTZALETASUNA ZER DEN SOZIALISTAONTZAT

Filosofía de campanario, espíritu de pequeñez y miseria, espíritu rural y reaccionario; pobre de concepción y de espíritu eta estrechez de alma, eta abar, eta abar, sozialistaok besterik ez dute inoiz ikusi abertzaletasunean. Regionalismo chinesco. Hitz horiek eta gehiago, letania eder-ederra, bil daiteke sozialisten Bilboko *La lucha de clases* aldizkaria zenean (LC laburkinez aipatuko dugu aurrerantzean). 1894-ean sortua zenuen.

Geroago Prietok esango du, abertzaletasunak bildur gehiago ematen zioela erreazionario eta ultrakatolikogatik, separatistagatik baino. Hori esatea oso zuhurra da eta batez ere oso argia, politiko argiarena, kontrarioari erasoaz batera bere posizioa dotore apaintzen bait daki. Zu erreazionario hutsa zara, ni progresista bikaina. Gero beti holako arrazoiak atera nahiko dira: berak ez zeudela abertzaletasunaren kontra, abertzaletasun erreazionario burges jakin baten kontra baizik, etc.

Hori ez da, tamalez, polita bezain egia. PSOE-zialistak, Euskadin, orain nahi luketen Alderdi liberal, progresista, sozial hura izan ordez, *Alderdi espainolista fanatiko imperialista, anti-euskaldun eta anti-abertzale amorratua*, izan

bait ziren. Sozialistaok izan dira Euskadi zanpatuak, lehentxeago karlistadek zapartuak, bere barruan izan dituen etsai zitalenak, gure gizamendearen hasieretan. PSOE Alderdi inperialista bat zen.

Hablar de una patria chica y querer conservar una lengua regional cuando todo tiende a universalizarse es una de las mayores locuras —deklaratzzen zuen zakarki LC-ek.

Hor dauzkagu, iadanik, konzeptu oinarrizkoenak, funtsean erreazionario eta beste axalekoago konzeptu haiei beren egiazko esanahia ematen dietenak: “patria chica”, “lengua regional” —“todo tiende a universalizarse”. Gero sarri aurkitu ditugun eskemak, beren molde sozialistan nahiz moldakera faxista-falangistan. Beti arrazoipide bera, histori filosofia baten kategoria berberak.

Corresponde esa miserable idea de la patria chica al género chico en el teatro; la rápida y la instantánea insustanciales en el periodismo: el *fulanismo* en la división de partidos, el especialismo en la ciencia; y el jesuitismo en religión, que ha particularizado en una víscera, en el corazón de Jesús, el culto que se rendía a todo el Cristo.

Horientzat Euskadi ez da *región de España* besterik, *patria chica*, justu-justu José Antonio Primo de Riverarentzat bezalaxe, eta harek bezalaxe, higuin-higuin duten bihotz eta buru herstukeria hori, ridikulizatu egingo dute beti, konpreni ezinezko aiherkunde sumin batekin. Harritzen duena ez dira kritikak, kritikaon doinu amorratu bildurgarria baino.

Sozialistaontzat euskal naziorik ez dago. Aintzat harztea merezi duen euskal berezitasunik batere ez dago.

EUSKARA ez da *lengua regional* eta *dialecto* eskas bat besterik, beti adieraziko duten moduan. Ez du ezertarako balio mundu modernuan. Lehenbailehen hilgo balitz

askoz hobe. *Ni dialectos, ni juegos florales, sino una lengua si es posible para todos los humanos* esijituko zuen LC-ek. Euskaltzaletasuna ez da *afán de particularizarse con dialectos y literaturas regionales* besterik eta *rémora a todo progreso*.

Euskal ortografia batzearren egiten ziren ahaleginei, Azkuek eta Bilbon zeramaten lan galantari bezalaxe, irri eta burla egiten zioten. Orduantxe ari zen euskaltzaletasuna bizkortzen. *Semi-bárbaros* eta *lokos* dira horiek (euskal ortografiaz idatzita, burla egiteko) edo *neuróticos*; burutik oso ondo ez dabiltzanak behintzat. Azkueri egin zitzaion omenaldian “soltaron koces kontra Maketania y kontra el Gobierno maketo”.

Eskertzekoa da, behintzat, LC-ren garbitasuna:

Nosotros, lo decimos como lo sentimos..., quisieramos un Gobierno que prohibiese los juegos florales donde se ensalzan las costumbres de una región en detrimento de otras, que no permitiera la literatura regionalista y que acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional, que son causa de que los hombres de un país se miren como enemigos y no como hermanos (LC, 1899-ko urriaren 7).

Euskarari buruzko sozialistaon eritziak Unamunorenak dira funtsean: euskara lantzea erokeria da. Euskarak hil egin behar du. Eta bera laster hiltzen ez bada, Gobernuak berak hilaraz beza eta kito.

Gaztelaniarekin ez da berdin. Gaztelanian taxutu da, finkatu da, gaztelau herriaren izpiritua, “su concepción abstracta del mundo y de la vida”. Beraz, espainol izpirituaz jabetzeko gaztelania ikasi eta ikusi behar da etengabe. Sakondu. Herriz-herri joan Gaztelan barrena, laborariek hitzegin, ikasi. “Adueñarnos de nuestra habla—predikatzen du Unamunok— es cobrar tierra, indepen-

dencia y libertad espirituales”. Baina gaztelautzat bakarrik predikatzen du hori.

Euskarak, nazio ezaugarri gisa, ez zien inspiratzen begirapen haundirik:

El argumento de Aquiles de los nacionalistas vascos es el idioma, completamente distinto del español, con el que no tiene punto alguno de contacto. Pero vengamos a cuentas. El vascuence desaparece rápidamente sin que pueda evitarlo nadie. En casi la mitad de las provincias no se habla ya; es diferente en Guipúzcoa que en Vizcaya, hasta el punto de no entendernos muchas veces los de una y otra provincia; apenas lo entiende nadie escrito, y el pueblo no sabe escribirlo en absoluto...

Hori ez da hizkuntza nazional bat...

Prietok sarri aterako duen arrazoi bat —gero sarri entzun dugu— izango da, Euskadi ez dela osotero euskaldun; Euskadik parte haundiak dituela, beti erdaldun hutsak izan omen direnak; beti gaztelauak, berak halaxe esango bait du: “neta y totalmente castellanas”. Eta horiek, argudiatuko du Prietok, besteak bezain euskaldun omen dira eta besteak aina eskubide omen dute... Ahaztu egin bide zitzaion, besteak aina ez, besteak baino mila bider eskubide gehiago zituztela, joan den larehun edo bostehun urte honetan. Ahaztu, halaber, problematika bera Espainiari aplikatzea. Baina inportantzia gabeko deskuido ttipiak dira.

Euskara bezanbat estimatzen zizkizuten FORUAK, Euskal Herria, orduantxe Foruak bortxaz ezabatuta, Foru minez egon arren. Foru arazo guzia burgesiaren amarru soila da, asmoz eta, “de mantener al pobre pueblo en ese entretenimiento para que no piense en cosas más hon-das y serias”. Eta: “con fueros y sin ellos el pobre siempre ha estado explotado y sometido por el rico”. Eta egia

da. Baina gizonok ez dute jarraitzen: betaurrekoz ala gabe, penizilinaz ala gabe, pobrea beti egon da aberatsak zapaldirik. (Beno, penizilinarik nekez aipatuko zizuten oraindik.) Jakintza haundia bait da hori. Horregatik esan ohi zaio ikuspide honi ikuspide eskatologiko. Besteak egi-ten zuen arrazoipideagatik: azkenean denok hil egiten gara, eta hil bagara, zer inporta dio esklabu ala jaun izan garen, morroin ala nagusi!

Foruak ez dira euskal nazioaren ezaugarri historiko-rik: Erregek emaniko pribilegioak dira. Beraz, 1839-an Euskadik bere jabetasuna galdu zuela, sozialistaon ustez ipuin hutsa da. Bere pribilegioak galdu zituen, beste ezer ez. Llorentek bezalaxe juzkatzen dituzte Foruak.

Foruek ez dute balio gizarte modernoan: “En el país vasco industrial no encajan ya las leyes del país vasco agrícola y pastoril” (euskarari gertatzen zaiona).

Atentzio ematen duena horixe da: Foruez ihardutera-koan beti hartzen duten direkzioa. Abertzaleek Foruetan ikusten dutena batez ere “euskal soberaniaren” agerpena da; dauden daudenean, Foruek ez dutela gizarte moder-nuan balio, eta berritu egin beharko lirатеkeela, bazeki-ten abertzaleek ere, eta sozialistek bazekiten abertzaleek hori bazekitena, eta “que pretendéis hacerla más adecua-da a los tiempos actuales manteniendo siempre el espíritu del Fuero”, Meabek agertzen zuenez. Foruok behar beza-la berriztatzeko, ordea, Foruak esijitzen duen soberania hura behar da, eta hura da hain zuen Euskal Herriak orain ez duena. Sozialistek problema hori aisa likidatu dute ha-sieratik bertatik: halako euskal soberaniarik ez du Foruak agertzen, Erregeren pribilejio soil izaki. Beraz, Foru be-rriztapena ere pribilejio modu baten barruan geldituko li-tzateke. Eta “langileek zer irabazi izango lukete Forue-kin?”, galdetzen dute sozialistek. *La lucha de clases*-ek uste duenez, are okerrago biziko lirатеke Foruekin langi-leak, gabe baino. Bizimodua garestiago, alogerak behera-go, kazikismo hutsa nagusi. Foruak berrezarriaz gero

—dio— kazikismoa zeharo litzateke nagusi Euskadin, eragozpenik ez lioke inork eta ezerk egingo eta. Foruak ezabatuz kazikismoari muga bat ezarri zaio bederen.

Dirudienez, ba, kazikismoari Euskadin trabak eta eragozpenak ipini dizkiona Madril da. Eragozpenok hautsi nahi dituelako, kazikismoak suztatzen du eta indartzen du foralismoa. Baina Foruak berrezarriko balira, kaltegarri bakkarririk litzateke langileentzat. Foruak kendu dizkigutenean, ez digute kazikismoa kendu besterik egin. Mesede bat. PSOE-k hala ikusten du.

OHITUREK, halaber, euskal berezitasunik oinarritzeko ez dute balio:

Hoy puede decirse que no hay costumbres típicas que diferencien a las regiones entre sí, si no se acude a desenterrar lo que está bien muerto y que sólo se contrae a bailes y canciones, pues merced al comercio, a la industria y a la facilidad de comunicaciones se va borrando completamente lo característico de cada pueblo y pareciendo cada vez más la Humanidad una con todos sus vicios y virtudes.

HISTORIA aldetik ere ez dute ikusten euskal berezitasun ohargarririk, zaintzea eta aurrera desarroilatzea mezezi lezakeenik:

Si por acaso hubo algún tiempo en que en Euskeria formó nación independiente, lo que nosotros negamos en redondo, ese hecho se pierde en la lejanía de los tiempos primitivos, y no tuvo, después de todo, otro fundamento que la independencia de Castilla, de Aragón o de Navarra, esto es, de los príncipes soberanos.

Euskadi beti Espainia izan da, sekula ez da besterik izan. “Las provincias vascongadas vienen perteneciendo constantemente a la nación española hace muchos siglos,

sin que se las trate como a país conquistado, sino al contrario, dispensándoles franquicias de que no disfrutaban las demás provincias, hecho contra el que no nos pronunciamos, pues esas libertades y otras mayores deseamos para todas las regiones, pero que anotamos solamente para que se vea la sinrazón del separatismo bizkaitarra".

Prieto ere historiaren interpretazio abertzaleaz gogotik burlatzen zen: "en su fantasía han llegado a suponer la existencia de la sumisión de aquella región al resto de España por virtud del resultado del hecho de armas". Foruak, ausaz, bake-bakean geuk baztertu genituen. Eta errenteriak berak etorri ziren Ebrotik Bidasoara, inork ekarri gabe.

Solozabalek ongi bildu digu PSOE-zialistaon postura:

Para los socialistas en el caso vasco no existen razones, ni históricas ni de ningún otro tipo, que puedan aconsejar la secesión de la región de la nacionalidad española; no pudiéndose tampoco, a su juicio, hablar de explotación o imperialismo en base a diferencias raciales o lingüísticas.

Las provincias vascongadas son españolas desde siempre e incluso dentro de la comunidad nacional gozan de situación privilegiada. Ni el idioma vasco, en regresión manifiesta, ni su folklore, condenado a la uniformidad, ofrecen asidero para pretender un hecho diferencial con vocación política. "No tiene ningún fundamento, pues, el separatismo bizkaitarra, que no puede tenerse por tal el orgullo de la riqueza del país, el afán de notoriedad de cuatro tipos y la locura de cuatro necios" (*La lucha de clases*, núm. 258, 16 de setiembre de 1899).

Abertzaletasunak ez oinarri historiko eta ez beste inolakorik du. Azken finean, gure aberastasunaren harrockeria eta lau zororen zorakeria besterik ez da: *el afán de*

notoriedad de cuatro tipos y la locura de cuatro necios, horra abertzaletasunaren oinarri guzia.

Eta, beraz, garbi dago, abertzale arnisten talante erreazionarioak eta ultrakatolizismoak bildurtzen omen zituenok, zergatik ez duten berek sekula euskal interesen defentsa bat beren gain hartu eta abiatu, aje haiek gabe, defentsa eta abertzaletasun progresista bat.

Euskarak ez du ezer balio; Foruek ez dute ezer balio; ohiturek ez dute ezer balio; euskal historia espainola da. Beraz, nolatan burutarazi ahal "euskal politikarik", ez euskarak, ez Foruek, ez ohiturek eta ez euskal historiak? "Euskal politikak" sentidurik ez zuen sozialistaontzat.

Arrazoipideok, halare, konplikaturtxoak dira eta ez oso seguruak. Euskal historiaren interpretazioan diferentzia haundiak sor daitezke. Historiazaleak berak eztabaidan zebiltzala, ikusten zuten sozialistek. Eta euskarari ematen zaion inportantzian are diferentzia haundiagoak sortzen dira. Sozialistek ikusten zuten, zenbait jakitun haundi, bertako ala herbesteko, euskara goratzen eta euskara lantzen zebilen.

Sozialisten abertzaletasun ukazio eta kritikak ez dira mugitzen maila honetan bakarrik. Ukazio radikal, garbi eta zeharoko bat behar dute. Horregatik, zirrikitu bat ere ez uzteko, euskal abertzaletasunari uko egiteko beste arrazoi bat, euskara, euskal historia, etc. errealitateotatik indepente da: abertzaletasuna "birtute" burgestzarra dela. Sozialistaok —berek diotenez— abertzaletasun oro arbuiaitzen dute. Irmo aseguratutik utzi nahi zuten, horratio, beren posizioa.

Los más vulgares son los más acendrados patriotas; careciendo de personalidad individual, envanécense con la personalidad colectiva. Quien no puede ser hombre se contenta con ser español, o francés, o chino.

Beharbada ohartzen ziren, abertzale okerrena, abertza-

letasuna ukatu nahi izaten duena bera, izan ohi dela; eta Euskadin euskal abertzaletasunari eskubideak ukatzen ari dena, xobinismo espainolari eta frantzesari eskubide guztiak aitortzen ari dela? Beharbada bai, ohartzeko ziren, oso erraz ohartzeko baita hori. Saiatu ere, saiatu ziren kontratarra honi bidera irtetzen.

No somos nosotros patriotas al estilo común de las gentes, ni aun tratándose de España [zer-gatik *ni aun?* Ihes egin dio nonbait]. Somos internacionales y los obreros de Francia, como los de cualquier otro país, son hermanos nuestros que comulgan en la misma patria que nosotros, en la patria del Trabajo y tenemos por enemigos, unos y otros, a los capitalistas de todos los países.

* * *

Unos se envanecen llamándose españoles; otros catalanes, vizcaínos o gallegos; todos son igualmente patriotas mezquinos, todos son chicos, todos padecen de estrechez de alma, que es una terrible dolencia moral de la que aquí hay una peste, más que en parte alguna.

Burgesak dira abertzaletasuna bizkortzen dutenak. Burgesak, halaber, nazioak eta nazio kontuak asmatzen dituztenak. Bistan dago zertarako:

El separatismo hoy, como el patrioterismo ayer, no son más que cuerdas tocadas a tiempo por los explotadores, para que la multitud continúe amarrada a las cadenas de la dependencia económica.

* * *

Es la táctica del capitalismo burgués, hacer creer al trabajador que su enemigo es el trabaja-

dor de otros países, como se empeñan en hacer creer al pobre labriego que los males producidos por la renta y la apropiación del suelo son males derivados del librecambio. En todas partes sucede que los directores y guiones de esos movimientos proteccionistas, nacionalistas, regionalistas o anti-maquetistas (diferentes fases de un mismo sentimiento repulsivo y bárbaro), son dueños de tierras o servidores de ellas o explotadores de la renta nacional.

Hortik enteratzen gara, beraz, euskal burgesia eta kapitalismoa abertzale suharrak omen genituela. Eta gu, gaisuok, beti espainolista zirelakoan!

Abertzaletasuna lehen-lehen urratsak ematen hasi zenerako, sozialistak arras kontra zeuzkan. *La lucha de clases* haren lehen zenbakiak berak, 1894-eko urriaren 7-an, *zulús* eta beste dotoreziak zerizkien abertzaleei. Aspaldiko tradizioari jarraiki: euskaldun bere nortasunari zerbait atxekia, aspal-aspaldidanik, *asto* eta *barbaro* bezala ikusi izan bait da Espainian. Basatia da, barbaroa, *zulú*. Ik. Lazkano Mendizabal, *Espainolak eta euskaldunak*. LC-ek tradizioari ohore egiten dio, abertzaleei *semi-bárbaros* (euskalzale soil badira), *bárbaros* bestela eta *locos, necios* eta *salvajes* eritziaz. Eta abertzaletasunaren *espíritu rural y reaccionario*-a etab. aipatuaz, tradizio huraxe luzatzen zuten: lehenago barbaro esaten zitzaien euskaldunei, kristau ez zirelako; orain retrogrado hutsak dira, horixe besterik ez direlako; eta bihar Jainkoak asmatuko du. Kontua da beti barbaro garella.

Horregatik, abertzaletasuna basakeria eta astakeria delako, separatismoa ezezik regionalismoa ere zeharo kondenatzen dizute:

Nosotros... no podemos ver sin repugnancia ese espíritu de pequeñez y de miseria que informa a los llamados regionalistas, y todas las ar-

mas nos parecen buenas para combatirlos [begira horri!] desde la chacota y el ridículo hasta el argumento serio y contundente.

“El argumento serio y contundente” hori badakizu zer den: abertzaleak egurka eta tiroka erabiltzea, inor konbentzitzeko argumentu kontudenteagorik ez bait dago. PSOE-k, hala kontatzen digu Dolores Ibarrurik, “defendía a tiros la influencia política de que gozaba en Vizcaya y que el nacionalismo le disputaba... La violencia en la lucha que el Partido Socialista impuso en Vizcaya contra el nacionalismo hizo escuela y llevó más tarde a choques sangrientos entre socialistas y comunistas” (*El único camino*).

Hitzetan ere ez zuen biolentziarik falta. Arana Goiri “debe ser un loco o un perverso. Si lo primero, debe llevarse a un manicomio; si lo segundo, a un presidio. De ningún modo debe andar suelto por la calle”. Beharbada hori da etsai politikoak psikiatrikoetan herstea asmatu zuena, Sobiet Batasunean baino dexente lehenago. Arana Goiri gartzelara sartu zutenean, azkenean sozialistek beren esijentziak beteta ikus zitaketeten.

Eskuindar eskuinenek oraindik ere esaten jarraitzen duten moduan, regionalismo ala separatismo, funtsean gauza berbera da sozialistaontzat: “diferentes fases de un mismo sentimiento repulsivo y bárbaro”, “combatimos y combatiremos siempre toda tendencia separatista y todo espíritu regionalista, que en el fondo son la misma cosa” (LC, 1899-ko urriak 21).

Sozialistaon orpo irmea langileen interesak omen ziren. Langile interes unibertsalak. Langilearen ona besterik ez zuten nahi: euskal langilearena, noski (horrelakorik baldin badago). Eta, horregatik, abertzaletasun eta regionalismo eta beste kaskarkerietan ez zuten denborarik alferrikaltzen. Langileak ez du zeregin horietan irabazirik: “Aspiran a una nacionalidad, esto es todo. ¿Pero qué más

os da a vosotros ser acogotados por el patrono vasco o por el alemán, el inglés o el chino?”.

Eta, horregatixe beti ere, sozialistek ez zuten ikusi nahi langilerik manifestazio abertzaleetan (barka: regionalistetan!). Ez deserdirapenik, ez autonomiarik, onartzen dute. “Los obreros catalanes y los obreros vizcaínos ven con profundo desdén esas autonomías, esas descentralizaciones a las que se quiere dar por fundamento el odio”, “no podemos ver sin repugnancia ese espíritu de pequeñez y de miseria que informa a los regionalistas”; “los obreros de la región de Vizcaya son cosmopolitas por esencia: aquí vivimos mezclados obreros de todas las provincias de España y numerosa colonia extranjera, y es torpe querer llevar a la práctica tan descabellado proyecto” (errebindikazio regionalistak alegia).

Piskana-piskana, ordea, regionalismo, separatismo, euskalzaletasun nahiz abertzaletasun oro zaku batetan sartu eta denak zeharo kondenatze hori absurdura ailegatzen da. Eta, orduan, sozialistaok pronto daude berak ere patriota izateko; patriota: ez, noski, nazionalista edo regionalista. Berak abertzaleenak, egiazko abertzale bakarrak:

En el buen sentido de la idea nosotros somos tan patriotas como el que más; amamos a nuestro país y deseamos su bienestar, su prosperidad y su paz, cosas todas que destruye el otro patriotismo, el de la guerra, el del “honor nacional”.

* * *

Llebad entendido —argituko du Meabek— que si patria es la unión de individuos con intereses y aspiraciones comunes, los patriotas por excelencia son los socialistas.

Eta horrela, hitzekin eta dogmekin nahi den bezala jolas eginaz, konzeptuak piska bat nahastuaz eta bihurri-

tuaz, sozialistaok ez dira abertzale, ez dira regionalista, baina patriota dira eta patriotenak berak. Eta, horregatik, deskuidatzen bazara, edozein momentutan Biba Espainaka hasiko zaizkizu garraisika. Dialektika hori da, zer kontxo gero!

Astiro-astiro, regionalismoak oro mespretxatzea ere geroz eta zailago egingo da, herria berek nahi baino izpiritu erkin, herstu eta kaskarragodun agertuko bait da. “Regionalismoak” gora egiten du. Ez dago geldiarazterik. Orduan berak ere polliki-polliki regionalista bihurtu dira, baina ez “separatista”. Orain euskal abertzaleak “separatista gaiztoak” izango dira. Eta sozialistek Liga Monarkikoarekin bat egingo dute kanpaina hortan, abertzaleak separatista bezala desprestijiatzeko. Prietok deklaratu zuenez (1918):

El nacionalismo vasco es una entidad profunda y totalmente separatista.

Azañaren testu polit bat badago, katalanei buruz esana, “errealismo politiko” hauk ederki argitzen dituen. Hona hemen:

Los catalanes son *nacionalistas*. Si no son descaradamente separatistas (y muchos lo son), debe-se a que no pueden separarse por la fuerza o no les conviene. Puestas así las cosas, el problema consiste en decir si conviene y es posible resistir e imponer por la fuerza, en caso necesario, o transigir con moderación, buscando una postura en la que podamos estar cómodos. La asimilación de Cataluña es ya imposible, ni por la fuerza ni por la expansión del Estado. Tenerlos sojuzgados, ¿de qué sirve? La política de Primo de Rivera condujo a envenenar la cuestión. Exterminar a los catalanes no parece hacadero, por muy unitario y españolista que se sea; en tales condiciones, lo prudente es procurar un acuerdo que pueda ser un

principio de una reconciliación, problemática. Y ¿qué le hemos de hacer, si hay que dar, para conseguirlo, alguna torsión a los puros principios jurídicos?

Desgrazia haundia da, baina —asimilatzerik eta denak, euskaldunak eta katalanak eta galegoak, garbitzerik ez dagoenez gero— salba dezagun behintzat, salba litekeena.

ABERTZALETASUNA ATZERAKOI DA

Ez nazio ezaugarririk eta ez euskal berezitasunik bazuten ikusten, nazio arazo arrazoizkorik ere ezin ikus zezaketen sozialistek Euskadin. Ez bururik eta ez buztanik zuen haientzat abertzaletasunak. “Entre los catalanistas hay elementos de cultura y cierta racionalidad y concreción en sus aspiraciones de que carecen los bizkaitarras”.

Desprezio espainol klasiko bat... “Cultura y cierta racionalidad” horiek herri romanikoen pribilejio eskusiboak bait dira, dakigunez, espainolenak bereberki. Euskaldunok barbaro gaituzu. Euskal abertzaletasuna, “Harri Harora, tribuetara itzularazi nahi gaituen [dotrina] franko eta barbaroa”. Progresoak Foru ezeztapena eskatzen bait du, “eskualde” guzien berdintzapena, Estatu zentralista (“consecuencia obligada de la concentración de la propiedad y del proceso económico”, —begira, adibidez, USA eta Suitza zein atzera gelditu ziren, zentralista ez direlako!), nazio ttipiak haundiagoetan urtzea, euskararen heriotza, etab. Horiek denak progresoak eskatzen ditu.

Sozialisten ideiak, alegia, histori filosofia honek, so-

zialisten histori filosofia klasikua izan bait da, oraindik ere badu eraginik franko, euskal ezker berrian bertan, ekonomia soil eta sinpleki historiaren determinante eta progreso ekonomikoa aurrerabide historiko ororen determinantzat hartzen denez gero, eskematiko bezain sistematikoki: ekonomiak determinatzen du historia; progreso ekonomikoak determinatzen du historikoa. Baina "progreso" ez da, uste izaten den bezain konzeptu sotil eta sinplea. Honez gero itsuenak ere erreparatu beharko luke, zenbat anbiguitate datxekon progreso konzeptu horri (frankismoak ere ez du progreso ekonomiko gutti ekarri), eta ez anbiguitate moralak bakarrik. Anbiguotasun politiko eta sozialak ez dira guttiago, "progreso" deritzan horretan.

Zentralismoaren kontuan, esate baterako.

Orain, inork ez du zentralista izan nahi. Zentralista eta frankista berdintzera etorri bait gara. Maria Dolores Ibarrurik akklaratu berria digunez, beraz, zentralismoa omen da, "iniciado por los Reyes Católicos, es continuado por monarquías extranjeras (!), que aplastan violentamente los fueros y libertades de los pueblos y regiones peninsulares". Gero, "monarquías extranjeras" gaizto horien ondoren burgesia gaiztoa etorri da eta "el Estado centralizado y centralizador asumió por sí y ante sí... todas las prerrogativas que antes de su formación aparecían como de derecho natural, tradicional e inalienable de las distintas entidades nacionales o regionales, sometiendo a éstas a un rasero unificador que rechazaban y que a la fuerza fueron obligados a aceptar". Eta, horrela, "los pueblos eran enyugados al Estado centralizador". Geroenean, burgesia liberal gaiztoaren ondorenean, frankismo supergaiztoa etorri zen, eta haren "concepto tradicional reaccionario uniformador impuesto por la violencia a los pueblos y regiones de España por las oligarquías terratenientes, financieras y monopolistas que la dictadura de Franco encarna"... Zentralismoaren historia ilun bat, benetan. Hau irakurri eta zentralismoarenak historia erreakzionario hutsa dirudi.

Orain PSOE-zialistek ere, Euskadin behintzat, nahia-go dutela, ematen du, Espainiako historia horrelatsu interpretatu. Zaila bait da zentralismoaren historia guziz positibuki baloratzen jarraitzea, beste gabe. Foruzaletasuna, aitzitik, antizentralismoa, guziz negatibuki. Baina nola interpretatu ohi zizuten hori dena, bai PSOE-zialistek eta bai komunistek, frankismoak zentralismoa erabat despres-tijiatu arte? Hau da, taktikak eta momentuko interesak aparte, zein da oraindik ere sozialista klasiku horien barne-barneko histori filosofia?

Erantzuna ez da zaila: burgesia liberal gaizto erdirakoi haretxen filosofia berbera da, hezur eta azal, sozialistena. Sozialistek orain artean esan ohi zigutenez, “los fueros y libertades de los pueblos y regiones peninsulares” horiek, “particularismos” hutsak ziren, instituzio anakronikoak, eragozpen haundiak progreso ekonomiko eta politikorako. Eta burgesia zentralistak, “clase social más dinámica de la época, adueñándose del poder, superó los viejos particularismos, centralizó el Estado e implantó, en suma, un régimen propicio al rápido desarrollo capitalista de la economía, desarrollo que fundió y cohesionó material y espiritualmente a la nación en un todo homogéneo”. Hala irakasten zitzaigun, esate baterako, oraindik asko ez duela, komunisten ARRAGOA-n bertan, “revista vasca de cultura y política”. Eta hori dena egin beharra zegoela, progresorik inola izatekotan, zeren ta “las diversas partes que constituían la Monarquía española estaban mal trabadas entre sí, las relaciones económicas de unas regiones con otras, escasas”. Eta Foruak, esate baterako, zorionean eta ordu onean ezabatu ziren, berandutxo ezabatu baziren ere, instituzio anakroniko hutsak ziren eta: “En España... no fueron eliminados a su debido tiempo los obstáculos que se oponían a la expansión de las fuerzas productivas y a la modernización del Estado. Iniciaba la Monarquía española el siglo XIX —siglo de grandes progresos científicos, técnicos y políticos— lastrada por unas instituciones y una legislación anacrónicas. De ahí la pervivencia de fuertes

particularismos en su estructura interna. La subsistencia de la organización foral en Euskalerrria era fruto, en parte, del estancamiento general de la Monarquía, del peso enorme que las viejas castas feudales o semif feudales tenían en el país, era consecuencia del raquíto desarrollo económico de España”. Eta, horregatik, “los sectores más avanzados y revolucionarios de España” elkartu ziren, Konstituzio progresista bat egiteko, Foruak eta deuseztatuz: “por la instauración de un régimen más en consonancia con las necesidades de un mundo en rápida evolución, por un régimen de libertades que fueran solemnemente consignadas en una Constitución, valedera para todas las partes constitutivas de la Monarquía y suprimiera todo privilegio de clase ante la ley”... Eta karlistek izorratu zuten progresoa.

Horrelaxe irakasten zitzaigun orain arte (Marxen eta Engelsen testuetan oin hartuz, gainera). Hori da sozialista klasikuen histori filosofia klasikua. Ikasi ere gogotik ikasizuen hori dena gure jende batek. Abertzale moduan ibilitako komunista batek, esaterako, sententzia zorrotza eman digu, ETA-tik komunismo lasaiago batetara disenbarkatu denean: prozesu erdirakoi hau “un proceso irreversible de integración de nuestro desarrollo histórico peninsular” izan dela, eta, gainera, prozesu txit progresista izan dela —ekonomiak ekarrita datorrenez eta ekonomiaren progresoa dakarrenez— eta kontra zihokion edozer gauza erreakzionario zela. Beraz: “La asimilación vasca en el Estado Nacional Español, *que es una asimilación vasca por el capitalismo* (?), constituye sin duda un progreso histórico” (SAIOAK).

Hori da. Progreso filosofia honetan, prozesu erdirakoiari, berdinketari eta asimilazioari, buru egiten diogen guzia —Foruzaletasuna, regionalismoa, abertzaletasuna, euskararen aldeko borroka, etab., dena berdin— atzerakoi eta erreakzionario da: “espíritu rural y reaccionario”, “filosofía de campanario”...

Orain, bistan da, denak omen dira antizentralista. De-

mokratiko eta antizentralista sinonimo bezalatsu bihurtu bait ditugu, Euskal Herrian behintzat, zentralismo eta frankismo berdindu samartu ditugun moduan. Baina ikusi egin beharko da, zenbat egungo demokrata den bihar antizentralista. Ikusi eta gero sinestu. Ez lehenago.

Ez al zuen Esparterok ere Foruak errespetatzea zin egiten? Biharamunean ederki errespetatu zituen... Ez al dago XIX.gn mende osoa federalista porrokatuz beteta, Gobernura ailegatu orduko zentralistaz?... Ez al zuen Francok berak, 37.ko maiatzean: "la propiedad del nuevo Estado, con una labor *descentralizadora y de respeto a las peculiaridades y tradiciones comarcales*, con su justicia social efectiva y rápida", etab. esaten? Hilabete eskas geroago:

El sistema concertado que en materia económica regía en las provincias Vascongadas entraña un notorio privilegio con relación al resto del territorio nacional... No es, pues, admisible que subsista ese privilegio sin agravio para las restantes regiones... Nadie, en definitiva, podrá afirmar con fundamento que al equiparar estas provincias a la inmensa mayoría de las que integran la nación, sometiéndolas a idéntico régimen tributario (...) es acto de mera represalia y no medida de estricta justicia. *Dado en Burgos, a 23 de junio de 1937, Francisco Franco Bahamonde.*

Gure historian, ez dira promesak, falta zaiguna...

Gaurko PSOE-zialistek eta komunistek, agian ez dabilazte gehiago atzoko histori filosofiak eta eskemak. Baina abertzaletasunari atzerakoi eta erreakzionario derizkiote atzo bezalaxe gaur ere: langileriaren batasuna puskatzen omen duelako, etc. Ikustekoa litzateke, arrazoipide berriotan ere zenbateraino dabilzan konprometaturik oraindik histori filosofia zaharrak. Azeriak ile zaharra botatzen bait du, ez larrua. Baina horrek tratamendurik aparte beharko luke.

Behin eta berriro ikusten duguna, da, sozialista klasikuontzat abertzaletasuna beti atzerakoa dela. Atzo arrazoi bategatik, gaur beste bategatik, baina beti zerbaitegatik. Izan ere, horiek nahi duten progresoa, aintzakotzat hartzen duten progresoa —begira dezagun beti, zeren progreso den progresoa—, ez da guk nahi dugun progreso guzia.

Libertatea eta buru-jabetasuna haunditasunarekin nahastu ohi dituzten gizarteok, espainolak tradizionalki egin izan duen bezala (haren herri soberaniak Inperioaz koinziditu zuelako edo), beren progreso burutapena dizute. Inperio pentsaerak markatuta gelditu dira. Progreso zer den, horientzat, indar eta botere konzentrazioak determinatzen du, ez askatasun guti ala gehiagok. Inperio mota berriren batek, berriz ere, monarkiaren batek eta absolutismoren batek —orain “aurrerapen ekonomiko” esaten zaion horren Inperioak eta absolutismoak alegia— determinatzen du beti ere progreso zer den.

Seinalagarria hori. Zeren eta, sozialista klasikuontzat ere, abertzaletasuna ez bait da atzerakoi, ikusi dugun Arnanaren hura bezalakoxea izategatik propio —klerikal, etc.— soil abertzaletasun izategatik baino. Arana Goiri antiklerikal, laizista amorratua izan balitz ere, sozialistaontzat erremisio gabe atzerakoi lardaska bat izango zen, abertzale baldin bazen. Izan ere, aberri unibertsal haundi bakarrean, mintzaira unibertsal haundi bakarrean, etc. bukatzen den bidetik aldentzea da beti abertzaletasuna, “apartar al pueblo del camino a que le llevan fatalmente los fenómenos económicos y que va a parar al socialismo revolucionario”.

Lege ekonomikoak “natura itsu” bezala kontsideratzea kritikatzan zuen behiala Marxek; kapitalismoaren legeak isil-isil onarrarazteko baizik ez omen da hori. Haren ikasleok, ordea, aurretik beste inork ez bezala kontsideratzen dizute ezinbestezko natura itsu bezala, lege ekonomikoak ezezik, barnetik legeok determinatzen duten historia gu-

zia ere. Progresoaren eta ekonomiaren natur determinismo itsu batek, Foruen, euskararen, Euskal Herriaren asimilazioa Espainia baitan eta heriotza erabaki dute. Arrazoipideotan, progreso dioen tokian “grandeza” idatzi eta logika ez da batere nahasten. Ukitu ttipi-ttipi batekin, dialektika sozialista Cisnerosen teologia bihurtzen da.

Ikuspide horrekin, euskaragatik axolatzea edo Foruen galeragatik kezkatzea retrogrado da. Historiaren progresoari kontra irten nahi izatea bait da.

Abertzaleek historiari buelta eman nahi liokete, Erdi Haroko Estatutxoetara itzuliaz. “Sus esfuerzos... para remontar la corriente de la civilización y la ciencia, rayan en la insensatez”. Asimilazioa Euskal Herriaren zibilizazioa da funtsean.

Esan dugu, Aranek historiari buelta eman nahi liokeela, nekazal gizartera itzultzeko. Baina ohargarri da, hori ez dela sozialistek gehien kritikatzeko dutena, Sabin Arana historiaren eta progresoaren kontra doala, esaten ari direnean. Euskadi bezalako Estatu ttipi bat da horiei “corriente de la civilización y la ciencia”-ren kontrario iruditzen zaiena. Estatu ttipi bat, hizkuntza ttipi bat, progresoaren kontra daude... Hori edozeinek ikusten du: Holanda edo Belgika progresoaren kontrago daude Brasil edo Sudan baino! Sozialistek behintzat hori sinestarazi nahi digute.

Karlisten, bizkaitarren (hots, euskal abertzaleen) nahiz katalanisten aurka “langileak beti progresoarekin konformeago dauden soluzioen alde enpeinatuko dira”, proklamatzeko LC-ek. Beraz, herri ttipien kontra eta ahalik haundien alde; hizkuntza ttipien kontra eta ahalik haundien alde; abertzaletasunaren aurka eta kosmopolitismoaren alde, etc. Eta sozialismoa nagusi dadinean “desparecerán las tonterías de razas y nacionalidades”.

Izpiritu xit zabala sozialistaona: “no queremos ser vascongados tortugas, metidos en la concha del exclusivismo y del antagonismo regional, quisiéramos más bien dar ex-

pansión a las cualidades buenas de la raza [baina ba ote dago?], llevándolas a otros pueblos que estén de ella más necesitados”.

Izpiritu xit progresista, orobat, eta inola santa ezin jasan ditzakeena *esas resurrecciones medievales de patrias chicas y ese afán de particularizarse con dialectos y literaturas regionales*.

Eta, beraz:

Ni patrias chicas, ni patrias grandes. Ni dialectos, ni juegos florales, sino una lengua si es posible para todos los humanos.

Eta hori posible izan dadin artean, ttipia baino hobe haundia. Beraz, espainola. Mugak eta murruiak eta murrailak eraiki nahi omen dituzten abertzaleen “izpiritu txinoaz” burlatuko dira sozialistak.

Euskara, batez ere, “izpiritu txinoak” baizik ezin maita dezake, sozialistaon ustez: zibilizaziotik eta progresotik apartatzen gaituen hizkuntza ttipi eta aldrebes hori. Euskara hiltzera doa: “y yo estoy convencido —idazten zuen Unamunok, Salamankakoa baino lehenago Bilboko sozialisten erretoreak— de que la principal causa es de origen intrínseco, y se basa en la *ineptitud del eusquera para convertirse en lengua culta*” (*La cuestión del vascuence*). Eta gauza bera behin eta berriro, ondo garbi gera dadin bere pentsamentua: “Lo que afirmo y reafirmo y sostengo es que el vascuence se pierde sin remedio, que se perdería aunque formásemos los vascos nación independiente y pretendiéramos imponerlo como idioma oficial, que se pierde por su índole misma, como perecen ciertas especies así que se trata de hacerlas domésticas, y que *nos conviene a los vascos que se pierda*, pues no por ello perderemos nuestra peculiaridad psíquica, sino que la acrecentaremos más bien”.

Beraz, penatu eta tristatu egingo al gara, protestatu, edo eta merezi ote du borroka egitea, euskara salbatzeko?

Euskararen eskubideak esijituko al ditugu, Estatu gure hizkuntza zanpatzen ari bait da? Ez, ez... Sozialistek, berek eskatzen dute, edo nahi dute, Estatuak euskara persegitzea. Ez dago zer tristaturik eta gutiago zer borrokarik egin, euskara salbatzeko. Sentimentalismo hutsa litzateke hori. Arrazionalki jokatu nahi badugu, geuk ahalegindu behar dugu, euskara itotzen. Izan ere, bere barne ezintasunek hilarazten dute euskara polliki-polliki. Zibilizazio modernura adaptatu ezinak. Beraz, hoberena euskara hiltzea dugu, lehenbailehen eta agudo hiltzea. Progresorako eragozpena besterik ez dugu bestela. Unamuno dixit:

- Es en mi antigua convicción de que el vasconce... carece de condiciones intrínsecas para servir de medio de expresión a un pueblo que entre de lleno en la vida espiritual moderna, y que *constituye un grave obstáculo para la difusión de la cultura europea en mi país.*
- *La razón nos pide* que no malgastemos en la baldía labor de resistir a lo incoercible, fuerzas que para otros fines nos hacen falta. Nos es preciso *resignarnos por lo menos al progreso...*

Abertzaleak, bada, sozialista progresistaon begietan, sentimental hutsak zenituen, irrazionalitsuak, erremedio gabe progresoak sakrifikatzen zuenaren nostalgikoak. Sentimental, irrazional, nostalgiko: sozialistek beti erabiltzen dituzten adjektiboak dira —eta gaur arte!— abertzaleak deskalifikatzeko. Berak, ordea, sozialistak, beti hotz-hotz eta arrazionalki jokatzen dutenak, dira. Zientifikoak. Progresoak esijitzen dituen sakrifizioak —Foruen deusezta-pena, euskararen heriotza— negar eta alferrikako protesta sentimental gabe, hotz-hotz, onartzen dakiten gizonak, arrazoimenak agintzen duen bezala. Berak progresoari begiratzen diote beti. Sentimentalismoak ez die begia lausotzen. “*La razón nos pide*” eta “*resignarnos por lo menos al progreso*”: sozialisten hizkera da Unamunorena...

Beren arrazoipideetan sozialistaok ezkerretik bezalaxe ateratzen dizute pilota eskuinetik (eskuindarrek ez dituzte moldegaizkiago erabiliko arrazoipide ezkertiarrek, abertzaleon kontra joateko denean). Behin, Erdi Haro beltza berbiztu nahi lukeen mugimendu artxirreligioso, jesuitikoa, eritziko diote abertzaletasunari; hurrengoan, ordea, *anticristiano* dela, argudiatuko dizute: gizon guzien anaitasuna ukatzen omen duelako. Behin, abertzaletasuna sentimentu hutsa dela; eta, geroxeago, “antinatural” dela, gizonaren sentimentuak eta, batez ere, sentimentu oinarritzkoena ukatzen omen duelako, elkartasun eta batasun sentimentua...

Sozialistak aranismoaren atzerakoi eta kontserbakoikeriaz bestela burlatzen badira, guk ez dugu zer esanik: “conmemorar batallas con misas”, etc. Baina sozialismo klasi-kua eta abertzaletasuna elkarri buruz-buru jarri dituen ez da hori. Hori badago, noski. Baina hori baino sakonago, suak ateratzen bait du kea, beste hau dena dago. Eta suari begiratu behar diogu, ez keari.

Abertzaleekiko sozialisten posturan aire destakatuena, karakter nagusia, zerk duen, galdetzen badugu orain, erantzuna ez da zaila: desprezio olinpiko ikaragarri batek. Sozialistei sekulako gehiagotasun konpleso bat nabari zaie frase eta esaldi bakoitzean. Ikaragarritzko desprezio bat. Aranak maketoak mespretxatzen bazituen —eta mespretxatzen zituen— azkenean lirika goxo-goxoa da hura, sozialisten abertzaleentzako mespretxuaren aldean. Oso goi-goitik behera hartzen dituzte sozialistek abertzale baserri-tar, ezjakin, basati, arloteok. Ameslari zoro batzuk bait dira, *locos* eta *grillados*, maniako hutsak, *ideal raquíto* batzu-dunak, historiarik ez dakitenak eta historiaren lege sakonak eta burdinezkoak are ez dakitzatenagoak, idazle gisa ere franko baldanak, “escritores sin pinta de aprensión”... Desprezio espainol bat, eta bakarra hura, hasieratik azkeneraino: tradizio luzeari jarraiki. Francok ere, geroago, sozialistaon hitz berberak erabiltzen zituen: “separatistas y locos” esan ohi bait zuen euskal abertzaleez.

Guk, haatik, nazionalismoak despreziaten eta gorrotatzen ditugulakoxe euskal abertzale eta "nazionalista" izatera behartuak gaudenok, badakigu apur bat, sozialisten mespretxuok zenbait nazionalismo espainol gaizki disimulatu eskutatzen duten. Agian ohartzen ez bazuten ere sozialistek berek.

Arana Goiri oso mintzen zuena dirudi desprezio horrek: etorri bada etorri da Bizkaira makina bat langile, baina "agradecen los dones con la burla"; eta Bizkaian joera abertzalerik baldin badago, "los socialistas se burlan de ellas, insultan sin descanso a los que las siguen y les da una higa de las doctrinas y de los doctrinarios" kexatuko da.

Abertzaletasuna eta sozialismoa, elkar burrukatzen zuten baino sakonago, elkar mespretxatzen zuten bi joera genituen. Sozialistak, gehiagotasun konplexo harro batekin; abertzaleak, gutiagotasun konplexo amorratu batekin.

ABERTZALETASUNA BURGESKERIA DA

Ikusi dugu sozialistaon ustetan, alde batetik, abertzaletasuna oinarri gabeko gauza zela (ez dutelako euskal naziorik onartzen) eta, bestetik, asmo kaltegarria zela, retrogrado eta progreso historikoaren aurkako zenez gero.

Zer da Euskadi: *región* ala nazio? Sozialistentzat Espainiaren attal hutsa da. Historia luzeetara sartu gabe, hau ez bait da lekua, ohartxo batzuk egin genitzake lllabur-llabur: euskal nazioa ukatzen edo ignoratzen duten sozialistaok, tradizio espainol luze baten oinordeko ditugu hortan ere. Liberalismo hemeretzigarrendiarraren oinordeko batik-bat: harentzat nazioa Espainia zen, bere buruaren jabetasunez dotatua; Euskadi zer izan edo Euskadin zer egin, "osoak" erabaki behar zuen, attalak ez zeukan bere kisa erabakitzerik. Osoak erabakitzen dio zatiari zer aritu. Beraz, sozialisten teoria sozio-ekonomikoen aurretik (Estatu barruko proletargo osoaren batasuna esijitzen dutenak) liberalen Dretxo teoriak dauzkagu: Estatu barruan "gehiengoaren" nagusitasuna proklamatzten zuena Dretxoaren iturburu. Estatuaren barruan euskaldunok ez gara gehiengorik. Ez dugu geure Dretxo propiorik oinarritzen. "Nazioa" Espainia zen liberalentzat; beste naziorik egon zitekeenik ere ezin zuten entzun. Hots, beste inor beregain izan zitekeenik "Espainiaz" kanpo. Behin diputatu batek, espainol

Gorteetan, euskal nazio bat egon zitekeela, aipatu zuen bide nabar, eta sekulako istiluak eta espantuak sortu zituen. Ez zen, noski, izen eta hitz konturik, barneko edukinarena baino. XIX.mendea aurrera samarturik hori. Mende hasieran, Cadízko Gorteetan, Espainiarako konstituzio berria asmatu behar zela ta, une batez federalismoaren posibilidadatea aintzakotzat hartu zen. Hona hemen, ordea, Muñoz Torreren purrustadak: “Estamos hablando como si la nación española no fuera una, sino que tuviera reinos y estados diferentes...” Horra betiko *España una* sakratu hori, sozialistenganaino bizi-bizi heldu dena eta falangistenganaino halaber. XVIII.mendeko Ilustrazio zentralistatik dator, denok dakigu. Baina XVII.mendetik ere dator, Olivaresen “nacionalismo castellano” erre-erre eta ozpin hartatik alegia. Harek alderantziz zerabilen nazio hitza, baina zuzen intenzioa: “Malditos sean los hombres nacionales..., —esaten zuen; yo no soy nacional, que es cosa de muchachos”. Nazio madarikatu horiek “probintziak” ziren: mutikokeriak dira probintzizaletasunak; gizonak osotasunari begiratzen dio, *España una*-ri. Eta, urrunago, Cisnerosengandik eta Errege Katolikoengandik dator —falangistek ondo igarri diote beren Patroiak hautatzean, Errege Katoliko haiek eta azkonak eta uztarria— etengabeko hari xuxen-xuxenean. Oso tradizio espainola da —eliztiarra— zentralismoa, “unibertsalismoa”; oso espainola da “probintzikerien” mespretxua: regionalismo, abertzaletasun, nazionalismo periferiko, euskalzaletasun ala separatismo, mutikokeriak bait dira denak, oinarri eta funts gabe, eta kaltegarri. Konstante historikoak...

Zentralismoan, asimilazioan, Foru ezeztapenean, etab., badago, bai, progreso bat: tradizio baten progresoa. Cisnerosen ikusgunetik begiratuta, progreso garbia da hori dena.

Horixe bait da kontua: ikusgunea.

Beste ikuspide bat, ordea, Mariskal Don Pedro Nafarroakorena da, inperialek Espainiako gartzeletan asasina

zezaten aurretik, bipilki erantzuten bait zuen: “Señor, yo no soy español ni vasallo de la casa de Castilla, y como caballero permaneceré fiel al juramento prestado a los señores reyes D. Juan y Dña. Catalina, verdaderos reyes de Navarra, y no renegaré de mi patria”.

Dena dela, ikusi dugu, sozialistentzat euskal abertzaletasunak oinarririk batere ez duela eta kaltegarri dela gainera. Sozialisten abertzaletasun aurkako beste arrazoi batetan alderdi biok batera kausitzen ditugu: abertzaletasunaren burgeskerian. Abertzaletasuna oinarri gabeko gauza iruditzen zaie (inolako abertzaletasunik ez duelako proletargoak); eta kaltegarri, orobat, burgesiak bere asmotarako artifizialki darabilen tranpa hutsa derizkiotelako abertzaletasunari.

Ikus dezagun, sozialistek abertzaletasunaren nolako analisisa egiten zuten eta azterketarik egiteko zer tresneria zerabiltzen.

Hasteko, sozialistek ez aberri eta ez nazio konzeptu taxuzkorik erabili ohi dute, beren abertzaletasunaren ukazioa erraztuko dien sasi-konzeptu propagandistiko pare bat baino.

Meabe saiatu zaigu aberri konzeptua zer den argitzen: “Patria no es hoy la unión de hombres con intereses y aspiraciones comunes, ni con la misma religión y raza, ni es la libertad de los pueblos, ni el cacho de tierra en que nacimos, Patria es simplemente cada una de las secciones juntamente con la organización político-económica privativa de ellas” gizartean.

Nazio zer den ere —“estos vastos sindicatos que llamamos naciones”— Meabek argitu dugu: “Una nación es ante todo y sobre todo una categoría económica, un sindicato tácito de capitalistas que mantienen un ejército para proteger el proteccionismo”.

Gero betiko nahasketa haiek: “Las naciones son productos históricos formados ante todo y sobre todo en atención a los intereses de la burguesía”, etc.

Nazio eta aberri hori izanik, berez dario abertzaletasuna zer izan daitekeen: “El patriotismo, como todas las ideas falsas y antihumanitarias, como todas las pasiones bajas y exclusivas (!), tiende a deducir de sus principios las consecuencias más absurdas, y sus partidarios, o mejor dicho, sus explotadores, ahora que ven que a la luz de las ideas modernas de solidaridad y fraternidad universales se desvanece el antiguo y bárbaro concepto de pueblos enemigos y fronteras infranqueables, afánanse por mantener encendido el fuego sacro de los rencores nacionales, tratando de inculcar en el ánimo del pueblo los viles sentimientos de que se hallan poseídos”.

Gogoetaok Unamunok borobilduko ditu, zen halako superpatriota espainol (baina “egiazko patriota”!) haundiak: En todos los patriotismos y patrioterías todas, sólo se revelan por lo común, cuando no un sentimentalismo huero, esfuerzos encaminados a corroborar y fortificar la esclavitud del siervo adscrito a la gleba”.

Langileak aberririk ez du: “Juan Sin Patria”. Eta sozialisten programan, ideietan eta asmoetan, “no halláis ni hallaréis patria” (Meabe).

Musika zerutarra! Abstrahikuntza maila guziz altuak eta kontsiderazio zientifiko guziz sakonak izango dira horiek, aberriaz eta abertzaletasunaz tratatzeko, baina duda haundiak gelditzen dira, abertzale batek hor bere burua erreflesaturik aurki ote dezakeen, borondate onenarekin ere; duda haundiak, egunoro kalean aberri eta abertzaletasun bezala sentiturik aurkitzen duguna, burruka abertzaletak burrukatzen duena, ezer-ezertan ere konzeptu edo deskribapen horiek erreflesatzen ote duten... Zihur-zihurki, askoz hobeto erreflesatzen dute azterketa itxuran ari denaren ideologia.

Horiek horrela, zerk biztua ote da euskal abertzaletasuna? Burgesiak, ez bestek. Eta, zehatzago, kazikiek.

Abertzaletasuna kazikismoaren fruitu da —esango du-te beti sozialistek. Abertzaletasunak ez dira superstizioak besterik, sineskeriak, “alimentadas por los caciques”.

Hori dena ez al daukagu beste nonbait entzunda?... Ah, bai, aspaldiko pasadizo batetan zen, Marxen eta Lafarguen artean. Lehen Internazionallean bazen talde bat, Lafarguek gidatzen zuen frantzesena, nazioak eta nazio kezka "aurreritzi zaharkiloak" eta "superstizioak" zirela, esaten bait zuen. Proletargoa nahasteko burgesiaren amarruak zirela, besterik ez. Marx gogorki argoitu zitzaien: Fourierismo garbia dela hori eta beste ezer ez; nazioen eta nazio kezken ukamen harek ez zuela adierazten beste nazioen asimilazioa nazio frantzesean besterik... Nazioen eta nazio kezken ukoa da, orain, frantzes xobinismoaren jantzi berri-berria: berak iadanik irabazi duen posizioa defendatzen du eta aseguratu nahi du, bera nazio indartsu izanik, besteak ere beren buruen jabe bilaka daitezela eragotziaz; beren askatasuna, buru jabetasuna, nortasun desarroiloa, ahaztu, eta burruka proletario hutsa egin behar dute; hau da, nazio aldetik, batik-bat, "egina dagoen" nazio frantzesean urtu... Beste behin proudhonista deritzaie horiei berei: nazio arazoak zozokeriak direla, ari dira esaten, eta ez dira frantzes xobinismoa pribilejiatzen baizik ari!

Gerra aurrean, Andreu Nin ezker abertzale katalanak pasadizo horixe gogoratu ohi zien PSOE-zialteiei: "Cuántos pseudo-internacionalistas de nuestro país adoptan una actitud hostil ante el problema catalán en nombre de un internacionalismo que, en la práctica, significa la hegemonía de la nación castellana sobre las demás!"

Zeintzuk dira, hemengo sozialisten azterketaren arabera, abertzaletasuna bizten dabilten kazikien interes konkretuak?

Bi dira, edo funtsean bat eta bera. Lehenengo: kazikiok aurreko urteetan pribilejioz ederki jantzi dira Biziak (protektionismoz!), beste inon ez bezalako abantailak eta kontzesioak berenganatuaz. Eta, lehenik, beren pribilejioak ongi zaindu nahi dituzte, langileria bere zereginetatik despistatuaz. Dabilela nazio burrukan, bai, eta ez

ditzala haren pribilejioak ukitu! “La burguesía comprende que sumiendo al obrero en el odio de razas le retiene mejor entre sus redes imposibilitándole de seguir el verdadero camino, y eso es precisamente lo que hacen con su política patrioterá”. Langileria nazio burrukan entreteniturik dabilen artean, burgesiak bere politika egiten du. “El separatismo hoy, como el patrioterismo ayer, no son más que cuerdas tocadas a tiempo por los explotadores, para que la multitud continúe amarrada a las cadenas de la dependencia económica”.

Bigarrenik, ordea, zaindu ezezik, beren pribilejioak haundiagotu eta gehiagotu egin nahi dituzte euskal burgesek. Eta hortarako abertzaletasunaz baliatzen dira, hemengo jendea engainatuz, gero Gobernuá, jende bihurritua baretzeko, are kontzesio haundiagoak eginez joan dadin... burgesiari! “Puede sin exageración decirse que la centralización y el caciquismo han conseguido ya de hecho separar Vizcaya del Estado, de las leyes generales del reino y de todas las leyes divinas y humanas”. Esajeratua ere iruditzen zitzairen nonbait sozialistei lehendik ere Bizkaiak zuen askatasuna... eta gehiago nahi oraindik?

Burgesiak pribilejio eta kontzesio geroz eta gehiago nahi du, beti gehiago. “Y, claro, si en realidad está Vizcaya separada por virtud del caciquismo, ¿qué de extraño tiene que fomite allí el separatismo monomaniático de Arana?” Euskaldun zozo dohakabeak, ordea, kazikien interesen defentsan ahaleginak ari dira egiten, abertzaletasuna dela ta. “¡Cuántos infelices —suspiratzen zuen Don Miguelek— han ido al nombre de patria a morir defendiendo el predio del amo mismo que los esquilmba!”. Burgesok nahi dutena gauza sinplea da: Bizkaiá berek nahi duten moduan agindu eta gobernatu, inoren eragozpenik eta trabarik gabe. Nagusi absolutu berak izan. “El ideal que persiguen los nacionalistas que gozan de buena posición nadie lo ignora; ser ellos los únicos que rijan los destinos de esta región de España”.

La lucha de clases erretorika bero-berotan berotzen da:

A) No es la patria para todos esos ardientes patriotas algo espiritual que se constituye por afinidad de lengua, de sentimientos y de costumbres; no es un grupo que se especifica para mejor integrarse con los demás grupos; no es una vasta familia humana que quiere entrar en hermandad universal con las demás familias, no es nada de esto.

B) La patria para los patriotas burgueses es por de fuera una institución gloriosa y de procedencia divina, cargada de heroicas glorias, las más de las cuales se reducen a matanzas y barbaridades, constituida por leyes y códigos y asentada en un gobierno; por dentro es un territorio cerrado con aduanas, acotado por el registro civil, y defendido del progreso, del verdadero patriotismo por un ejército encargado, ante todo, de sofocar a los hambrientos y de mantener los privilegios de la burguesía. Guerra y proteccionismo; he aquí los dos cimientos del patriotismo burgués. Sin ejército y sin aduanas se hundiría la patria burguesa, llevándose al diablo todas sus glorias.

Justu hortxe agiri da bista-bistan azterketa honetako nahaspila: Aranismoak, hots, euskal abertzaletasunak, ezertan insistitu badu, goian A-z markatu dugun hortantxe da: sozialistek, dirudienez, ontzat emango luketen aberri "izpiritualean". Aranak beti "afinidad de lengua, de sentimientos y de costumbres" horixe inbokatu du, berak, hobe beharrez, *arraza* bazerizkion ere. (Bakuninek ere "arraza eslaboa" askatu nahi zuen bezalaxe, bestalde.) B-az markatu dugun guzia, ordea, justu nazionalismo espainolaren deskribapena iruditzen zaigu, euskal abertzaletasunarena baino zuzenago. Euskal burgesia Konzertuzale antiabertzalearena ere bai. Euskal abertzaletasunak bere haundikeriak eta haundi-nahiak izango ditu. Baina aberria *una institución*

gloriosa y de procedencia divina, dela, cargada de heroicas glorias, las más de las cuales se reducen a matanzas y barbaridades, hori eskolan ikasi dugu; eta irakasten zigutena ez zen euskal aberria, ez.

Baina Euskadiko sozialistek euskal abertzaletasunari holako testuekin atakatzen ziotela, konprenitzeko, beste puntu bat gaineratu behar dugu. PNV zein jendek osatzen zuen, azertuaz, emaitza honetara iristen ziren sozialistak: “El partido nacionalista compónese de burgueses grandes y chicos y de gentes de escritorio”.

Jendeok dituzu abertzale Alderditarrak, sozialistek diotenez:

- “burguesía haundia”;
- “toda la burguesía indígena: la oligarquía de propietarios y los restos de los antiguos jaunchus o hidalgüelos”;
- “los pequeños industriales y comerciantes y los dependientes de casas comerciales, mineras, bancarias, etc.”

Otro har: “burgueses grandes y chicos y gente de escritorio”.

Bestelako abertzale pare bat ere bazegoela, ematen du, kasuotan sozialistek aintzakotzat hartzen ez dituzten arren: langileak, baserritarak, arrantzaleak. Beste leku batetan, sozialistak abertzaleen kontra ez, baino karlisten aurka ari direla, Alderdi Karlistak ez duela Euskal Herrian behialako indarririk, adierazten du LC-ek (1896, urriak 1): “Las masas obreras de este país, que en un tiempo manejaban a su antojo los carlistas... se han hecho socialistas... Los que no han pasado del carlismo a nuestras filas, han retrocedido sumándose con los bizkaitarristas o separatistas, cuya propaganda ha sido principalmente contra el partido de don Carlos, tenido por aquéllos como españolista y, por lo tanto, como enemigo irreconciliable de estas provincias”.

Halare abertzaleak burgesiako jendea zirela eta aber-
tzaletasuna mugimendu burgesa zela, esango dute beti so-
zialistek.

Arana Goirik segituan protestatu zuen, Bilboko aber-
rats eta aberaskume haundietako bat bakarra ez zela ha-
ren Alderditar; gezur beltza zela, orobat, Alderdia kapita-
lista haundiek finantziatzen zutela (Aranak berak hortan
xahutu zituen bere hondasunak): “no han servido al na-
cionalismo porque aman su dinero más que a su Patria”.

Ezaguna da, bestalde, *el españolismo de la mayor parte de la burguesía vasca* (S. G. Payne). Solozabalek hone-
la adierazten duena —abertzaleen atzerakoitasuna erakus-
teko modu berria hori bait da: “la burguesía emprende-
dora y progresiva era, entonces, clara y francamente espa-
ñolista”. Eta A. Elorzak: “...a diferencia del regionalis-
mo catalanista, no será la fracción dominante de la bur-
guesía vizcaína quien protagonice el cambio: el capitalis-
mo monopolista, vinculado básicamente a los sectores mi-
nero y siderúrgico, conferirá el poder económico en Viz-
caya a una capa social que, jugando a fondo con los re-
sortes de la corrupción electoral, copará asimismo el po-
der político a fin de siglo. Es plenamente válida la ima-
gen que ofrece un Ybarra y Bergé en su *Política nacional en Vizcaya*, de estricta adecuación de dicha gran burgue-
sía al espacio económico y al aparato estatal españoles; fi-
delidad a un mercado y a un centro de poder que no se
vería desmentida en el futuro”.

Ezaguna da, orobat, abertzaleen arantaren eta bur-
gesia haundi espainolista horren arteko harremanak ez zi-
rela izan batere gozoak.

Historiari gagozkiola, are bitxiago gertatzen dira, bi-
txi baino tristagarriago ez bagenitu behintzat, sozialisten
kritikak. “La patria no es para los patriotas burgueses...”
esan, eta gero esplikatzen dutena, burgeson aberria, Espai-
nia bait da, ez Euskadi. Sozialistek jakin behar zuten, be-
rek burgesiaren aberri bezala aipatzen eta kondenatzen di-

tuzten erreterriak, harmadak, Gobernuak, kodes eta legegintzak, nolakoxeak diren eta Euskadiren kasuan nondik nora gaurko horretara diren: alegia, euskal burgesia horixe izan dela, Euskal Herriko erreterriak, harmadak, legegintza eta Gobernu foralak desegin dituen, Euskadikoak baino nahiago izan dituelako Espainiako erreterria, harmada, legegintza eta Gobernuak... Euskaldun abertzale batek burrukatzen duena ez da “aberri” horixe besterik: burgesiaren aberria, harek ezarri lege, harmada, erreterria eta Gobernuekin. *La lucha de clases*-ek aipatzen eta kritikatzten duen “patriotismoa”, zinez, espainolismoa da. Eta hor kritikatzten den burgesia hori espainolista da.

Sozialistek abertzaleak horrela kritikatztea, zerbait harriarri zaigu, hortakoz.

Nolanahi den ere, sozialistaok abertzaletasuna burgesiaren obratzat jotzen dute eta burgeskeria bezala kondenuatu dute.

Ikus dezagun, azkenik, abertzaletasuna nola epaitzen duten geroari buruz.

Abertzaletasunak, ondo begiratuaz gero, historia luzea du. Karlitatek eta, urrutira bait garamatzate. Badago Euskal Herriaren kezka bat, itzaltzen ez dena, geroz eta borbortzago berbortzen dena. Deskuido santu batetan Euskadi azkenean askatzea gerta baledi, zer orduan?

Euskadi askatuaren irudi oso beltza pintatzen digute sozialistek. Langileak ez luke ezer irabaziko —setatzen dira sozialistak. Langileak zapalduarik jarraituko luke. “¿Qué más os da a vosotros ser acogotados por el patrono vasco o por el alemán, el inglés o el chino?”, galde-erantzuten zuen Meabek. Dirudienez, hori nola dena berdin den, horberena patroia espainol izatea da... Agian badu inportantziaren bat, inportantziarik ez duela, esateari, hainbeste inportantzia ematen zaionean.

Ez hori bakarrik. Euskadi askatuan langileria orain baino askoz okerrago aurkituko litzatekeela, uste dute so-

zialistek. Sozialistek espero zutenaren arras kontra, Aranak hauteskundeetan diputatu irten zuen: “Euskal probintziak nazionalitate bat osatzera irits balitez —prebenitzen zuen kezkek beterik LC-ek— kazikismoak orain baino ere zabalero haundiagoa hartuko luke, orduan ez bait luke inoren eragozpenik eta freinurik izango”...

Euskadi libre batetan langileak Espainian baino askoz burgesiaren eskuetanago eta zangopeanago kausituko omen lirateke. Beraz, sozialistek atsedean gabe gonbatitu nahi dute abertzaletasuna, inoiz abertzaleok nagusi balitez, Euskadi, sozialistaok diotenez behintzat, “un pequeño Paraguay, gobernado dictatorialmente desde Loyola y Deusto” bihurtuko omen litzateke eta. “Se quiere... hacer del País Vasco un Gibraltar vaticanista”, eta abar, horiek ziren Prietok disparatzen zituen kartutxoak. *La lucha de clases*-ek kalibre bera zerabilen: inoiz Euskadi aska baledi, kazikismoak eskuak libre-libre izanen lituzke gogoak ematen dioen guzia egiteko. Jainkoak erruki orduan langile gaisoak!

* * *

Hiru oharrekin bukatuko dugu atal hau, gure azalpenaren azkenetik hasita: Euskadi askatua omen den “arriskuari” buruz; “abertzaletasun burgesaren” azterketari buruz, gero; eta, hirugarren, sozialistek Estatu guziraiko nahi duten berdintasunari buruz.

1. Sozialistek berrogei urte luze arrazoipideok erabili dituzte, erreparatu gabe, abertzaletasunaren kontra: euskal gizartea xit atzeratu dela eta Euskadi aska baledi klerikalismoa eta kazikismoa liratekeela nagusi, etab. Historiak, ordea, xelebreak egiten ditu axioak. Orain beste batzuek arrazoi horri buelta eman diote: Euskadi aska baledi, langileria askoz errazago helduko litzateke sozialismora, Espainiari lotuta baino, etab.

Eta PSOE-zialistei orain ez zaie batere gustatzen arrazoi hori: euskal langilegoak hobe du, diotenez, Euskadi askatu batetan dituen nagusitzeko posibilitateei renunziaztea, bere bentajak “internazionalismoari” sakrifikatuaz. Zeren eta, Euskadi sozialista bategatik, “sozialismo internazionalak” ez bait luke ezer irabaziko ...Euskadi berriz ere ttipiegi da inola arrazoiarekin ateratzeko.

Es imposible desmontar los instrumentos de explotación capitalistas independientemente en una nacionalidad o región, porque ello significaría, en el supuesto de que se consiguiera, una pérdida parcial de poder de la burguesía monopolista, que sin embargo conservaría intacta su capacidad de reacción en todo el resto del Estado. Como consecuencia de ello, en el supuesto hipotético de que la revolución socialista estuviera próxima al triunfo en una nacionalidad o región, si en el resto del Estado la clase dominante conserva intacto su poder político, económico y militar, ahogará irremisiblemente el triunfo de las fuerzas progresistas. Es imposible que el triunfo del socialismo se dé por “zonas” o por áreas geográficas diferenciadas, *arrazonatzen du orain* Benegasek.

2. Abertzaletasunaren burgeskeriari buruz, edo hobeto, burgesiaren abertzaletasunari buruz, asko diferentziatu eta xehatu beharko litzateke. Abertzaletasunari aina kalte sozialismoari berari egin bait diote kapitulu honetako sinplismoek.

A) Sozialistaok zuzen ari badira behinik-behin, euskal burgesia horrekin ez dakigu zer mirari miragarri gertatzen zaizkigun... Burgesia hori espainolista da eta separatista da, biak batera. Oraintxe arte eginak ditu ahalegiak euskal beregaintasun forma oro desagiteko: errenteriak Ebrotik Bidasoara ekarri, Foruak suntsiarazi... Eta, orain, sozialisten kritikak abertzaletasunari ikusi eta, ema-

ten du, horiek berberak direla, desegin duten horixe dena berriro nahi luketenak.

Nahasketa berdinak epaietan: burgesia hori xit progresista da eta bildurgarri atzerakoi da. Progresista da, "Erdi Haroko beregaintasunak" desegin eta traizioz, konkistaz, Foru ezeztapenez, asimilazio bortxatuz, Euskadi Espainiari lotu dioenean. Xit atzerakoi da, burgesia hori bera (omen) abertzale bada: Erdi Haroa desegiten du eta berregiten du, biak batera.

Beharbada gauzak argixeago uzten dira diferentziatxo batzuk onartuaz: adibidez, regionalismo eta abertzaletasun ez direla gauza bera; eta, adibidez, abertzale direnak eta regionalista direnak, ez direla berdinak. Baina sozialistei diferentziok ez zaizkie axola.

B) Badago euskal burgesiaren "patriotismo" bat, hain zuzen, abertzaletasunik ez, baino regionalismo huts-hutsa. Baina sozialistek abertzaletasun, separatismo, foralismo ala regionalismo, dena berdin dela, erabaki bait digute! Horra komeria. Sozialistek arras berdin-berdinu egin dituzte burgesia "Foruzalea", erabat espainolista, eta abertzalegoa. Biak Euskal Herriaz mintzo ohi zirelako edo.

Burgesiaren patriotismo regionalista Konzertu Ekonomiko eta protekzionismo eta pribilejio-zale da. Horixe, eta ez gehiago. Beltzak zuzen ohartu du:

Es obvio que la posesión del poder local y el continuo combate para arrancar al Gobierno la gestión privilegiada de las nuevas fuentes de riqueza (ferrocarriles, electricidad, por ejemplo), van a constituir un motivo de comportamiento político para la oligarquía local. Es más: el hecho de que los sueldos de los empleados municipales y provinciales estuvieran concertados supone la posesión de una fuerza directa sobre un ejército de funcionarios a su servicio.

Konzertu Ekonomikoek Euskadiri autonomia ekonomiko piska bat uzten diote, egia da. Baina, egiten ziren moduan, burgesiarentzat ziren onuragarrienik. Langileen-tzat eta landerrenentzat apenas zekarten atarramenturik. Arrazoi osoa dute sozialistek “abertzaletasun” (hots, regionalismo pribilejiozale) honen kritikan.

Eta oharrarazten du Beltza berak: “el nacionalismo vasco discurre paralelo a la lucha por la extensión de los Conciertos, pero sin confundirse con ella”.

Burgesia Konzertu-zalearen patriotismoa eta benetako abertzaletasuna zein diferente ziren, *euskararen arloan* ikusten da, esate baterako. 1901-eko dekretu batek Diputazioen eta Udalen esku jarri zuen Lehen Irakaskuntza. Burgesiak deus ez zuen egin Euskadin euskal irakaskuntzarik eman zedin. Aitzitik, bere ahala egin zuen betiko politika asimilazionista jarraitzeko: euskara eskoletatik iraitzi; erdal irakasleak ekarri eta erdaraz irakastera behartu; “eraztunaren metodologia” ezarri euskaraz mintzatzen ziren haurrak zigortzeko... Arana Goiri biziki saiatuko da praktikaon kontra. Baina —eraztunaren usadioa 1902-an debekaraztea lortu zuela aparte— gauza haundirik ez du iritsi ahal izan. Burgesiak ez du Euskadi arras espainolizatzeko bere enpeinuan amor emango. Liga Monarkikoak biltzen zuen burgesia, Bizkaiko Diputazioa maneiatzen zue-na, euskal kulturaren etsai zeken agertuko da beti, edozein kultur agerkun ala kultur bide gorabehera izan. Euskararen kontra eskoletan, Eusko Ikaskuntzaren kontra gero eta —Primo de Riveraren diktaturakoan— Euskal Unibertsitatearen kontra azkenik. Oruetak esaten zuenez:

(Gogoratuko duzue):... el mitin del Teatro de Arriaga, rechazando la Universidad Vasca y la preparación del informe retirándose por la Diputación de Vizcaya y la subvención otorgada a la Sociedad de Estudios Vascos, el cual, también se ha elevado a acuerdo en la Diputación... No cabe duda de que las insinuaciones sórdidas del preámbu-

lo del dictamen sobre la misma, y todas las manifestaciones antes citadas en contra de cuanto fuera vasco, obedecían a una política claramente significada de separarse de todo lo vasco por el mero hecho de ser vasco, como así lo declaró públicamente un diputado en pleno salón de sesiones de la Diputación de Vizcaya con respecto a la Universidad.

Burgesia hori sekula ez da *dialecto* eta *lengua regional*-en alde egon... Alderantziz, kasualitatez bezala, sozialisten berdin-berdin pentsatzen zuen puntu horretan burgesiak.

Sozialistek eta burgesek beste puntu askotan ere koinziditzen dute abertzaletasunari buruz: sozialistek bezalaxe, euskal naziorik ez dagoela, esango dute beti burgesiaren idazleek. Euskadirik ez dela historian sekula egon (“Jamás en la Historia han formado las Provincias Vascongadas una región”) — atentzio piska bat ematen bait du, hemen, nola idazle sozialistak, euskal historiaz ihardute-rakoan, hain zuzen beti Bilboko historiazale burges anti-abertzaleez baliatzen diren! Eta Bilboko burges idazleek ere beti *rural*, hauzokoi, baserritar, Erdi Harotiar, etc. direlako, mesprextatu dituzte abertzaleak. Harrigarritsu da sozialistek berek ez koinzidentzia guziok erreparatzea.

Beren jokabide politikoetan ez da gutiago agiri, burgesiaren patriotismoak eta abertzaleen proiektu politikoak duten aldea. Burgesiaren patriotismoa “abertzaletasun fiskala” da eta kito. Eta beren “aberri fiskala” bai, gogotik defendatu dute burgesek, hemen ala nonahi. Hain zuzen horregatixe makina bat kalapita sortuko da burgesiaren tresnen —Alderdi, Liga, Diputazio— eta abertzaleen artean.

Hona hemen lehenengo kasu bat: Euskal Herriaren “aldeko” indarren lehenengo elkarganatze inportantea, behinolako liberalak nahiz karlistak biltzen zituena, 1905/

1906-ko Liga Foral sonatua izan zen. Liga honetan liberal, kontserbazale, integrista, karlista zein errepublikanoak elkartu ziren. “Dos cometidos trataba de cumplir la Liga: crear un frente común en el momento preciso de una renovación de cupos para el Concierto Económico, y presentarse como organización rival del naciente nacionalismo vasco, presentando un programa muy próximo en sus demandas, aunque muy lejano en sus principios” (J. M. Castells, *El Estatuto Vasco*). Beraz, burgesiak abertzaleatasuna kolpe batez behin eta betiko zanpatu nahi zuen.

El PNV se opuso a esta Liga Foral temporal, porque aceptaba la estructura básica del sistema constitucional español y se concentraba casi exclusivamente en los privilegios fiscales. Las meras ligas forales se consideraban la antítesis del verdadero nacionalismo. Comenzó también a manifestarse una divergencia, basada en la importancia dada a los temas económicos entre los nacionalistas y los intereses conservadores dominantes en Vizcaya. Mientras que estos últimos favorecían los grandes negocios, el PNV se centraba en los intereses mesocráticos y públicos. Los representantes del PNV de Bilbao tomaron la iniciativa estableciendo un sistema municipal de ahorro y depósito en beneficio de las clases medias bajas, que más tarde (1920) se amplió a nivel provincial, aunque los principales bancos lucharon por impedirlo (G. S. Payne).

Horra, ba, abertzaleen kontra elkar harturik non dauz-
kagun “abertzale fiskalak”. Zer egin dute?

Tras las elecciones [“la Liga consigue un sonoro triunfo”] los diputados y senadores elegidos van a Madrid con el sonoro propósito de pedir la Reintegración Foral; les preside el Presidente de la Diputación Vizcaya, Adolfo Gabriel de Urqui-

jo e Ibarra. En realidad, toda la palabrería demagógica sobre la restitución foral se deja pronto de lado: de lo que se trataba era de hacer presión sobre Madrid mediante la movilización popular para obtener así unos convenios favorables. Las comisiones para negociar el concierto trabajan (por Vizcaya, Urquijo, León y Chalbaud; por Guipúzcoa, Carrión, Gascue e Itarte; por Alava, Velasco y Guinea), mientras que el proyecto de restitución foral se deja para más tarde con la peregrina excusa de que en Vizcaya el sistema de representación por pueblos no corresponde a la realidad del momento (Beltza, *El Nacionalismo Vasco*).

Holakoak sarri gertatu dira handik aurrera. Horientzat Euskadiren beregaintasuna eta autonomia beren (burgesen) autonomia eta beregaintasuna dira: beren pribilegioak. Horiek Euskal Herri Espainiarekin ahalik berdinduena nahi dute (arras espainolizaturik, espainolez mintzo, etc.); eta burgesia ahalik bereziena: pribilegioa eta dispentsaz hornitua. Jakina, hori abertazaletasuna baldin bada, sozialisten kritikak onartzeko ez du batere nekerik... abertzaleak.

D) Sozialistek ez dute inoiz egin, horixe harritzekoa bait da, herri haundien eta zapaltzaileen nazionalismo eta herri ttipi zapalduen "nazionalismo" berezkuntza: oinarritzko hutsa da hori.

Herri ttipi zapalduen "nazionalismoan" burgesiak ez du inoiz haundietan bezala parte hartzen, hartzen duenik ez badugu ere zeharo ukatuko. Interesik ez du horientzat nazio ttipi zapaldu batek. Burgesiak eta kapitalismoak (aberririk, ez naziorik, duten burgesia horrek eta kapitalismo horrek hain zuzen, arrazoi guziarekin sozialistek behin eta berriro azpimarkatzen dutenez) herriaren sentimendu abertzaleak berentzat *aprobetxatu* nahi izaten dituztela, dudarik ez. Euskal Herrian ere aprobetxatu izan di-

tu. Burgesia zentralista, unitarista, espainol xobinistak, sozialisten “unibertsalismoa” gogotik eta ederki aprobetxatu duen moduan, halaber. Baina burgesiak ez ditu asmatu aberriak eta ez abertzaletasunak. Hor daudelakoxe, eta potentzial politiko bikainak direlako, aprobetxatu egiten ditu (azal kolorea, sekso errepresioa, etab., hor dauden eta edozeinek aprobetxa ditzakeen eran, egokierarik sortzen bada). Aberrien eta abertzaletasunen hor-izatea, ideologia diztiranteenek ere desegingo ez duten datua da. Sozialismoak, horixe ahaztuaz, hor zegoena bazterrera baztertuaz, berak, eta ez bestek, egiten zion burgesiari jokorik politena: “dejó así la dirección del movimiento nacional de Catalunya, Euskadi y Galicia a merced de la burguesía” (*Historia del PC de España*).

3. Hirugarren, sozialistek, abertzaletasun zoroaren orde z proposatzen zuten “Estatu guziko berdintasunari” buruz egin nahi ditugu ohartxo batzuk.

Sozialistek ez dute inoren pribilejiorik nahi. Kazikismoa dela eta ez dela, edo nolana dela, Euskadik askatasun edo pribilejio bereziak irabazi baditu, sozialistek ez omen dizkiote kendu egin nahi horiek, baina guzientzat zabaldu, *a los hermanos de toda España*. Ongi da. Sozialistek nahi dutena guzien berdintasuna da.

Bakarrik, sozialistaontzat ez euskarak, ez euskal nazioak, ez euskal historiak, ez ohiturek eta ez ezerk merezi bait du aintzakotzat hartzea, edozein diferentia eta berezitasun, ttipienak berak, pribilejio bilakatzen dira orduan.

Sozialistaok izpiritu zabalak dira. Irekiak. Plazagizonak dira, ez hauzoari eta etxe inguruari atxekiak. Hauzokume arlote, ethezulo izu, probintzikoi eta basaburutar hersturik ez dira, abertzaleen modura. “Probintzioi guk diegun maitasuna —deklaratzen zuen LC-ek— beste guziet diegun berdina da, aberri unibertsalaren aldezkari eta regionalismo ximur ororen eta pribilejio amorragarri guzien arerio gaituzenez gero”. Iparragirre haundia aipatzen

dute: “Eman ta zabal zazu munduan frutua” eta haren “izpiritu kosmopolita” aitortzen dute (hain zuzen izpiritu foralistarekin koinziditzen zuela, aipatu gabe). Eta Euskal Herriak gozaten dituen abantailak “Espainia guziko anaiei” zabaldu nahi lituzkete, “pribilejio amorragarriak” ezin jasan dutenez gero.

Pribilejioen aitzakiaz, diferentzia guziak baztertu nahi dira. Hori daukagu azkenean: Espainiaren unitarismo absolutista hura.

Besteak ondotxo ikasi zituen zuzenzaletasun eta izpiritu kosmopolita horiek, probintzia guziak, anaiak bezala, edo ahizpak bezala, gobernu bat eta berez gobernatuaz:

La entrada de nuestras gloriosas armas en territorio catalán plantea el problema, estrictamente administrativo... Importa, por consiguiente, restablecer un régimen de derecho público que, de acuerdo con el principio de la unidad de la Patria, devuelva a aquellas provincias EL HONOR DE SER GOBERNADAS EN PIE DE IGUALDAD CON SUS HERMANAS DEL RESTO DE ESPAÑA...

Burgesia progresistaren obra izan zen hori ere agian.

SOZIAL-INPERIALISMO ESPAINOLISTA

Hona hemen Fusiren ohar batzuk *El PSOE y el problema vasco* artikuluan:

Lo que es común a las distintas opiniones socialistas expuestas (Unamuno, Meabe, Prieto, Zugazagoitia) es un evidente silencio —posiblemente por desconocimiento— de la literatura socialista europea sobre el problema de las nacionalidades. Ni las tesis autonomistas de Renner y Otto Bauer, aparecidas entre 1902 y 1907; ni las separatistas de los socialistas checos, objeto de viva discusión en el Congreso de la Internacional de 1910 en Copenhague; ni las internacionalistas de Strasser y Pannekoek, ambas sistematizadas en 1912; ni las posiciones de Stalin y Lenin, expuestas ya en 1913, recomendando el apoyo del proletariado a las luchas nacionales para orientarlas en sentido revolucionario, fueron objeto de discusión y análisis serios en la prensa socialista española, por lo menos antes de 1930 y en conexión con el problema del nacionalismo vasco.

Gure aldetik, ez dakigu hori dena zenbait ezagutzen zuten, baina ez zaigu iruditzen, Euskadiko sozialista espai-

nolek ezagutu ere egiten ez zituztenik Europako beste sozialisten kezkek eta eztabaidak nazio arazoan inguruan. Austriako sozialistak behintzat Aranak berak aipatu ditu, hemengo sozialistei kontrastatuaz: “El partido socialista de Bizcaya ... sigue un procedimiento bastante distinto al usado por los socialistas austriacos”. Eta LC-ek erantzun ere egiten zion, Espainia ez dagoela Austriarekin alderatzerik, Espainia “nazio homogeenoa” delako, arraza eta hizkuntza diferente gabe; hemen ez delako batasuna konkistatzen edo anexioz egin (Nafarroak zuen konkistatu Espainia, noski!), eta Euskadi betidanik espainola izan delako; gainera, probintziok ez dira inoiz besteak baino okerrago tratatu izan, aitzitik, besteei ez bezalako Foruak eta pribilegioak eman zaizkie; sozialistek ez diote Euskadiri bere pribilejiorik kendu nahi, baina beste guzientzat pribilegio berdinak nahi dituzte... (LC, 1898-ko irailak 16). Beraz, ezagutu egiten zituzten Austriako sozialisten teoriak. Haien jokabidea ontzat eman ere egiten dute, Austriar: Austriar bai, arraza eta hizkuntza diferenteak bait daude Inperio batetan nahastuta. Espainian ez. Han zapaldurik bait daude herri batzuk. Hemen ez. Haien tesi autonomistek Euskadin ez dute balio.

Euskal Herriko sozialisten sozial-inperialismo espainolista sakonegia zela: horixe gertatzen zen. Eta Fusirekin jarraitzen dugu:

Incidentalmente, y ya que se mencionan las tesis de Stalin y Lenin, tampoco los comunistas del País Vasco, de quienes cabía esperar una actitud más receptiva, se hicieron eco de ellas de forma sistemática hasta los años 30 e, incluso entonces, se apreciaría un mayor interés en el problema nacionalista en los dirigentes comunistas guipuzcoanos (los Astigarrabia, Larrañaga, Zapirain, etc.), en su mayoría vascos, que en los de Vizcaya (los Carro, Bueno, etc.) muchos de los cuales habían nacido fuera de la región vasconga-

da y donde, a diferencia de Guipúzcoa, una proporción muy considerable de la clase trabajadora la integraban inmigrantes de provincias del interior de España. Otros dirigentes comunistas como Dolores Ibarruri, Hernández y Uribe, si bien vizcaínos de origen, estuvieron vinculados a la dirección nacional de su partido y no a las agrupaciones locales y, por tanto, sus preocupaciones políticas fueron fundamentalmente nacionales.

Euskal Herriko sozialismoaren talantea Bilboko sozialismoak erabaki du. Eta Bilboko sozialismoa, arrazoi diferenteengatik eta arrazoi askogatik, espainolista kartsua izango da urteotan. Berriz ere Fusik ohartarazi digunez, “no fue escasa la influencia que dirigentes socialistas de Bilbao ejercieron en las organizaciones de su partido en Guipúzcoa: miembros de la Agrupación Socialista de la capital vizcaína (Beascochea, Valentín Hernández, Meabe, Madinabeitia) jugaron un papel decisivo en la organización sindical y política de los trabajadores de Eibar; otro, Guillermo Torrijos, en la de San Sebastián; y Juan de los Toyos, muy vinculado políticamente a Prieto, ocupó cargos de la máxima responsabilidad en las sociedades obreras de Bilbao, Tolosa y Eibar”.

Bilboko sozialismoa etorkin artean (hots, “maketo” artean) finkatu zen gehien-gehienbat. Etorkinok, Prietok esango zuen moduan, espainolista izatea eta sentitzea, bizdezko samar zen, besterik izateko eta sentitzeko ez bait zuten batere arrazoirik. Galego, andaluziar, estremadurar, sentitzen ziren horiek, Bizkaiko lurtean egon arren. Baina problemaren kakoa hor ez dago. Sozialistaon teoria nazio arazoaz gehien landuko dutenak bi euskaldun eta bizkaitar garbi bait dira: Unamuno eta Meabe, hori da bitxiaren bitxia, ez ahaztekoa, eta ez dago zergatik espainolismoaren eta sozial-inperialismoaren errua etorkin masa proletarioari bakarrik egotzi.

Espainolismo sozialista Bizkaian teorizatu eta politikoki harmatu dutenak, bilbotar bi dira: eta, preseskiago, abertzaletasun aranista teorizatu duen erdi klase ikaratu nahastu hartakoxe bi seme, Sabin bezalaxe hain zuzen. Gogora dezagun, iraultza industrialak Bilboko erdi klasea zeharo nahastu eta desmoralizatu zuela. Erreazioz, abertzaletasun arrazistara edo sozial-inperialismo espainolista-ra joko da.

MEABE mistiko erlijioso-politiko bat zen, abertzaletasunak desengainatua eta sozialismora aldatua. Kristautasun mistikoaren sentiera unibertsalista berberekoa politikan ere, lehen bere fede sutsuan bezala: aberri konzeptua bera ezin internazionalismo sozialistarekin bateratuzkoa iruditzen bait zitzaion. Jesukristoren begitan judegu ala grekorik eta ez naziorik dagoen bezalaxe, ideal sozialistaren aurrean ez naziorik eta ez aberririk dago; denak bat eta gauza bera dituzu.

Meabe, ideia sozialistak radikalki bete nahi bait zitu, franko heterodoso zen, PSOE-ren barruan ere behin eta berriro Alderdiaren linea ofizialaz konfliktoan sartzen zena. Beharbada "anarkistegi" zen. "Sus ideas antimilitaristas despertaron en su partido tanto recelo como antes lo hicieran sus apasionados escritos anticlericales". "En enero de 1905 iniciaría una nueva e igualmente desquiciada campaña, esta vez contra el militarismo, que le llevaría a abandonar Bilbao al cabo de seis meses y España poco después, y de manera casi definitiva, pues no regresaría sino esporádicamente hasta que en 1915 volvió para morir a los pocos días" (Fusi). Madrilen hil zen.

UNAMUNO ere euskalzaletasunak desengainatua zen; mistikoa orobat; baina, batez ere, artxiespainol espainolista zen, inor den espainolena bera eta, bere asmoz behinik-behin, Don Quijote berri bat, Espainia jatorraren defentsarako zaldun irtena, lumaz harmaturik, Espainia jator haren etsai eta bere ustezko hondatzaile guzien kontra. Espainiaren abokatu eta zaldun ibiltari sentitzen zen, "de

la España entera y no partida”. Unamuno, gainera, “reden-zio ideologia” nazional-mistiko batetan murgilduta —ge-roago ikusiko dugu— gaztelanista da, jakitun bezala, per-sona bezala, artista bezala, politiko bezala eta edozer be-zala. Eta, esate baterako, duda haundiak zituen, katalanak aski inteligente eta burutsu ote diren beren arazoak be-rek gobernatzeko; ez ote den hobe, gaztelauek goberna ditzatela... Haren “unamunadak” sonatuak ziren beti. Es-tatutuak Gorteetan eztabaidatu behar zirenean, ahaleginak eta bost egin zituen haiek torpedeatzeko. Hain espainol itsua eta itsutua zen, gero damutu bazitzaion ere, Franco eta beste jeneralak altxatu zirenean ontzat eman bait zuen Gurutzada faxista bera, *la lucha de la civilización contra la tiranía* omen zelako hura.

Horiek ziren, beraz, Euskal Herriko sozialismoaren bi argiak, nazio arazoa argitzeko. (Unamuno “Agrupación So-cialista de Bilbao”-ko burkide izan zen aldi batez, gero —Salamankako Erretorea— talde eta Alderdi partikular guzien gain-gainetik sentitzera ailegatu bazen ere, Espainia osoaren konzientzia bera sentitu zenean.)

Círculo Socialista de Bilbao-n eman zuen hitzaldi ba-ten arabera, garbi dago, zer zen Bizkaian Alderdi Sozia-lista Unamunorentzat: “partido liberal antibizkaitarra y, por tanto, patriótico”.

Unamunok ziotsan hori, sozialistek berek pentsatzen zuten. *La Nueva Era* Madrilgo astekari sozialistak Unamu-nori gustora zabaltzen zizkion bere atak: “En Bilbao —idazten zuen berriz ere— el único firme valladar en-frente de la barbarie del exclusivismo local es el socialis-mo”. Kanta bera errepikatzen zuen Maeztuk. Prietok hi-tzez-hitz erreberitzen zuena: “El contrapeso más fuerte que puede tener hoy el nacionalismo en Vizcaya... está en las masas proletarias”. Eta, azkenean, Bilboko burgesia haundi espainolistak berak aitortuko du hori.

Sozialismoak salbatzen zuen Bizkaian Espainia. Prietok ez zuen korapilorik mihian: “digo ante el pueblo de Bil-

bao que soy un enemigo acérrimo, declarado, del nacionalismo vasco..., porque representa un espíritu rural y reaccionario incompatible con las esencias liberales que constituyen la divisa de toda mi vida”.

Izan ere, Prietorentzat, aranismoa nekazal ideologia dela aparte, euskal arazorik egon ez dago: “hay derecho, señores, a hablar de que unas provincias como las Vascongadas vivan aherrojadas por el Poder nacional? Yo os digo con la misma sinceridad, que no”.

Unamunok bere hitzaldi barbaro sonatua eman zuenean Lore Jokoetan, euskararen eta euskal kulturaren kontra, espainoltzearen alde, erokeria haundiagoak nekez asma zitzakeen Salamankako Profesoreak. “Hizkuntzen jatorria zientifikoki aztertuz —esaten zuten LC-ek— euskara pentsamentu modernoari ez dakiokela egoki, erakutsi du; Bilbo batek euskaraz mintzatzea, absurdu hutsa litzatekeela, —eta euskararen molde herstuak hautsi beharra dagoe—, honez gero gure arimek, haren barruan preso, ez bait daukate mamirik eta hileta solemne batzuekin santuki lurperatu egin behar dugula”. LC-ek: “honrado, valiente y sincero” aurkitu zuten zozokeria hura, “contra filosofías de campanario, regresiones insensatas y estúpidas diferenciaciones por razas y lenguas” (1901, irailak 7). Sozialistak *Hosanna*, *hosanna*-ka txalotu zuten Unamuno. *El vascuence* —idazten zuten garaitzapean sentimentuz puzturik LC-ek— *es un enfermo tuberculoso en su último grado que irremisiblemente perece...* Eta *hosanna, hosanna!*, pozten zen eta alaitzen zen.

Etai lelori bai lelo leloa, zarai leloa
heuskara da galdua eta goazen oro dantzara...

Ez dakit sekula inor hala poztu denik, euskara hiltzera doalako. Sozialistaok benetan pozten dira, behintzat.

Fusik, bere liburuan, eritzi orokar hau eman du: “Los sentimientos antinacionalistas estaban... firmemente arraigados en la ideología del socialismo de Bilbao. Ello expli-

caría, en parte, posteriores evoluciones de su política: facilitaría la aproximación a otras fuerzas antinacionalistas e incluso en algún momento —concretamente en 1918/23— el antinacionalismo jugaría un papel de primer orden en la estrategia electoral de los socialistas”.

Abertzaleei sozialistek zuzen-zuzen tesi kontrarioa kontrajartzen diete: Espainiatik askatu ez, baino harremanak eta loturak Espainiarekin herstutu, bizkortu eta ugaritu egin behar direla. Orain arte baino askoz gehiago “espaniartu”. Euskara utzi eta espainola hartu, espainola sakondu eta landu eta aberastu. Euskal kultura utzi eta espainolean murgildu, etc. 1897-ko otsailaren 27-an *La lucha de clases*-ek editorial batetan esaten zuenez, etorbide haundia dakarren bidea, herri batzuk —Euskadi— beste haundiago batzuetan —Espainian— urtzea eta galtzea da. Progresoak horixe eskatzen du. Eta progresoa sozialista-ontzat hitz haundia da. Progresoak Euskal Herria zeharo lurraren gainetik ezkutatzea esijitzen du. Lehen Foruen ezeztapena esijitzen zuen moduan, orain euskararen heriotza esijitzen du. Eta, astiro-astiro, “la invasión lenta de unos pueblos en otros”. Gure egunotan berriro komunista harek ARRAGOA-n agertu digun esperantza dirdaitsua: “disolución paulatina de unos idiomas en otros, más poderosos y, en definitiva, una síntesis monolingüística universal en un futuro muy lejano”... Progresoak Erdi Haroaren deuseztapena eskatzen du, “con sus reinos microscópicos y sus leyes especiales para cada pueblo”.

Hori da historia. Progresoa hori da. Eta sozialistek nahiago zuten Balparda burgesarekin eta Monarkikoekin eta “abertzale fiskalekin” eta deabruarekin berarekin elkar hartu, guziaren gainetik abertzaleen kontra joatearren. Prest zeuden, bozemaldietan ez kandidatzeke, kandidato monarkikoari ala edozein besteri bozemateko, inolaz ere kandidato abertzalerik ez zedin nagusi. Sozialistak abertzaleen kontra beren “burgeskeriagatik” zeudela, ipuin polita da. Abertzaleen kontra berek apuiatzen zituztenak, bai,

burgés galantak ziren, Balparda eta, Ybarra eta. “En las elecciones de 1918 por Baracaldo, por ejemplo, centenares de obreros de Altos Hornos habían marchado en manifestación hacia Bilbao en protesta, en parte espontánea, por las irregularidades electorales cometidas por el candidato nacionalista y sus agentes, *vitoreando a España, a Prieto, y al candidato dinástico por Baracaldo, Ybarra. Igualmente, con vivas a Prieto y a España, celebraron socialistas y republicanos la reelección del dirigente socialista en junio de 1918*”... “Viva España” sozialista bat oso progresista bait da.

Orduan hasi ziren Prietoren artimaina eta azpikeria guzi haiek, edozeinekin hitz hartzeko eta elkartzeko prest, abertzaleak hondatzekotan. “Hobe gorri, etenda baino”, esan zuen bestea. Oinarri bera aldrebes zukeen Prietoren politikak: “hobe burgés, etenda baino”. Orduan abiatu zituzten “Gurutzada santuak” ere; gero izen horrekin ezagutuko ditugunak baino biguntxeagoak, baina “Gurutzada santuak” nolana ere, basakeria abertzaletik Espainia salbatzeko. 1918-ko maiatzaren 2-garrenean (maiatzaren 2-an, alajaina!) Prieto eta Marcelino Domingo buru zituela Bilbon ospatu zena, adibidez, justu *una cruzada contra los enemigos de la patria!* Berek halaxe diote. Eta horra, orain patria-rik badutela, lehen aberririk ez omen zutenek!

Gora Euskadi batek tripak nahasten zizkien. “Creo que al grito de *Gora Euzkadi!*, los que sientan en demócratas (?!) deben gritar: ¡Viva Vizcaya! ¡Viva España!”, idazten zuen amorrusutan Felipe Carretero batek, sozialista destakatuenetakoa bera Bilbon.

En la práctica, la mejor demostración de la posición política socialista en torno al problema regional fue quizá el comportamiento de los socialistas de Bilbao durante la campaña autonomista de Diputaciones y Ayuntamientos vasco-navarros

de fines de 1918 (ik. hori dena, Fusi, *Política obrera en el País Vasco*, 1975, or. 391 eta hur.).

Balpardak arrazoi zuen, “partidos españoles” guzien kolaborazioa goraltzen zuenean, eta sozialisten sua eta karrara bereziki, “frente a la odiosa subversión del nacionalismo vasco”. Eskuinak, abertzaletasunaren gora derrigor puskatu nahi zuen Bilboko eskuinak, ongi hauteman zuen, abertzaletasunaren aurka indarririk haundiena sozialistak zirela eta sozialistekin elkartu behar zuela, nahi baldin bazuen abertzaletasuna blokeatu.

Sozialistak harro-harro ibiliko dira gero, Espainiaren batasun eta osotasun defendatzaile bizkorrenak berak izan direlako abertzaleen eraso barbaroen kontra. Berak dira Bizkaian abertzaleei buru egiten dietenak, monarkikoak eta ez bait dira aski garbi eta aski konsekuente. Berak bai. Berak Alderdi patriotikoa bait dira. Federaziorik ere ez dute onartzen, “Estatu integrala” baino. Berak, Prietok esaten duen “el alma española” horren guruztari eta konkistari ditugu. Berak dira “el único firme valladar enfrente de la barbarie del exclusivismo” eta “el contrapeso más fuerte que puede tener hoy el nacionalismo en Vizcaya”. Unamunok ongi dio: “En Bilbao los dos polos son el llamado bizkaitarrismo de un lado y el socialismo del otro”.

Zer sozialismo zen hau, gero? Eta zer sentiera “demokratiko” zen hau, *gora Euskadi* entzunez gero *Viva España* segituan erantzutera beharturik sentitzen zena? In-guruotan komunistak ikaraturik zeuden, sozialisten “desaforado antibizkaitarrismo” hura ikusirik, Pérez Solis komunista buruzagiak adierazten zuenez. Abertzale badira, utz zaiezue abertzale izaten, —pentsaten zuten beren artean komunistek; ez da gure zeregina horien kontra ibiltzea.

Espainiako Alderdi Sozialistaren aldean, Alderdi Komunistak urrats bat egiten zuen aurrera, nazio problema-
ren arloan. Urrats ttipi-ttipia, baina zerbaitxo: ez zuten

abertzaletasuna, sozialistek bezala, beren etsai nagusitzat jotzen.

Egia esan, giro hartan ez zen erraza, urrats haundiagorik ematea. Giro zakarra zegoen eta giroak menderatzen zituen. "Espainiaren redenzioaren" ideologia zebilen bazterretan nagusi. Oso abertzalea zen hemengo sozialismoa ere: behe aldera abertzale, hots, patriotiko. Espainia salbatzeko misioa sentitzen zuen, garai honetako ideologia guziak Espainia salbatzeko misio ideologiak diren eran.

Dolores Ibarruri politika sozial-xobinista horren kritikogorra da: "El movimiento nacionalista vasco adquiriría un vuelo que no había tenido antes. El viejo fuerismo cambiaba de piel y se vestía de nacionalismo, tratando de jugar un papel dirigente en la política del País Vasco... Frente a él se levantaba el Partido Socialista, que no comprendía la importancia del problema nacional, que defendía a tiros la influencia política de que gozaba en Vizcaya y que el nacionalismo le disputaba". Baina bera ere ezin ailegatuko da jarrera positibo batetara. Astunegi da tradizioaren zama, astinaldi batekin gainetik botatzeko. Prietok ukatzen zuena, Dolores Ibarrurik baitesten du: alegia, badaudela eta bazeudela "pueblos que se sentían oprimidos por el yugo centralizador". Garbi aitortuko du, halaber, "problema nacional" bat dagoela... Baina, gero, "*reconocimiento* del derecho de las nacionalidades a la autodeterminación" hartan planto egingo du, jarrera zinez positibo batetara pasa ezinda. Sozialisten xobinismoa salatuko du: ez da proletarioen zeregina euskal abertzaletasuna gonbatitzea. Baina ez du esango: proletarioen zeregina da euskal nazioaren alde burrukatzea. Egin beza herriak bere autodeterminazioa... eta berek onartu egingo dute, komunistek. Gerta dadila, gerta dadina: hori ez da gure kontua. Egiaren eta zuzentasunaren kriterio praktisia deklaratu duen Alderdi bati, jokabide horixe dagokio zinez.

Esan liteke, nazio arazoan PSOE liberalismo borboniko, zentralista, xobinista hutsetan zebilela; Alderdi Komu-

nistarekin behintzat liberalismo burges demokratikoraino ailegatu dela euskal sozialismoa: *laissez faire, laissez passer*... “Utz zaiezue bakean, abertzale badira; hor konpon horiek; gure lanak bestelakoak dira; eta gorabehera hortan, herriak nahi duena onartuko dugu eta kito, guretzat aski da”... Ez-interbentzio dotrina neutralista.

Sozialistak, ostera, interbentzio direkto batetan enplegatu eta enpeinatu dira. Horretarako burgesiarekin elkartuko zaizkigu.

1918-ko abertzaletasunaren gora ikusirik, Bilboko burgesiak erabakiko du “la reorganización de las fuerzas monárquicas de Vizcaya y su unificación con un programa político cuyo objetivo principal, y casi exclusivo, era derrotar al nacionalismo”, esaten du Fusik (ondorengoan hari jarraitzen diogu). “El problema vasco es el problema del separatismo”, deklaratu du Balpardak. Bestela oso abertzaleak zenituen jaun horiek: “abertzale fiskalak”.

Ybarra, Lequerica, Goyoaga, Bergé, Aresti... batu ziren, Bizkaiko lorea eta loria. “La idea fue reiterada y apasionadamente defendida y estimulada durante los meses siguientes por el diario maurista local *El Pueblo Vasco*”.

La reunión de Ayuntamientos vizcaínos, celebrada en Bilbao el día 15 de diciembre de 1918, precipitó la unificación de los partidos monárquicos de la provincia. La reunión transcurrió en medio de repetidos incidentes, provocados por la violenta reacción de los representantes nacionalistas a las intervenciones de los delegados monárquicos, Balparda y Bergé, que habían expresado su oposición a todo proyecto autonomista que no partiese del reconocimiento de la unidad nacional española. Al término de aquélla, los nacionalistas organizaron una tumultuosa manifestación... El 7 de enero de 1919... se constituía... la Liga Monárquica, dirigida por un directorio compuesto por

Balparda, en representación del partido liberal, Bergé, como representante de los mauristas, y Salazar y Zubía en nombre los conservadores datistas. *El Pueblo Vasco* ponía de relieve el carácter primordialmente antinacionalista de la significación política del nuevo organismo. “Se trataba de llegar a una inteligencia —comentaba al formarse la Liga— para concertar una acción contra el bizkaitarrismo”, ratificando la declaración de principios contenida en el telegrama que los líderes de la Liga enviaron al jefe del Gobierno, Romanones, en el acto de su constitución:

“Reunidos —decía el telegrama— partidos liberal, conservador y maurista de Vizcaya, y monárquicos independientes para hacer frente al movimiento separatista, han acordado constituir la Liga de Acción Monárquica”.

Dotore sortu zaigu, ba, Liga Monarkikoa. “Esta nació como un partido de notables, no de masas, pero que por su estrecha vinculación a los grandes industriales de la provincia y por el apoyo gubernamental de que iba a disponer... podía movilizar recursos e influencias suficientes como para emerger como una de las primeras fuerzas políticas de la región”.

Ikusten duzu, nola burgesia den, abertzaletasuna artifizialki bizten eta puzten duena... “Los Gandarias, Chávarri, Ybarra, Echevarría y otros influyentes industriales y financieros vascos se adhirieron a la Liga desde su formación”.

Eta sozialistak?

Prieto capitalizó políticamente la reacción antinacionalista de la Liga Monárquica, imprimiendo para ello a la política de su partido un acentuado

carácter españolista que al tiempo que le aseguraba el apoyo de la Liga, apelaba a una de las más arraigadas tradiciones del socialismo local. Ya se indicó que la hostilidad de éste hacia el nacionalismo vasco se remontaba al momento mismo de la aparición del último... Años de intensa rivalidad política a nivel local no habían hecho sino ahondar las diferencias entre ambos grupos. En los últimos años de la década de 1910, el españolismo de las clases obreras de la región vasca era una realidad viva que no podía dejar de influir en el curso de los acontecimientos políticos.

Liga Monarkikoa sortu baino lehen ere, ibiltzen ziren sozialistak beren moduzko txatxarkeriak egiten abertzaleei, eta aldez beste ere bai noski. Hona txandrio bat: "En los recursos presentados por los socialistas contra los acuerdos de la comisión provincial, que anulaban la elección de dos concejales socialistas en las elecciones locales de diciembre de 1917, la argumentación socialista se basó en que la citada comisión, controlada por diputados provinciales nacionalistas, se hallaba en manos de *enemigos de la patria española*".

Orain, sozialistek eta Monarkikoeak, tratua egingo dute, distritoak elkarren artean banatuaz: hau zuretzat, hau niretzat, ezer ez abertzaleentzat. Monarkikoeak Bilbon sozialisten alde lan egingo dute; Valmasedan eta Barakaldon sozialistek monarkikoen alde.

"Joko garbia":

Prieto... negoció con la Liga una especie de acuerdo electoral por el cual los monárquicos no obstaculizarían a Prieto en Bilbao a cambio de una actitud recíproca de los socialistas en Baracaldo y Valmaseda. Como se verá, a veces se llegaría a un acuerdo formal, como en las elecciones de 1919, en las que las agrupaciones socialistas del

distrito de Valmaseda acordarían votar a Balparda; pero las más de las veces se trató de un entendimiento tácito. El hecho es que los monárquicos no disputaron el distrito de Bilbao en ninguna de las elecciones celebradas entre 1919 y 1923, y que los socialistas no presentaron candidatos en Baracaldo y Valmaseda ni en 1919 ni en 1923. Lo hicieron en 1920, pero, como veremos, en Baracaldo se retiraron sospechosamente mediada la elección, y en Valmaseda el candidato socialista no contó ni con las simpatías ni con el apoyo de los dirigentes locales de su partido.

1923-an Primo de Riverak diktadura ezarri zuen; asmo bat, hain zuzen, separatismoa behin eta betiko likidatzea zuela. Hemendik aurrera diktaturak hartuko du bere gain abertzaletasunari buru egitea eta, ahal bada, zantpatzea. Dekreto batek honela errezatzen zuen: “Serán juzgados por los Tribunales militares, a partir de la fecha de este decreto [1923-ko irailaren 17], los delitos contra la seguridad y unidad de la Patria y cuanto tienda a disgregarla, restarle fortaleza y disgregar su concepto, ya sea por palabra, por escrito, por la imprenta u otro medio mecánico gráfico de publicidad y difusión, o por cualquier clase de actos o manifestaciones. No se podrá izar ni ostentar otra bandera que la nacional en buques, edificios...”

A nivel propagandístico —irakurtzen diogu Beltzari—, la unidad española iba a recibir (en lo que al problema vasco se refiere) un impulso popular y científico. En 1923 mismo se celebró en San Sebastián un clamoroso “Día españolista”, cuya significación política es clara [geroagoko *Día de la Raza* edo *Día de la Hispanidad* haien aitzindari; baina ikusi dugu, beste gauza askotan bezala, honetan ere sozialistak aurreratu zirela, beste guzien aurretik berek, Marcelino Domingo eta

Prieto buru zituztela, Bilbon ospatu zuten *cruza-da contra los enemigos de la patria* egun harekin]; y por esta época se van a publicar una serie de libros destinados a combatir el nacionalismo.

Ik. Beltza baitan zerrenda bat. Hori ere ez zen guziz berria. Sozialistak, ordurako, ari bait ziren lan horretan, F. Carreteroren *Crítica del nacionalismo vasco*, 1918, foiletoaz, etab.

Diktaturarekin sozialistek poliki-poliki kolaboratu egingo dute, abertzaleak egurra eta harria eramaten ari diren artean. Baina, oraindik ez da heldu diktadura eta bien bitartean, ikusi dugunez, Bilboko burgesiarekin agiri zaizkigu elkar harturik, hauteskundeetan abertzaleak desbankatzeko.

Abertzaleen kontra joatearren, beti joko eta jukutria berri bila, "frente al principio de autonomía regional, elaboraron y defendieron el principio de autonomía municipal, idea que en sí misma significaba una negación del concepto de unidad territorial, base de toda la argumentación regionalista".

Ahal zuten guzian eta guzietan ateratzen ziren abertzaleen kontra. "Para hacer más clara su disconformidad con el desarrollo de dicha asamblea [Bizkaiko Udalen autonomia eskatzeko Biltzarrea], los concejales socialistas del Ayuntamiento de Bilbao votaron días después contra una moción de los nacionalistas protestando por la suspensión del alcalde, Mario de Arana, decretada por el Gobierno a raíz de los incidentes ya referidos; Merodio, en nombre de la minoría socialista, añadiría su voto a una propuesta de republicanos y mauristas para que ondease permanentemente en la Casa Consistorial de Bilbao la bandera española, como desagravio de los sucesos del 15 de diciembre; y *El Liberal*, convertido ya en órgano personal de Prieto, daría publicidad destacada a la opinión de Unamuno sobre dichos sucesos, a los que, para irritación de

nacionalistas, calificó como “beótico estallido de aldeanería troglodítica” (1).

Ligarekin aliantza patriotiko bat bilatuko dute sozialistek beti. “Entre 1919 y 1923, la estrategia de éste [Prieto] estuvo orientada a convencer a la Liga Monárquica de que la derrota del nacionalismo vasco no era posible sin la colaboración de la organización obrera”. *El Pueblo Vasco*-k argi eta garbi deklaritzen zuen iadanik: *Será una lucha de españoles contra separatistas y formarán parte del primer bando liberales, conservadores, mauristas, republicanos y socialistas.*

Pronto hubo indicios que hicieron sospechar la existencia de un entendimiento Prieto-Liga, a pesar de que una y otra lo negaron (!) reiteradamente. El 13 de mayo apareció un real decreto ordenando que las elecciones se celebraran en Bilbao con arreglo al censo de 1917, y no según el de 1919, que se suponía había sido depurado por los nacionalistas. El día 24 se anunció la candidatura monárquica y pudo comprobarse que, a pesar de que se había rumoreado que los mauristas disputarían el distrito de Bilbao, la Liga renunciaba a la lucha por la capital vizcaína; al día siguiente, reunidos en Ortuella representantes de las agrupaciones republicanas y socialistas del distrito de Valmaseda, acordaron apoyar la candidatura de Balparda, decisión que, si no la inspiración, tuvo al menos la aprobación complacida de Prieto.

(1) Sozialistak zein liberalak hainbeste eskandalizatu dituzten gertakizun ikaragarriok, honela deskribatu dizkigu Fusik: «... los nacionalistas organizaron una tumultuosa manifestación que, presidida por el propio Alcalde de Bilbao, Mario de Arana, recorrió las calles de la localidad. *Algunos manifestantes* [nire azpim.] intentaron asaltar la Casa Consistorial, lugar donde se había desarrollado la asamblea de Ayuntamientos, y agredir a Balparda y Bergé; otros grupos asaltaron los locales de *El Pueblo Vasco*, ocasionando destrozos en la maquinaria e hiriendo a algunos empleados».

Kasu larria zen hori, sozialistek eta monarkikoek hor-
taraino bat egitea. Lehenengo ukatu egin badute ere, be-
ren artean hitzarmenik dagoela, orain, azkenean, nolabait
zuritu behar eta, burgeson “izpiritu liberala” aipatuko du
Prietok. Egiazko arrazoia, bere esker ona agertuaz bate-
ra, Balpardak adierazi du: “El socialismo vizcaíno..., en
Bilbao y en la zona fabril y minera se había dado perfecta
cuenta de los problemas locales, y frente a la odiosa sub-
versión del nacionalismo vasco, *había siempre la seguri-
dad* de que, por consecuencia con sus propias ideas, ha-
bía de encontrárseles, *como a los demás partidos españo-
les*, procediendo paralelamente con éstos, sin encontrarse
con ellos (?), pero *colaborando en el mismo sentido*” (ni-
re azpim.).

Bestalde, hori ez zen Bilbon bakarrik gertatzen ari.
“...Podía pensarse que algo similar ocurría en Guipúzcoa,
donde los nacionalistas parecían tener serias posibilidades
de lograr el triunfo en cuatro de los cinco distritos de la
provincia. En uno de ellos, en Vergara, donde votaba
Eibar, el candidato socialista De Francisco acordó retirar
su candidatura, a fin de no restar votos al liberal Rengifo
[horra Eibarko sozialismoa bera jokuotan nahastuta!]; y
en Tolosa, los socialistas, previa consulta al Comité Na-
cional de su partido, acordaron trabajar la candidatura del
liberal Bandrés”.

Euskadi guzian bat egin dute burgesiak eta sozialis-
moak, abertzaletasunaren kontra joatea beste xede gabe.
Kaskar gelditu dira honez gero gizadi guziarentzako aberri
haundi unibertsalaren predikuak... *Euzkadi* aldizkariak
“beste Lerroux bat” deritza Prietori: “tan español como
éste, tan inflexible como él”.

El abanderado español que llega a Euzkadi,
con todo el favor, con el poder, con la amistad
y toda la confianza del Gobierno español, es el
jefe socialista Indalecio Prieto y Tuero... Porque

el españolismo es en Euzkadi Indalecio Prieto y Tuero. El lo ha levantado sobre el pavés.

Eta bai, ohore hau Prietok satisfazioz hartuko du beretzat. Badaki, gurutzada antiabertzale honetan bera dela buruzagi; monarkiko, liberal, kontserbazale eta bestelako osteen buruzagi eta gidari. Aurretik eta buru bera dabil, bera da nagusi, "aparte el esfuerzo que pudieran hacer, ya un poco tardío y torpemente... los elementos monárquicos"...

Eskuinek, beren aldetik, apal-apal aitortuko dute Prietoren buruzagitza. Baita boto ederrez pagatu ere. Prietok monarkikoen boto burgesez eta monarkikoek langileen boto sozialistez, aisa irabazi zuten, bakoitzak bere lehoinzuloan.

Beharbada sozialista guziak Euskadin ez ziren hain espainolista amorratuak. Meabek, adibidez, euskal nazionalismoa ezezik, espainola ere ikusten zuela, ematen du. Baina, bestela frontalki eraso ohi zuena, itxura oso politeko internazionalismo mistiko batetan errefujiatu da, zuhur-zuhurki. "Mi campaña no es sólo contra los bizkaitarras, sino contra toda la patriotería andante. Vasquismo, catalanismo, españolismo, cuanto tienda a discurrir irracionalmente a los seres humanos, me es antipático". Ezintasunaren salbazioa intelektualistentzat beti ideal garbietan egon bait da. Marfil dorretan. Biolentzia guziak eta edozein, denak berdin, kondenatuaz ibili zaizkigun Jainkoaren Artzain santu horiek bezala.

Batzuetan, Meabek abertzaletasunean zerbait positiborik ere susmatzen ote zuen, dirudi. Bide erdian galduko da, halare. "Si aceptáis el capital —erasaten zien abertzaleei— habréis dado muerte a la patria definida por vosotros mismos... ¿Os atrevéis a fundarla sin capital? Decidlo y entonces hablaremos". Baina Meabe ez da, orain bihurtu nahi duten abertzale sozialistarik, sekula izan. Bere jarrera negatiboan gelditu eta berak ezer ez egin, ho-

rixen egin zuen, sozialismo abertzalerik sortzeko. Abertzaleak sozialista izatea, eskatzen zuen. Eta ez zitzaion bururatu, beste posibilitate bat, sozialistak abertzale izatea, litzatekeela.

Sozialismoa bere ideologia espainolista, xobinistak esku lotuta zegoen. Meabe ezin ailegatuko da jarrera positibo batetara abertzaletasunari buruz. Argigarri da, hein honetan, Madinabeitiaren kasua. Fusik dakarren bezala ematen dizut:

Como un conocido socialista, el doctor Madinabeitia, afirmase, influido por el clima autonomista del último trimestre de 1918, la existencia de una nación vasca y propugnase la creación de una federación de nacionalidades españolas, otros miembros de la organización contestaron reafirmando la incompatibilidad entre socialismo y nacionalismo vasco: "Quien sostenga prejuicios de raza —recordaba E. Lábarri a Madinabeitia— se coloca del otro lado del socialismo". Prieto mismo, en unas declaraciones a un periódico de Salamanca, recogidas por la prensa de Bilbao, censuró la campaña autonomista desarrollada por entonces por los catalanistas, y a las izquierdas catalanas, por apoyarla.

La actitud de Madinabeitia parecía, por otra parte, un caso aislado. No parece que sus tesis tuvieran eco dentro de las agrupaciones socialistas de la región vasca. En el congreso nacional del PSOE celebrado en noviembre de 1918 —en el que el partido socialista incorporó en su programa el principio de autonomía regional, en un intento, sin duda, de no marginarse del movimiento autonomista que por unos meses pareció generalizarse en todo el país—, la intervención del delegado de San Sebastián, Guillermo Torrijos, puso de relieve la desconfianza de los socialistas vas-

cos respecto de las teorías autonomistas, al solicitar que “en la concesión de esta autonomía se garantice la expansión de todas las ideas, para que los elementos nacionalistas no puedan oprimir a las fuerzas francamente liberales”. En Bilbao, cuando el 25 de octubre de 1918 todas las minorías del Ayuntamiento, salvo la maurista, suscribieron una moción pidiendo la derogación de la ley de 25 de octubre de 1839, el concejal socialista Santamaría propuso, en nombre de su minoría, que el Ayuntamiento expresase su protesta contra la Diputación, controlada por nacionalistas y símbolo de aspiraciones autonomistas de todo el regionalismo vizcaíno, por la oposición de la misma a la autonomía municipal. Carretero fue incluso más lejos y negó en un artículo publicado en *El Liberal* [Priorena], que el 25 de octubre de 1839 hubiera supuesto, como sostenían los nacionalistas, el fin de la independencia vasca. Madinabeitia mismo se vio obligado a matizar el alcance de su postura y a puntualizar las diferencias que les separaban del nacionalismo: *Nosotros* —dijo, refiriéndose a los vascos— *no tenemos más cultura que la cultura hispana, la que nos ha prestado Castilla, Andalucía, Aragón...*; y frente a las tesis separatistas afirmó la vinculación económica de las provincias vascas al resto de España: *Dependemos necesariamente* —dijo en torno a esta cuestión— *del resto de la península.*

Denboraren buruan, Madinabeitia Alderdi Sozialistatik urrundu egingo da. Meabek bere barne esilio isilera emigratuko du, bakartadean geldituaz... Geroagoko beste pasadizo batzuetaz oroitzen bait gara: Santiago Aznar, gerra osteko Euskal Gobernuan PSOE-ko ordezkari, dimittizera behartu zuen bere Alderdiak, “demasiado nacionalista” omen zelako, berak PUNTO Y HORA-ri dekla-

ratu dioenez. Astigarrabiaren kasua ezaguna da komunisten aldetik... Beti berdin da.

Alderdi Sozialistak ezin tolera zezakeen “desbidazio abertzale” ttipienik ere. Eta besteak akusatzen zituen, xobinista omen zirela. “*Ama, aitzint zazkio puta deitzera: hori erraiten zion puta-alaba batek bere amari, ama berzete emazte bateki aharratzean*”.

* * *

Euskadin sozialismoa:

1. Lehenengo, Espainiaren batasun sakratuak liluratuturik bizi zen. Regionalismorik ere ezin zuen ikusi. Federalismorik ez zuen entzun nahi ere. Euskal problemaren bat zegoenik, arras ukatzen zuen. Euskara salbatu nahari erokeria zeritzan. Eta, burges izan ez izan, abertzale-tasuna, ozta-ozta deabruak ur bedeinkatua baino gehiago, maita zezakeen. Sozialismoa, Euskal Herrian, berezitasun ororen kontra, euskararen eta euskal kulturaren kontra, Foruen ala beste edozein beregaintasun formaren kontra, inperialista hutsa zen eta beste ezer ez.

Urteen buruan eboluzio piska bat nabariko da. Oso eskasa. Ezin askatuko da bere superstizioetatik.

2. Nazio arazoaren arloan sozialismoa sekula ez da postura negatibo, pasibo hutsetatik aurrera pasako. Estatutuaren alde ager dadinean ere, besterik ezinean, gogo txarrez eta, Estatutua eman beharra desgrazia bat izan arren, desgrazia haundiagoak itzurtzearren bakarrik, agertuko da haren alde.

Kate ideologikoon erakusbide nabarmena Eibarko sozialismoa bera da. Eibarko sozialistek euskaraz hitz egiten zuten beren artean eta —*La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo* liburuan Toribio Etxeberriak dioskunez, euskalzale fina eta ohorezko euskaltzaina bera— tradizioa eta folklorea kultibatzen zituzten. Ha-

lare, beren euskalduntasun naturala, jatorra, sekula ez zen konzientzia politiko bat osatzera iritxi, orduko pentsaera sozialistaren azpian lotuta. Eta hori, inguru guzia jo ta ke burruka abertzalean ari zen arren. Zeharo pasibo lotu ziren:

Apenas registramos ninguna preocupación de carácter regionalista... Los regionalismos y aun los separatismos más radicales, que hacían circulo en nuestro derredor, eran para nosotros simplemente cuestión de reconocer esa realidad en la medida de su autenticidad y volumen.

Euskal Herriak separatatu nahi izango balu, herriaren erabakia errespetatuko omen lukete, baina berak Espainiarí atxeki-atxekita sentitzen ziren:

...si su voluntad mayoritaria [Euskal Herriarena] fuera separarse del resto, sin obstruir esa solución, una vez puesta en práctica, los socialistas, a quienes no nos convence el hecho diferencial basado en una historia, en una etnografía y una lingüística que piden ser revisadas, y no queriendo renunciar al legado de España, que ha informado nuestro espíritu, seríamos como los greco-chipriotas que piden su unión con Grecia...

Nondik sortzen zaio Eibarko langile bati holako sentierarik?!

Abertzaleak inon agertu orduko, sozialistak *Viva España!*-ka hasten zitzaizkien orruka. Behin, Enbeita Urretxindorra bertsoetan ari zen Eibarren eta entzuleren baten *Viva España!* hots egin zion behetik gora. Bai bertsolariak bertan erantzun ere:

Viva España! didarka dagoz,
nik bere *Viva* dirautsat,
gorrotorikan ez dagolako
nigandik Espainarrentzat.
Katolikoak jakin bear dau
zer diñon goiko juezak:
bestenari bakean itxi,
zaindu bakotxak beretzat.
Viva España! diñot berriz be,
izan bei Espainarrentzat.
Baina badinot Gora Euzkadi!
guria da ta geuretzat.

ESPAINOLISMOAREN SUSTRAIAK

PSOE-zialisten espainolismoa begien bista-bistan dago. Espainolismo hori nondik eta zergatik sortu den, kausa pare bat aipatu nahi genuke, gehiago ez.

EUSKAL SOZIALISMOA ETORKINEN SOZIALISMO DELA, — arrazoi hau maiz aipatu da; mugimendu sozialista lehenik meatzeetako langile artean finkatu zela eta horiek etorkinak zirela (1910-ean hamairu mila ziren Bizkaiko meatokietan ari ziren langileak; horietako hiru mila bakarrik Euskal Herrian sortuak; PSOE-ko lagun, al-diz, oso-oso banaka batzu baizik ez ziren euskaldunak). Baina etorkinok espainolak zirela, datu soila da, berez: datu horretatik hara konprenigarri egin daiteke, langileok espainolista ere izatea, esplikatuta ez dago oraindik. Espainolak nahitaez espainolista direla, suposatzen ez bada behinik-behin.

Lehenengo sozialistak etorkinak izan zirela, esanez, esplikazioaren hasiera-hasieran gelditzen gara, azkeneraino joan gabe: espainol izateak ez bait du ematen beste gabe zergatik espainolista ziren.

Sozialismoa baino lehenago, KAPITALISMOA BERA ESPAINOL ZELA, — Beltzak atera digu arrazoi hau: "En mi opinión, la causa estaba en que la sociedad capi-

talista se estaba desarrollando en el País Vasco peninsular como parte de la estructura social española, y que esto explica el carácter españolista tanto de la oligarquía como de la clase obrera” (ik. *Nacionalismo Vasco y clases sociales*).

Arrazoi hau ontzat emanik, ondorengoan xehatu eta hedatu egin nahi genuke, gain-egitura ideologikoan somatzen diren agerkun batzu seinatuaz.

IDEOLOGIA SOZIALISTAREN TANKERA, — dukegu beste arrazoi bat. Fusik ohartu duen eran, Meaberezentzat “la misma idea de patria era incompatible con los ideales internacionalistas del socialismo obrero”. “Esta postura —gehitzen du Solozabalek— un tanto simplista acerca de la fraternidad universal y de la superfluidad de la patria no era exclusiva del socialismo vizcaíno”. Sozialismo espainol guziak zerabilzkien ideia berdintsuak — “cuya tosquedad y dogmatismo son bien patentes”, Solozabalentzat.

Beraz, Solozabalek honelakoxe deskribua egin dio hemengo sozialismoari: “atendía a posiciones teóricas que, ignorando el valor progresivo del acervo cultural de un pueblo, despreciaban, en nombre de la fraternidad universal y de inexorables determinaciones económicas, por reaccionario y mixtificador, el contenido emotivo y las dimensiones políticas de la patria en general, y del nacionalismo vasco en particular”.

Ideologia unibertsalista abstraktu, kasi metafisikuaren arrazoi hau inportante da: ideologia proletario marxista klasikua ez da abertzale, ez du biderik irekitzen ere abertzaletasun sozialista batetarako. Asko duda liteke, Meabek edo Madinabeitiak sentimentu espainolista bero-beroak izan zitzaketenik. Eta ezin pentsa liteke, sentimentu anti-euskaldunik zutenik (antiabertzaleak bai, ordea). Eibarko sozialismoa ere euskaldunik aski bazen; baina ez euskalzale. Sozialismo klasikua ez dela nazio arazorik —beraz, euskal abertzaletasunik— ulertzeko ideologia, nahiko era-

kutsita dago, nik uste. Azken urteotan euskaraz gehien landutako gai bat hauxe da. Horregatik, hemen ez dugu gehiago ukituko.

Halare, hemengo sozialismo klasikuaz, PSOE-zialismoaz, aritzekotan, bi ohar erantsi beharrean gaude, orain arte egin diren azterketei. Izan ere, Marx eta Lenin izan ote dira —horien azterketan saiatu bait gara urteotan— euskal sozialismo klasikuaren espainolismoa determinatu dutenak? PSOE-zialismoaren espainolismoak badu beste iturburu biziagorik; eta Marxengandik eta Leninengandik hara baino gehiago, beste bi alderditatik esplikatzen da, nire ustez:

1. Tradizio inperial unibertsalistatik, eta
2. hemengo sozialismoaren tankera ez-ideologikotik.

Sozialistei abertzaletasuna horixe iruditu zaie: *espíritu de pequeñez y de miseria, filosofía de campanario, estúpidas diferenciaciones por razas y lenguas*, eta abar. Zentzu unibertsalistaren falta errealitate historikuentzat.

Baina, —kritika horiek egiteko Espainian ez bait dago marxista izan beharrik batere! Abertzaletasunari sozialistek egin dioten kritika, eta geroago Calvo Sotelok edo José Antonio Primo de Riverak egin diotena, oso antzekoak dira alde hortatik, eta azterkariak, koinzidentzia horiek nondik sortu diren, galdetu beharra dauka.

Ez ditugu berdindu ezinezkoak derrigor berdindu nahi, ez: abertzaletasunaren kritika sozialista eta faxista. Ez, berdinak ez dira. Presupostu ezberdinez eginak dira bata ala bestea. Baina desberdinak bakarrik ere ez dira. Badute nahiko antzik eta berdintasun gehiegi ere badute. Esan nahi dugu, bakarrik, hemen daukaguna ez dela sozialismo-A, sozialismo konkretu bat baizik, hemengoxe tradizioetan txertatu den sozialismoa hain zuzen, eta tradizio horien jokoan bere egiazko zentzu politikua hartzen due-

na: sozialismo espainola; hemengo faxismoa ere, bertoko tradizioetan itsatsirik, berezia izan den bezalaxe.

Hemen, ba, unibertsalismo sozialistak, honera heldu denean, bere aurretik unibertsalismo burgesa iadanik bertan zegoela, aurkitu du ("munduko hiritarra", kosmopolita) eta, azpi-azpianago, unibertsalismo inperialaren tradizioa ere bertan zeukan, sendo finkatuta. Unibertsalismo tradizio hauk, berez diferenteak izan arren, elkarren gaineratzen dira lur estratu moduan, edo hobe, urtu eta bateratu egin dira, edo nahastu. Hortik sortzen da, unibertsalismo arras printzipialki ezberdinak predikatu arren, gero, praksian eta aplikazioan, sozialistek eta falangistek ain resultatu berdinak erakusten badituzte. Hauzokeria eta xokokeriatzat joko dute sozialistek abertzaleetasuna, falangistek bezalaxe. Sozialistak, "kanpandorre filosofiak" destainatzen dituztenok, *Viva España*-ka dabilzkigu, falangistak bezalaxe. Eta abertzaleei *enemigos de la patria española* deritzaie, falangistek bezalaxe. Eta aberri espainolaren egunak ospatuko dituzte, falangistek bezalaxe. Eta abar, falangista eta ez-falangista espainol beste askok bezalaxe. Unibertsalismo antiabertzale espainolak tankera ezberdin asko hartzen bait du, koinzidentzia oinarritzko beti berdin batekin halare.

Beraz, UNIBERTSALISMO INPERIALA da beste arrazoi bat, zergatik hemengo sozialismoa, unibertsalista beharrez, espainolista sutsu amorratu den.

Funtsean, abertzaleak beren xokoaren sentimental hutak direla, pentsatzen da. Inguruotako mendiek ez dietela uzten urrutiago ikusten. Hauzokeria hutsa dela. Eta, sozialisten antzera, Calvo Sotelok edo José Antonio Primo de Riverak esaten zutena: ikuspide zabalik izan ordez, historiaren begirada unibertsalik izan ordez ("destino en lo universal"), abertzaleak etxe inguruko berezitasunetan pentsatzen duela, sutondo goxoan, xoko maittean, bere problematxoetan (*espíritu cerril*: Calvo Sotelo).

Sozialistek eta José Antonio Primo de Riverak pen-

tsabide politiko xit ezberdinak zituzten. Baina, bien ustez, politikak unibertsalista izan behar du. Eta, bien ustez, abertzaletasunaren bekatu larriena unibertsalismo horrexen falta da.

Espainian, unibertsalismoa tradizio zaharra da; haundia da.

“Mundua” zer den, Europak erabakitzen zuen bitartean behintzat, Espainiari mundu historiaren eta mundu politikaren giltza izatea tokatu zaio. Hori datu bat da. Beste datu bat, Europa hura kristau zela, kristautasunaren “unibertsalismo” konzeptu propioaz. Espainia, lehenengo mohamedanoen kontra, gero Indiak “ebanjelizatzeko” eta Europan heresiak zanpatzeko, “historia unibertsal” horretan izan dugu, hain zuzen, goian aipaturiko giltza hori: historia “kristau” unibertsalaren giltza. Historia probidentzia batek gobernatzen du eta Espainiari probidentzia hura betearaztea tokatu zaio.

Errekonkista, horregatik, ez zen errekonkista nazionalen bat, Gurutzada santu baino: kristaugoaren gudu santu, mundu kristau guziari interesatzen zitzaiona; eta, zer esanik ez, mundu guziari interesatzen zitzaiona. Horixe interesatzen zitzaion mundu guziari: Espainiako errekonkista.

Indien konkista ere kristaugoaren interes unibertsal bezala justifikatu zen. Kristaugo guziaren izenean konkistatzen eta ebanjelizatzen zituen Koroeak itsasoz bestaldeko lurraldeak. Kristaugoaren enkarguz bezala. Misio unibertsal bat ari zen konplitzen. Aita Santuek ikuspide hori bulda mordo batez bermatu zuten; printzipio honi Aita Vitoriak eta Las Casasek berek onerizten zioten. Horixe interesatzen zitzaion mundu guziari: Espainiak lurralde haiek konkistatzea eta ebanjelizatzea.

Heretikoen kontra, Espainiak, katolizismoa defendatu zuen Europan, bazterrak kiskalduaz. Heretikoek, badakizu, interes partikular ziztrin batzuk defendatzen zituzten, komunitate osotasun europarrari begiratu gabe: Ifarralde iluneko printze banaka batzuk eta monje “mundu gabe”

zoro batzuk ziren, denera; fede unibertsala eta Europako batasuna eta ordenua puskatzen zituzten; ez zitzaien axola, turkuen mehatxua indartzen bazuten ere, Kaisergoa ahulduaz, etab. Espainia, ordea, bere “misio unibertsala” betetzen saiatu zen eta lehertu zen. Beti haundi-haundiki. Zeren eta, munduari, horixe interesatzen bait zitzaion: Aita Santuaren autoritatea salbatzea, Europako fede batasuna zaintzea, turkuei buruz baturik egotea. Espainiak interes unibertsalak begiratzen zituen.

Beste guziak, ostera, beren interes partikularisten atzetik zebiltzan, Espainia, guziz desinteresatua, interes unibertsalak defendatzearren hondatzera zihoan artean. Hori adierazten digu, behintzat, literatura espainol klasikuak.

Espainiak Erdi Haroko “Kaisergo unibertsalaren” ideia oso-osorik heredatu zuen. Hernán Cortésekin “mundu guziko Jaun” zeritzan Karlos I-goari (ez, noski, hala zelako, bere posizioak misio unibertsal hori ematen omen zioelako baino). Miguel de Ulcurrum jurista ez dakit nongo batek, ideiaok sakonki eta irme finkatzen zituen *Catholicum opus imperiale regiminis mundi* obra batetan. Filipe II.a lurbira guziko agoazil sentitzen zen: munduko edozein xokotan zer gertatu, dena begira-begiratzen zuen. Mundu guziaren gobernuaz sentitzen zen kargudun eta erantzun beharrezko. Bere “misio unibertsala” zorrotz betetzen zuen.

Espainolak beti “munduaren destinoak” konpontzen ibili dira. Ironiarik batere gabe esaten dugu hori. Halaxe izan da. Historia da hori.

Gero, historia hori, normatibu bihurtu dute espainolek, eta ez eskuindarrek bakarrik (Unamunok, behintzat, inork baino gehiago, eskuindar den ala ezkertiar den, asko ez badakigu ere). Inor ez da, ereduak eta erakusbideak bilatzera, historiako aldi kaskarretara joaten. Espainolek, beren gizandiak eta ereduak, beren haunditasunaren eta beren birtute garaien espilua, Inperioan aurkitzen dituzte.

Ez dizut nik esango, espainolek beren birtute oinarrizko eta tipikotzat zeintzu dauzkaten eta nolakoa duten be-

re buruaren ustea. *Nobleza*, odol berdekoentzat ere birtute obligatu da, urdinekoentzat ezezik. Haunditasun. Don Quijote.

No soy de un pueblo de bueyes,
que soy de un pueblo que embargan
yacimientos de leones,
desfiladeros de águilas
y cordilleras de toros
con el orgullo en el asta.
Nunca medraron los bueyes
en los páramos de España.

* * *

Los bueyes mueren vestidos
de humildad y olor a cuadra:
las águilas, los leones
y los toros de arrogancia,
y detrás de ellos, el cielo
ni se enturbia ni se acaba.
La agonía de los bueyes
tiene pequeña la cara,
la del animal varón
toda la creación agranda.

Hori da espainol herria (hots, *esta raza*) Miguel Hernándezentzat (beti adibide hau ateratzen dut): *detrás de ellos el cielo ni se enturbia ni se acaba; toda la creación agranda*. Haundi da, unibertsal da. "Tiene el aliento de una estirpe / que soñó más allá de sus hogares" (A. Machado). Itsasoak menderatu zituena da, *dominadora*, "Jaun herri" nietzscheanoa. Hori da espainol arraza.

Jende noble horrek ez du ezer mespretxatzen gehiago, *espíritu de pequeñez y de miseria* hura baino; *estrechez de alma, patria chica*... Bere du mundu osoa. Euskal aber-tzaletasunak "olor de cuadra" dizula, esango genuke Mi-

guel Hernándezekin. Arranoa, lehoia, ez dira etxe zulo herstuan gelditzen. Mundu zabala herstuegi dute.

Euskal abertzaletasuna benetan txiro da. Euskara triste honekin, lurralde kaskar honekin. Gu ez gara konkistatore herririk. Ez gara lehoirik eta arranorik. Langile jende pobre. Guk ez dugu Inperio haundirik eraiki. Munduaz nagusitu. Mendiotan lanean aritu gara. Idiak izan gara, lanaren uztarripean.

Inperioaren sustraia, ordea, eta arima, Gaztela izan da. Eta, guziz “98.ko belaunaldiaren” estiloan, “es preciso confesar, predikatzten digu Unamunok, que a su [herri gaztelauaren] generosidad, a su sentido impositivo, a su empeño de imponer a otro sus esencias, debió su predominancia. Lo dije en Bilbao en la ocasión citada: Cuando tenía España dominios allende los mares, predominó y debió predominar Castilla, el pueblo central, el más unitario y más impositivo, sí, pero el menos egoísta... Gran generosidad implica el ir a salvar almas, aunque sea a tizonazos”.

Hau ez da Unamunoren Gaztela mistika, aski ezaguna, gehiago azaltzeko tokia. Baina ezin pasa gindezke hizkuntzari buruz, gaztelaniaz eta euskaraz, berriro ohartxo bat egin gabe. Unamuno, beti erdaraz idazten zuen “euskal” intelektuala ezezik, euskara ziztrina beti mespretxatu zuen eta Inperioko hizkuntza, gaztelania txit “unibertsal” beti goratu zuen “euskal” intelektuala izan dugu. Gaztelania biziki maite zuen eta gogotik lantzen zuen idazlea. Gaztelaniarekin enamoratu. Unamunok guri bezala, Leon Felipek berari egingo zion burla. [“Don Miguel era un vasco que se había empeñado en escribir bien en castellano... No aprendió nunca a hablar castellano (...). No tuvo ni el ritmo ni la magia del castellano. Don Miguel no tenía gracia. Ningún vasco tiene gracia” - alajaina!] Baina guk euskaragatik sentitzen duguna, Unamunok gaztelaniagatik sentitzen zuen: “La sangre de mi espíritu es mi lengua y mi patria, es allí donde resuena su verbo”...

1843.an Victor Hugo Euskal Herria gaindi ibili zen eta, Pasaian, hauxe idatzi zuen: “un lazo secreto y profundo, y que nada ni nadie ha podido quebrantar, une a todos los miembros de la misteriosa familia vasca. Se nace vasco, se habla vasco, se vive en vasco y se muere en vasco. La lengua vasca es una patria, casi diría que una religión. Decid una palabra vasca a un montañés en la montaña; antes que la dijerais erais para él un hombre; luego de pronunciarla os habéis convertido en su hermano. La lengua española es aquí tan extraña como la francesa”. Euskaldunontzat, ba, *la lengua vasca es una patria eta la lengua española es aquí tan extraña como la francesa*: Unamunorentzat —*mi patria es allí donde resuena soberano su verbo*— aberria gaztelania da. “El lenguaje, instrumento de la acción espiritual, es la sangre del espíritu, y son de nuestra raza espiritual los que piensan y por lo tanto sienten y obran *en español*”. Eta hau, *La fiesta de la raza delako izkribuan digu idatzita utzia...*

Gaztelania hori, Don Miguelen aberria, Inperioko hizkuntza, hizkuntza bikaina da, unibertsala, gihartsua, bortitza. Ez euskara bezalako erkina, eskasa. Gaztelaniarekin alderatuta, bigarren mailakoa ageri da euskara: *El vascuence es un lenguaje de tipo inferior*, sentenziatzen du Salamankako erretoreak. Izan ere, gaztelau herria —bere Inperioarekin eta— euskal herriaren oso gainetik dago. Eta *arrazoizkoa* da, Unamuno ez bait da sentimental nostalgiko bat, abertzaleak bezala, gaztelania ere euskararen gainetik egotea: “Es, pues, *muy racional* suponer que el lenguaje de un pueblo que sea superior en pensamiento y cultura a otra, sea, por lo mismo, superior al lenguaje de este pueblo”.

Guziz arrazoizkoa da, orduan, don Miguel guziz arrazoizkoak, aranisten “pasiones regionalistas” ziztrinak ez konpartitzea.

Unamunok, eta Irakaslearekin haren ikasle sozialistek, ezin maita zezaketen “un lenguaje de tipo inferior”. Bi-

dezko eta zuzen iruditu behar zitzairen, eta progresista, hizkuntza “superior” batek beste hizkuntza “de tipo inferior” bat zanpatzea eta zukutzea eta birrintzea, progresoaren ize-nean amen.

Euskararen alde saiatzen diren abertzaleak eta euskaltzaleak, hortakoz, politikan Foruen minez dabiltzanak bezalaxe, nostalgiko atzerakoï zoro hutsak ditugu.

Euskal Herriak ez du kulturarik eta euskara ez da kultur hizkuntzarik. Madinabeitiak, “no tenemos más cultura que la cultura hispana, la que nos ha prestado Castilla”, etab., esaten bazuen, sozialistak behintzat ez zituen eskandalizatuko. PSOE-zialista zintzo, arrazional, progresista batek esan behar zuena besterik, ez zuen esaten. Kultura eta zibilizazioa, gaztelauak dira. Kultur hizkuntza, gaztelania da. Euskaraz, Unamunok zionez, “el caudal de voces de origen latino, con ser el menor, es el que expresa las ideas más elevadas y más complejas, los conceptos de cultura. Y la cosa es lógica, pues la civilización y cultura que hay en el País Vasco son de origen latino”.

Katalana, behintzat, hizkuntza erromanikoa da, latinoia, eta ez du izango euskararen problemarik, hizkuntza zibilizatu izateko... Baina, Unamunori, hura ere ez zitzaion aski zibilizatu eta unibertsala egiten. Bilboko eskandaloren urte hartan bertan honela idazten zion Corominasi: “Insisto en que debe usted escribir en castellano, o mejor, en español, y en que lo hace usted bien. Piense en América... Pero ha de decirlo en español... Escriba, pues, en español. Déjese del catalán. Es el mejor modo de servir al alma catalana que en sí lleva. A los vascos nos salva el que sea el vascuence incapaz de cultivo literario: así veremos mejor nuestra alma”...

Progresismoa hori izanik, hobeto ulertzen dugu, PSOE-zialistentzat zergatik den atzerakoia abertzaletasuna.

Abertzaletasunean, hizkuntza, inportantea bai, baina ez da puntu bat besterik. Guk puntu hori azpimarkatzea, eta

zuzenean “politikuagoak” diruditen beste puntu batzuk baino gehiago azpimarkatzea (Foruak, independentzia, etab.), bidezko da, halare, Foruei eta baino inportantzia gehiago ematen diegulako geuk, eta progresismo zoro baten absurda hobeto erakusten digutelako. Halare, hemen, adibide edo erakusbide gisa bakarrik hartzen dugu euskara. Zeren ta, bestela, sozialistek, abertzaletasunak inplikatzten dituen Foruzaletasunari, etab., askoz burla gehiago egin bait diote, euskaltzaletasunari baino. Dena zen atzerakikerria, haientzat, abertzaletasunean. Dena progreso, “unibertsalismo” inperialean...

Abertzaletasunak xokokeriarik eta hauzokeriarik baduela —eta seguruenik beti izango duela; beraz, hori ez dela aranismoaren aje bakarrik, aisa utz genezakeena, “ideologia progresista” piska batekin— ez dugu ukatuko. Ezta ere, ez dugu ukatuko, unibertsalismoak edertasunik eta haundi zabaltasun zoragarriak baduela, unibertsalismo sozialistak, burgesak ala inperialak; eta, urrunago joaz, Alexander Haundiaren unibertsalismo mitikoak, Isaiaren unibertsalismo profetikoak edo kristautasunaren unibertsalismo “katholikoak”. Konzepzio eder-eder zoragarriak dira. Mundu guziko proletarioa, munduko hiritarra —kosmopolita—; mundu guzia erreinu bakar, hizkuntza unibertsal bakar bat, misio unibertsala; gizon guzientzat lege berdina, zabal-zabalik mundu guzia, errenteria eta mugarik inon ez; mundu guzia bere etxe duen Apostolua; nonahi jaun den konkistatorea, eremuren bati loturik ez dagoen mundusemea, gizadiak identifikatzen den Prometeo proletarioa... etc., ideia diztiranteak dira, guziok liluratzten bait gaituzte.

Abertzaleok ez gara abertzale, ideia horiek eta xede horiek ez zaizkigulako gustatzen; baina gustatzen zaizkigun arren: ez garelako ideietan bakarrik orientatzen.

Unibertsalismoa, ordea, ideia bat da eta ideal bat da, eder eta zoragarri. Errealitatean zerbait itsusiago. Laster nabaritzen bait da, segun nondik begiratu, historiaren uni-

bertsalismoa, edo politikaren unibertsalismoa, errealitate oso ezberdinak direla batentzat ala bestearentzat.

Indien konkistaz edo erlijio guduez gero, beranduenik, argi eta garbi dago, Espainiak defendatzen zuena, interes unibertsalak baziren, interes partikularrak ez zirela gutiago.

Gero ikusten dugu, Espainiaren ondotik etorri diren beste Inperio guziek, egungo USA eta URSS horietaraino, ez dutela bestela jokatu. Bakoitzak bere ikuspide aldetik, biak ari dira “interes unibertsalak” defendatzen. Partikularrak ahaztu gabe, horratio! Aurretik izan zirenek berdin. Eta konturatzen gara, “interes unibertsalen” defentsa beti *haundien pribilejio* izan dela historian. Ttipiek ez dute sekula —haundiaren kontra— interes unibertsalik defendatu. Ezinezko da.

Inperio eta Urre Haro espainola, guk, benetan miresten ditugu: deskubritzaileek, konkistatoreek, misiolariak eta mistikuek, teologoen, Kaiser Habsburgotar ilun horien, Inkisitoreek berek, badute halako haunditasun aire serio eta sakon bat, gure bizitzako kaskarkerietatik gora altxatzen dituen maiestate bat eta dignitate bat, inpresionatzen gaituena eta ukatzen ez duguna. Miresten ditugu “espainol inperialaren” dohainak eta birtuteak. Miresten dugu haunditasuna. Miresten dugu haien izpiritu unibertsala.

Baina ez gure eredu, ez jomuga, ditugu. Eder da. Baina, beste edertasunik ere badagoelakoan, guk ez dugu hori nahi.

Izan ere, zer da horien unibertsaltasuna, beren boterea besterik? Zerk oinarritzen du horien haunditasun izpirituala Inperioak baino?

Eder da mundu batu, zabal eta berdin, harmoniko, unibertsal baten irudipena, ozeano geldu baten antzera. Eta eder da, orobat, hamar mila baratzetxo garbi landu, herri haundi eta ttipi, jende zuri eta beltz, mila kultura desberdin, hamar mila pentsaera diferente, edonolako arte eta interes pluralista, mundu bixi-bixi baten irudipena, joera

eta jende diferente denak bakean eta lanean bizi direla. Irudipen biok, ordea, batasuna eta ugaritasuna bezala, ez dira harmonizatzen. Praksian, elkarren etsai dira xedeok eta jomugaok.

Praksian, unibertsaltasunaren xedea haunditasuna da; unibertsalismoak adierazten duena haunditasuna da. Ez, esate baterako, askatasuna. Ez, ugaritasuna. Unibertsalismoa gizadiaren haunditasun idealari, haunditasun jomugarri, dagokion eta datxekon konzeptua da; ez, esate baterako, zuzen-zuzenean gizadiaren askatasunari erreferitzen zaiona.

Gu, ordea, aberri kaskar baten gure ideiarekin, hizkuntza zahar ttipi bat gordetzeko gure ahaleginekin, burruka abertzalearekin eta, batez ere, lan abertzalearekin, gizadiaren askatasunari erreferitzen ari gatzaizkio, ez haunditasunari.

Eta oinarri aldetik ere, unibertsalismoa beti haunditasunari erreferentziaz ulertzen da, unibertsalismoaz egiten den usadio politikuan behinik-behin.

Unibertsalismoak, historia guzia bat eta unibertsal dela, mundu guzia bat eta bakar dela eta, beraz, mundu guzian politikak bat egiten duela, adierazi nahi badu, ez da dudarik, herri haundien eta ttipien partizipazioa ez dela berdina historia unibertsalean eta politika unibertsalean. Haundien interesak dira mundu guzira zabaltzen. Ttipiek sartu-irten guti dute mundu politikan, eragin guti munduaren ibilbidean. Ttipiak, ttipigatixe eta beste gabe, “unibertsalismotik” bazterturik daude, unibertsalismoa horrela ulertzekotan. Aldez aurretik ezarririk bait dago, haundien artean erabakitzen dela, unibertsal zer den. Unibertsalismoa haundien pribilejio da. Inperioak dira, unibertsalismoa prefiguratzeko dutenak. Halare ttipiari haundiak dabiltzanaren responsabilitatea esijitzen zaio... “unibertsalismoa”.

Inportante da truko honi ongi erreparatzea. Izan ere, haundiak ttipiari beti unibertsalismoaren aitzakia ateratzen

dio, ideal eta obligazio modura. Alabaina, unibertsalismoa ez da guziok berdin obligatzen gaituen ideal bakarrik; batzuen pribilejio ere bada. Egiaz haundia ttipiari esaten ari zaiona, haxe da: ttipia baino haundia haundiago dela eta haundiak ttipiak baino munduan zer esan gehiago duela eta gehiago balio duela; beraz, lagun zaidazu. Errealitatean, unibertsalismo printzipioak haxe adierazten du: ttipia baino haundia haundiago dela. Hori denok dakigu. Okerrena da, haundi ordeztu "unibertsal" esanez, haxe eskutatzen duela: haundiago, haundia bai, baina haundiaren hauzokeria ere badela. Hauzo haundi, hauzo ttipi, hauzokeria beti hauzokeria bait da. Eta partikularismoa beti partikularismo.

Ideologiek, puntu honetan, ezer argitu baino gehiago, ezkutatu egiten dute. Botorearen "legitimazio ideologia" horiek salatu beharra dago.

Haundien unibertsaltasun haundiagoak, hauzokeriaren haundiagoa erraz ahazten denez gero, ilusio bat sortzen du: haundiok urbilago daukatela helburua, gizadi unibertsala (gizadi batua, bakea, etab.). Herri ttipiak ikusi eta gizadi unibertsalak urruti dirudi; haundiok, aldiz, bi pausutara daukatela, ematen du. Ttipiek eragozpen hutsa dirudite; haundiek, gizarte unibertsal haundi zabala posibilitatzen ari direla.

Orduan Calvo Sotelok bere modura adieraziko du, haundiari zor zaion maitasuna eta laguntza: *Dios sólo puede amparar lo universal y lo infinito, y eso es España*. Eta sozialistek, inon *Gora Euskadi*-rik entzun orduko, *Viva España*-ka hasi beharko dute zalapartaka. Espainiaren gaurko "unibertsaltasuna" bait da azken unibertsaltasun hartarako bidea...

Euskadiko sozialismo klasikuak, burgesia espainolista batek taxaturiko euskal gizartean, unibertsalismo proletarioaren printzipioa unibertsalismo inperialaren tradizioan txertatu du, — justu burgesiak ("hobe gorri, hautsi baino") behartu nahi zuen era-eran.

Hori ez da agiri, unibertsalismo printzipioari sozialistek eman dioten tankera arrunt antieuskaldun, antiabertzale, espainolista, sozial-inperialista arruntean bakarrik. Karlistaden ondoko giroan sozialismoa nola leku-hartu eta leku-mugatu den bera, eta “98-ko hazaldiaren” inguruko ideologia nazionalista espainola nola asumitu duen, begiratuaz, konkretuago eta hobeto agiri da hori.

KARLISTADA ONDOKO GIROA da espainolismoaren beste kausa bat Euskadiko sozialismoaren kasuan.

Giro beltza: euskaldunen kontrako gorroto giro bildurgarri bat zabaldu zen Espainia guzian, *un antivasquismo feroz y disparatado*, Areilzak esango duenez. Eta Areilza horrixek bidezko irudituko zaio gero sozialisten espainolismo antieuskalduna: *Aquí el socialismo es puramente antivascongado, como nutrido por la savia de Carretero, Perezagua, Su Ilustrísima* [Unamuno], etc.).

Valdespina jeneral karlistak ezin konprenitu zuen, euskaldun mutilek beren odola Don Karlosen alde isurtzen zuten artean, Euskal Herrian zebiltzan karlista jauntxo eta haundiki giroan bertan, buruzagien artean bertan, gaztelauk euskaldunari gorroto bizi-bizi omen ziotela, berak dioenez. Gaztelauak ezin du ikusi euskalduna, —anotatzen zuen. Eta gaztelauen “aspaldidaniko euskaldunon inbiriak” esplikatzen zuen, simple samar.

Barrenago, arrazoia politikoa zen. Karlista gaztelauontzat, aurrez-aurreko liberal etsaiatzat bezalaxe, Espainiaren batasuna sakrasantua zen iadanik. Karlista gaztelauok ez zihoazen heriotzera euskal Foruengatik, ez horixe...

Etsaietan etsaia, etsai nazionala, karlistak ziren une honetan espainolentzat; Foruzaleak. “La opinión nacional antifuerista se enloquecía más y más... ESPAÑA ENTE-RA pedía la nivelación absoluta y las Cortes reunidas tenían igual apasionamiento en esta circunstancia” (Lasala, Duque de Mandas). Fanatismo antiforal amorratu honek sortatuko du, gero sozialistek aurkitzen diegun errosario guzia: euskaldunon basazulokeria, probintzikeria partikula-

rista, atzerakoikeria; Foruak retrogrado direla, euskara hiltzea hobe dela, foralismoa inkulturatik bizi dela, etab., etab. Guzi honetan sozialismoak ez du orijinaltasunik balttere; tradizionalista da.

Koloniak galduz doan Inperio zaharra erre-erre eta kiskali dago gaisoa: euskaldunon bizkarretan mendekatu nahi du bere hondamendia. "No sirve decir —protestatzen zuen Barkaiztegi— que no se trata aquí de castigar; no sirve negar esto, porque es lo cierto que en la atmósfera que nos rodea se respira todo lo contrario, no habiendo calumnia ni acusación que no se lance por la prensa contra las Provincias Vascongadas". Orain irakurleak liburu batetan bilduta dauka Euskal Herriaren kontrako fanatismoaren kanpaina hura, ik. A. Ciaurriz, *La abolición de los Fueros Vascos a través de la prensa*.

Beraz, etorkinak ez ziren soil etorkinak, giro horretaxi zetozen etorkinak baizik.

Ibaizabal inguruko lehen sozialistak, Euskal Herrian ez ziren Euskal Herriko sentitzen; euskaldun. Eta, gainera, kaskoa oso nazionalismo espainolak bero-berotuta zeukaten, uste ez bazuten ere. *Viva España*-k oso erraz irtezen zien ezpagnetatik. Bestalde, Bilbo aldean istiluak eta tirabira gogorak berehala sortu ziren etorkinen eta bertakoen artean (beharbada XIX.mendea zehar *maketoaren* gorrotoa indar hartuaz joan da Euskal Herrian; *maketo* hitza, behintzat, 1890 aldera guziz jeneraldua zegoen; ez du zabaldu Aranak) (1). Teinka horiek sozialismoa etorkinen

(1) *Maketo* hitzak, nondinahi datorrela ere, ez dirudi beti esanahi txarra izan duenik, orain duen moduan. Nik neuk hala ikasi nuen gurasoengandik, esanahi batere peioratibo gabe (har zezakeen zentzu peioratibo ere batzutan), mintzairaz erdaldun eta sorkuraz ez dena Euskal Herrian sortua, adierazteko. *Euskalduna* euskaraz mintzo dena da; *erdalduna* euskaraz mintzo ez dena; *maketoa* ez euskaraz mintzo eta ez Euskal Herrian sortu dena. (Ik. orain, X. KINTANA, *Euskal Hiztegi Modernoa*-n, *maketo*. E. IBARZABAL, *Koldo Mitxelena*, 1977, 13, pasarte hau ikusten dut: «*Maketo* es un término no vasco, como sabía perfectamente Sabino Arana, introducido aquí —Gipuzkoan— por el nacionalismo de influencia vizcaína. En la Ría se trata de un préstamo montaños. En Torrelavega, donde estuve un año, me llevé una gran

ideologia kasi ofiziala bihurtarazten zuten. Eta, bide batez, sozialismoari plegu espainolista, antieuskalduna harrazten zioten, ia nahitaez.

Karlistada ondoko giro antieuskalduna ez dago isolaturik; gure arloan, 98-ko belaunaldiaren ideologia nazionala kontsideratu behar da harekin batera.

Hau da, alegia, 98-ko hazaldiak errepresentatzean duen **ESPAINIAREN SALBAZIO IDEOLOGIA**, espainolismo sozialistaren beste iturburu bat. Ideologia honek, bestalde, Inperioaren haunditasunera berrizultzaren gaitu.

Gizarte espainolari shock ikaragarri bat eman zion kolonien galerak. 98 urte gurutziala da Espainiaren historian. "Dekadentzi" psikosi kolektibu bat nagusitu zen Espainia guzian. Dekadentziak ikaratuta bizi zen gizartea; bildurrak, humilazioak, derrota sentsazioak eta injustuki zorrigaitz bat sofritzen dela uste izateak, sortzen duen agresibitate garratz guziarekin. Sozialisten analisiak horixe adierazten digu: regionalismoa, berek hala bait diote, "un síntoma característico de la decadencia nacional" dela haientzat. Nahi ezta ere Ortega gogarazten bait du.

Kolonien galera izan ez balitz, ez zen euskal eta katalan abertzaletasunik ere izango, —komentatzen zuen mingarki eta samin *La lucha de clases*-ek:

Si España no hubiera perdido las colonias... a buen seguro que los catalanistas separatistas y los bizkaitarras habrían quedado reducidos, aquí y allá, a la media docena de grillados que vienen de antiguo soñando con repúblicas de Andorra, con murallas a lo chino y con la regresión a la vida pastoril.

Horrek ematen dio min komentariata sozialistari: Es-

sorprea al oírlo emplear corrientemente para designar a la gente de Palencia, como solían explicar, es decir, a los «castellanos». No se trata, pues, de ningún invento nuestro». Ik., baita ere, A. ELORZA, *Ideologías del Nacionalismo Vasco*, 1978, 116).

painia dekadentzian erori da eta orain ez dute ezer jakin nahi Espainiarekin katalanek eta euskaldunek, berak aberatsenak direlako...

Espainola, bere ohore nazional minbera, lehendik ere ofendituan, burlatua eta iraindua sentiarazten zuen Bizkai-ko abertzaletasunak. Dekadentzian erori den Espainiaz bur-
latzea iruditzen zitzaion.

“En las horas decadentes —plainitzen zen Ortega— cuando una nación se desmorona víctima del particularismo...”. Eta “particularismo regional” zikinari erasoko dio madrildar garbi-garbi eta unibertsalak: “secesionismo vas-co-catalán... mero caso específico de un particularismo más general existente en España”. Partikularismoa da gaitz gu-
zientzian kausa. “España se arrastra invertibrada”, jarraitzen du Jeremiaren lantuak. Izan ere, unibertsal zenean, izpiri-
tu unibertsal haundi batek biziz betetzen zuenean, haundi zen Espainia.

Gaztela zen Espainiari izpiritu bortitz hura eman zio-
na. Baina orain Gaztela pobre da, ahul da. “Castilla ha
hecho a España y Castilla la ha deshecho”. Gaztelak ezin
indar dezake gaur Espainia. Eta bazter inguruetan partiku-
larismoa nagusituz doa.

Edozein gizartek buruzagi elite bat behar du, gidari
bat eta menpeko jende pila bat, harek gidatua; “el hecho
primario social es la organización en dirigidos y directo-
res de un montón humano”; eta Espainian beti Gaztela
izan da buruzagi, baina orain ez da; eta Espainiak ez bu-
ruzagirik, ez bururik, ez bizkar-hezurrik du... Espainiaren
historiako une loriazkoen nostalgiak eta mindurak bete-
tzen du Ortega. Orduan, izpiritu haundiek agintzen zuten,
talentu argiek, idazle benetan bikainek, kapitain bihoz-
toiek. Orain izpiritu kaldarrak dira nagusi, idazletxo txa-
txarrak, jendeterien buruzagi zangarrak ez dago.

Ortegaren ustez orain inbezilitatea da nagusi. Ez dago
berak *adoración a lo superior* deritzanik. Abertzaletasuna

inelizitate bat. Izan ere, haunditasuna predikatu ordez, “humildad, entusiasmo y adoración a lo superior” irakatsi ordez, partikularismo arrastakaria barreiatzen du, “plebeyo resentimiento contra toda posible excelencia”. Orain bakoitzak bere interestxoak bilatzen ditu.

Ortega izendatzen ari gara; baina belaunaldi oso bat aipatzen dugu haren inguruan, “98-ko belaunaldi” osoa batik-bat, Espainiako *intelligentsia* guziaz garai horretan, eta diferentzia ideologiko guzietan gaitetik, espainol gizarte osoan agintzen zuen “ideologia dominantea”: “el desastre del 98” harek markatu eta zigilatu dituen gizarte, Alderdi, intelektual, Harmada, Eliza, etab. espainolak. Denak. Gainera, nabarmena da Ortegak sozialisten artean izan duen arrakasta eta eragina.

Intelektuak espainol guzietan lehen-lehenengo kezka eta mina Espainia salbatzea dekadentziatik izango da. Espainiaren redenzioa eta regenerazioa, orduan ahoz-ahoz eta hitzetik ortzera zebiltzan hitzak, bait dituzu horiek. *Me duele España*, esaten zuen Unamunok eta *La redención de las provincias y la decadencia nacional* idazten zuen Ortegak. “No está sólo en crisis la Monarquía —larriz larritzen zen Madariaga. Lo está la Nación. Lo está la Raza (oi espainol arraza!). No se ventila sólo la capacidad de los españoles para organizar un Estado monárquico o republicano, sino su capacidad para organizarse en Nación”. Eta, Ortegak bezala, dekadentziaren fruitu direla “bazter aldeetako separatismoak”, erabakiko du. “¿Existe entre nosotros —ari zitzaion Altamira bere buruari galdezka— la conciencia y el sentimiento de nuestra unidad no ya como Estado, sino como nación, es decir, como pueblo en que por encima de las diferencias locales hay notas comunes, de ideas, de aficiones, de aptitudes y defectos, que hacen del español un tipo característico en la psicología del mundo y de España una entidad real y sustantiva?”.

Dekadentziaren larria eta Espainia ditziratsu berri-berriaren mistika, eskuz-esku, horiek dira asmo eta kezka na-

gusiak eskuinean ala ezkerrean. “Esta confianza —idatzi du Antoni Jutglarrek in *Ideologías y clases en la España contemporánea*—, esta esperanza en una España irrenunciable e imperecedera, construida sobre el dinamismo de Castilla y alentando una innegable gama de *nacionalismos y españolismos*, es un hecho compartido por todas las tendencias desde la extrema derecha a la extrema izquierda. En este sentido, podría hablarse con propiedad de un profundo aliento nacionalista y castellanista, presente tanto, por ejemplo, en las páginas de ABC y *El Debate*, como en las publicaciones del PSOE”. Ezkerrak ez du berritu nahiko Espainia eskuinak bezalaxe. Baina horixe nahi du; bai; ideia berbera eta dekadentzia-regenerazio eskema bera darabil, “para amoldarla a la nueva potencialidad biológica y a las ansias de grandeza espiritual y material del pueblo” (Jutglar). *Grandeza... beti!*

Azorín, Machado, Unamuno, Maeztu, denak noizpait sozialismoan edo anarkismoan ibiliak, edo ingurutsuan, horra denak Espainiaren redenzio ideologia kartsu batetan sinets-sinestunak non ditugun. Non Gaztelatik espero duten redenzioa. Non inspiratzen diren Inperioan... “España quiere surgir, brotar, toda una España empieza” (A. Machado). *Empieza a amanecer...* El Cid eta Don Quijoteren kulto nazional bat berbiztuko da. Sinbologia politikuak Inperiotik ateratako imajinaz eta irudiz beteko dira. Gaztelaren mitoa da fede berria. Maura bera honela mintzo da: “Yo, mallorquín... veo [en Castilla] lo que veo en esas personas predilectas de la espiritualidad, donde parece que están las almas a quienes reserva la inteligencia y el amor sus cumbres, con un cuerpo endeble, acaso feo, irregular, como si la materia no se hubiese decidido a envolver por completo sus espíritus tan grandes”... Ortega-ren gatzelanismoa —funtsean, Inperioaren zeharbidezko aipamen bat, Gaztelaren eta Inperioaren identitate apenas disimulatu bat egiten bait da— beste leku batean aipatu dugu.

Una confianza en la recuperación de Castilla, vinculada a la convicción de un irrenunciable papel histórico, a la idea de un alto destino reservado a un pueblo, animado por gentes capaces de grandes aventuras. De hombres llamados a realizar grandes empresas, —fede hori du hazaldi honek, fede haundi eta bizi (Jutglar).

Eta sozialistak dira fede honen apostolu sutsuenak, Balpardak aitortu zigun bezala; eta Madariagak ohartzen digun bezala orobat: “Han cambiado la fe, y el otro mundo ha pasado de una eternidad soñada a un ideal soñado; pero el sentido grave, serio e institucional que anima a los socialistas castellanos de hoy es el mismo que inspiraba a los teólogos y juristas de antaño. El movimiento socialista de Madrid es, pues, la única entidad verdaderamente histórica en la política moderna española, la única que posee una vida íntima que le da un valor prominente, creciente y formativo en la historia contemporánea de España”... Sozialistak dira kastizismoaren egungo inkarnazio autentikoa, “espainol inperialaren” jarraipen jatorra: egiazko espainolak berak dira.

Antoni Jutglarrekin bukatuko dizut, apunteotarako hartaz baliatu naizela aitortuaz eta eskertuaz (ondoko Araquistain hori intelektuak sozialista entzutetsuenetakoa zenuen garai batetan):

Significativamente, en este sentido, Araquistain escribiría unas páginas sumamente reveladoras en el número primero de la revista *Leviatán*, recordando concretamente una relación intelectual sumamente ilustrativa: “*Leviatán* se reconoce, en efecto, continuador de *España*; combatirá con el mismo ardimiento lo que entonces combatía *España*... Esperemos que el núcleo de colaboradores y lectores de *España* se haya renovado también... *España* fue fundada por José Ortega y

Gasset en 1915. La dirigió poco después, durante ocho años, el que ahora dirige *Leviatán* [Araquistain]. Su último director, en los meses posteriores, fue Manuel Azaña, hasta el momento de su desaparición bajo la dictadura militar de 1923”.

La orientación del revisionismo hispánico, a partir de la sobrevaloración del papel de Castilla, afectaba, pues, a los sectores más diversos de la intelectualidad y los hombres de acción y organización del interior.

Alderdi sozialista, lurretik zerurainoko diferentzia guzietan ere, Kardinal Cisnerosen heredero zuzen da... Espainiako Alderdi Sozialistak Espainiaren redentore bezala ulertu du bere burua. Espainiak ez duela Alderdi Sozialista beste redentzio posiblearik, predikatuko du beti.

“98-ko hazaldian” oso jende eta korronte ezberdinak biltzen ditugu —funtsean aldi historiku guzi hau—, jorkabide zuzen-zuzena ez bada ere, erraztasunaren eta argitasunaren amorez. “En todo caso, una serie de cuestiones aparecen como, más o menos, comunes a todos ellos: el paisaje y el hombre españoles; el sentido de la historia española, el problema de la cultura hispana, la cuestión de la decadencia en España y, concretamente, de Castilla, etcétera”. Horientzat Espainiaren orpo, arima eta bihotz, sustrai eta buru, beti Gaztela bait da, *una apasionada exaltación de Castilla* egingo dute.

Eta labur-biltzen digu Antoni Jutglarrek:

Entre 1898 y 1918 aparecerá la parte más importante y más externa de la obra de la mayoría de los autores de dicha generación, coincidiendo —por tanto— con la patentización más típica de la crisis espiritual hispana de los primeros años del siglo [guretzat, abertzaletasunaren gorputz hartze eta teorikoki nahiz erakundezki sendotzearekin koinzidituaz]. Hablarán del sentimiento trá-

giko de la vida en el hombre y en los pueblos; de la esencia y el significado de lo español en relación a lo europeo, etc. Tal como ha subrayado Laín Entralgo beberían en determinadas fuentes europeas (Kierkegaard y Nietzsche) que ayudan a comprender varias de sus actitudes y —en la plataforma de su ambigua y “desesperanzada” juventud de retoños de unas clases medias perplejas y fracasadas— construirían una mística socio-político-literaria apoyada sobre *tres mitos fundamentales: Castilla, el hombre-Quijote y la España posible* (o sea, la resultante de las nupcias entre la España intrahistórica y la universalidad de la época; *azpim. nireak*).

Beraz, hori zen garaiko “ideologia dominante”. Axalaxaleko azterketatxo llabur honek egin zezakeen baino luzeago eta sakonago aztertzea merezi duena, euskal sozialismoan, zuzen-zuzen ala zehar-zeharka, eragin bizia izan du eta. Isil-isilik, baina bortizki, horrek hezur-mamitu bait du —hots, aldiko intelektual nagusiok, pentsa eta senti giroak, mitoeak eta sinboloek, erreferentzia historikuek—, ari zenik ere ohartzen ez zela, Euskadiko lehen sozialismoaren barren-barreneko espainolismo radikala, itxurazko sasi-unibertsalismo ideal baten azpian.

Hori da, beraz, euskal sozialismo klasikua: Inperio nostalgiaz eta Espainiaren redenzio ideologiaz barren-barreneraino betea, herri ttipi baten bizi nahia ezin jasan zuena, xobinismoaren berrinkarnazioa bera.

Unamunoren eragina euskal sozialismoan ez dago berriz aipatu beharrik. Ortégarena ez da hain ezaguna, baina apenas izan da ttipiagoa (sozialismo espainolaren bidez gehiena). Bata ala bestea oraindik aztertzeke daude, nolana ere. Ortégarenean, bederen, eragin ideologiko arrunta eta politikoko praktikoa berezi ahal izango lirateke. Espainiako Konstituzioaren (hots, Estatu tankeraren) eta Es-

tatutuen arazoetan, Ortegaen interbentzioak erabakiorrak izan ziren Gortean.

Ortegak, lehenik eta gehienik, intelektualaren eragipen ideologiko orokarra izan du, haundia, sozialisten pentsa eta jokabideetan. Espainolismo Inperio-nostalgikoa intelektualki dottore eta apain-apain jantzi duena, progresismo tankera elegante batez, bera da. Euskaldunoi buruz harek zituen eritziek (hots, aurreritziek), hemengo sozialisten postura negatibua bermatzen zuten, intelektual sonatu eta "neutral" baten ospe eta pisuarekin. Euskaldunok ez dugula kulturarik, uste zuen: *A la raza vasca... sólo le falta cultura*. Euskara, hizkuntza, primitibu, ezain, ezindu, erbal, ezgauza iruditzen zitzaion: *Ser vasco es, sin más, una renuncia a la expresión verbal. El misterioso pueblo vascongado posee un idioma elemental que apenas sirve para nombrar las cosas materiales, y es por completo inepto para expresar la fluencia fugitiva de la vida interior* ("como pontificó en cierta ocasión Ortega sin mayor conocimiento de causa", komentatzen du Mitxelenak).

Praksi politikoan Ortegak izan zuen eraginaz —edo, berdin, antzeko beste intelektual batzuek— S. Varelaren pasarte batzuk aldatuko dizkizut:

Es destacable... la acción parlamentaria de algunos intelectuales de prestigio que, sin contar con el respaldo de grandes formaciones políticas, tuvieron una considerable capacidad de movilización dentro de las Cortes. Ante el Estatuto catalán hubo especialmente tres de estos intelectuales cuyas actitudes marcaron pautas al comportamiento de otros muchos diputados: Ortega y Gasset, Sánchez Román y Unamuno. Los límites exactos de su influjo son difíciles de precisar, pero, en cualquier caso, es evidente que fue uno de los obstáculos mayores que el Gobierno y los diputados catalanes encontraron en la tramitación parlamentaria

del Estatuto. Ello por dos razones: primeramente, porque sus argumentos aparecían desprovistos del interés político de un partido concreto y fundados únicamente en los más “altos” valores de la cultura o del derecho; en segundo lugar, a causa precisamente de ese “desinterés” político, su influencia se extendía indiscriminadamente al interior de varios grupos, ya fueran gubernamentales o de la oposición, siendo muy difícil de contrarrestar sus efectos.

Las modificaciones más importantes que se introdujeron en el Estatuto en relación a los primitivos dictámenes de la Comisión, apoyados por el Gobierno, fueron siempre conseguidas a iniciativa de estos hombres... Recuérdese, por ejemplo, cómo ya en los debates constitucionales fue precisamente Ortega quien consiguió suprimir de la Constitución la definición de la República como un Estado “de tendencia federal”. La preocupación del Gobierno ante todo este fenómeno...

La preocupación de los diputados catalanes ante los efectos de las actitudes anticomunistas de los intelectuales tampoco fue menor... Etab.

Galdera sortzen da, guzi honen buruan, abertzaletasuna gau eta egun burukatzea ia beren zeregin larriena zutenok, beste nazionalismo hau nola ez duten erreparatu. Esplikazio bakarra, nazionalismo batzuek dispensaz edo pribilejioz duten “Naturaltasun Dretxoa” iruditzen zait. Badirudi, Espainia ebidentzia bat dela, “natura” dela. Beraz, nazionalista espainol izateko eskubide guzia dagoela. Alegia, nazionalista espainol izatea ez dela nazionalista izatea. Hori “natural” edo iruditzen bait zaie...

Horren adibide asko daukagu euskal historitxoan. Elizak, esate baterako, sarri jokatu du horrelaxe. Haurrik euskal izenez bataiatzea “politika egitea” zela eta izen espainolez bataiarazten zituen... Euskara ikastea eta lantzea,

edo euskaraz predikatzea, “politika egitea” zen, halaber: eta apezgaiei gaztelania ederki irakasten zitzaien eta apez-zei gaztelaniaz predikarazten zitzaien. Inork ez zuen hor politikarik susmatzen. Euskaraz hitzegitea ere politika zen (debekaturik zegoen Seminarioetan, hortakoz). Ez euskal historiarik, literaturarik, ez herririk, behin ere aipatuko zizuten, politika bait zen hori. Kontatzen digu Barandiaranek, euskal etnografia ikertzen hasi zenean, “me acusaron pronto de mezclarme en política sólo porque me ocupaba de hacer averiguaciones acerca de la etnografía religiosa de mi pueblo, que yo descubrí pronto con mis estudios que era muy particular a pesar de que no nos habían dicho en el Seminario una sola palabra”... Eta esan omen zion beste apez batek: “Mira, José Miguel, no tomes como materia de investigación el Pueblo Vasco porque se te van a complicar las cosas; ¿por qué no dedicas tus trabajos a cualquier otra parte de España?”... Ez zen Francoren azpian, ez; 1915 aldera zenuen hori (ik. M. Ugalde, *Hablando con los vascos*).

Garbi dago: edozein lekutako etnografia erlijiozkoa egin lezake euskaldun batek, politikarik egin gabe; baka-rrik Euskal Herrikoa ikertzen badu, politika egiten ari da... Farregarri dirudi, baina giro hori eta ikuskera hori guziz korrienteak izan dira. Euskal Herria, nola edo hala, inola aintzat hartzea, politika egitea zen.

Sozialistei horixe gertatzen zitzaien, noski, giro arruntaren poderioz.

Hori da. Baina hori anormala da sozialistak bezalako jende politizatuan... Konsekuentzia, sozialistaok ez zeudela benetan politizaturik, esatea iruditzen zait. Sintoma gehiago ere badago, halaxe dela. Arrazoipideak, esate baterako, foruekin ala gabe, langileari berdin zaiola, zapaldu-rik baldin badago, axaletik arrazoizko dirudi; baina, ondo begiratuaz, errealitate politikuen desprezio totala adierazten du. Esklusibismo sinplista hori azken gabe heda bait liteke, Dretxo guzia, midizina, artea, zientzia, munduan

dena eta edozer gauza, zentzu-gabetsu bihurtzeraino: langilea zapalduarik dagoen artean berdin da bakean ala geran bizi; berdin da diborzioa legezko den ala ez; berdin da heriotze kondenarik egon ala ez; berdin da emakumearen edozein diskriminazio, berdin da errepublika ala Hitler... Berdin da edozein politika, edozein Dretxo. Gauzek badute mundu honetan, osoa ez bada ere, beregaintasun eta berezko errealitate puska bat, hain sinpleki destainatzerik ez dagoena. Ez da dena, baina politika ere bada zerbait. Pentsaera unilineala, alternatibista, patologikua da. Politikua ez behintzat.

Hori da, nire ustez, beste arrazoi bat, h.d., euskal sozialismo klasikua FUNTSEAN APOLITIKU zela, espainolista izateko eta konturatu ere ez egiteko.

Bere garaian Marxek abisatu zuen, filosofiarik okerre-na filosofiaren mespretxua dela; orduan, nahitaez filosofiaren bat praktikatzen bait da: eta, zihur, txarra eta txarrena huraxe.

Politikarekin berdin gertatzen da. Eta sozialismo klasikua politikarekin horixe gertatu zaigu Euskal Herrian.

Sozialismo hura funtsean egunoroko problemen sozialismo zen. Inondik ez da ikusten teoria haundiak zituenik. Praktikua zen, batez ere.

Holako sozialista tipiko bat Tomas Meabe dugu. Sozialista karismatiko bat, "poeta visionario" (Araquistain), "un espíritu lleno de deseos irrealizables" (Meabek berak), konformismo guzien kontrario bizi, kontentagaitz. Abertzale izanik, abertzaleok gizarte arazoaz guti arduratzen zirelako, sozialistengana pasa zen. "Sus conocimientos del pensamiento socialista eran muy limitados", deritza Fusik. "Sus ideas sobre el socialismo y temas afines son de nula originalidad, a veces nada más que lugares comunes sobre la socialización y la futura sociedad colectivista, tal vez porque el socialismo significaba para él una vaga filosofía de rebelión y no las complejas elaboraciones teóricas ex-

puestas por sus más conocidos propagandistas". Uste horiek omen ziren, "inspiradas más por impulsos emocionales que por teorías políticas o sociales". Meabe langileen erruki zen. Xit sentibera injustizia kontuan. Oso hasarretzen zuen eta samintzen zuen langileriaren adur gaitzak. Klase diferentzien berdintzea eta klase gabeko gizartea erakitzea, gizaseme librez eta ongi eskolatuz, ezinduei laguntzea, miseria erremediatzea: horra sozialismoa; hots, "ternura hacia el prójimo". Pentsaera eta sentieraon iturburua kristauago bide zen, marxista baino: "la tesis de que los socialistas defendían el mensaje original de Cristo, *de paz, de caridad y de amor*, apareció en muchos de sus escritos". Bidenabar: kristautasuna ere unibertsalista da.

Meabek luma zorrotza zuen eta izan zuen arrakasta galantik Euskal Herrian, gazterian bereberki. Madinabeitia, Larrainaga komunista (seminarista ohia), etc., kasu berdintsuak dituzkegu. Alegia, problema sozialaren beltzak buruz belarri enplegatzen zituenak, beste dena utzirik. Ez zuten beste preokupaziorik. Begi bietaraino hortantxe ari ziren, beste ezertarako asti gabe.

Abertzaletasuna, beste ezeren aurretik, egiazko problematik distraitzea, irudituko zaie. Ondorioz, arlote, kanpandorre filosofia, ataritik aurrera irten gabeko, baserrizulo. Haientzat benetako problemak, problema modernuak, sozialak bait ziren eta beste ezer ez. Errealitate garbia da, sozialistek, euskaldunek ere, ez zutela Euskal Herriaren axolarik, hau nazio den aldetik. Imanol Laspiurrek Eibar-ko sozialisten ganean hau idatzi digu: "Berezko haien euskalduntasunak ez zuen, halare, euskal zaletasunik lantzen, euskaldunak izanik hain zuzen, horixe ziren-eta izatez, euskaldun hutsak, besterik gabe. Euskal abertzaletasunak aitzitik zekarren euskararenganako eta euskal herri baloreen alderako ekintza nahirik ez zen, internacional zeritzaten sozialista horien artean, bat edo beste kenduez gero". Izan euskaldunak ziren, izate soilez; euskaldun izatea problema politiku izan zitekeenik, ez zuten planteatu.

Funtsean ez zutelako politikuki pentsatzen, sozialki baino eta sozialki bakarrik.

Alderdi Sozialistaren sortzaileez hau irakurtzen da *Historia del PC de España*-n (Varsovia, 1960, — Alderdi K-ak berak aterea): “El grupo fundador del Partido Socialista estaba compuesto de obreros en los que desde el primer momento predominó una tendencia *economista*, sindicalista. A pesar de sus propósitos de constituir una organización *política* sobre la base de los principios marxistas, su escasa formación teórica les llevaba a concentrarse exclusivamente en las reivindicaciones prácticas, inmediatas...”

Abertzaletasuna —politikua beste ezer baino gehiago— haien mundutik kanpora gelditzen zen; haien ikusbitarte sindikal-sozialistan ez zen kabitzen.

Hasieran, espainolismoaren kausa bezala (hirugarrena) ideologia sozialistaren tankera aipatu dugu; eta, geroxeago, itxuraz kontraesan bat kometatuaz, hemengo sozialismoa ez-ideologiko zela, esan dugu. Ordua da korapilo hau askatzeko.

Ideologia hura, ideologia baino gehiago, joera bat zen, sentiera ilun bat. Mistika bat. Grina. Kalentura ere. Eta, guziaren gaintetik, inspirazio bat. Ideia bat. Arana Goiri-rekin bezalaxe, Ideia eta ideiak berezi beharko genituzke sozialistaokin, lehen hura guziz onartuaz eta ez besteok.

Gogoan hartu behar orduko sozialismoa. Sozialismo utopiko zela, esango genuke orain. Progresismo *naif* batez betea. Baina ordukoak sinestuta zebiltzan, zinez, laster mundu guzian Estatu bakarra besterik ez zela egongo. Lege bakarra guzientzat: zer axola haiei, Foruekin oraingoz zer gerta! Naziotasun diferentziarik ez zela egongo: herri bakarra lurbira osoan eta gizon guziak berdinak. Hizkuntza ere bat bakarra edonon (mugimendu esperantistak indar haundi hartu zuen). Hau da, berdintasun sozialaren esijentziak, diferentzia oro mespretxatzera eta erabateko,

zeharoko berdintasun orokarrera zeramazkien, egun esango genukeenez. Pentsamolde kontrastaria: diferentzia ikaragarriak daude?, ba, diferentziarik batere gabeko gizartea nahi dugu... Beren preokupazio nagusia ezberdintasun sozialak bait ziren, diferentzioro gorrotoz, inolako diferentzia gabeko eta berdintasun oso-osoko etorkizun bat proiektatu zuten gerorako beren xede, jomugetan. Errealitateari justu bere kontrarioa kontrastatzen zioten. Diferentziak ere diferenteak izan daitezkeela, ahazten zitzaizkien; eta diferentzia oro negatibutzat hartzen zuten. Meabe kasu nabarmena da. Bera izango dugu, abertzaleekin polemika gehien erabili zuena. Eta abertzaleei eragozten ziena, preokupazio sozialik eza eta gogorkeria ziren. Kontrajartzen ziena: gizarte sozialista unibertsal bat, bake-bakean, aberri gabe, arraza diferentzia gabe, gogorkeria gabe eta zapalketa gabe, anaitasun unibertsal ederrenean. Ez zuen inolako aberri konzepturik eta ez aberri sentimenik onartzen. “La patria es un error tradicional transmitido de viejísimas generaciones”. Bistan dago, eritziok bere helburuetatik atera dituela, ez azterketatik eta azterketatik atera helburua ere. Aberri partikular batek, izan ere, zentzurik ez du, buruan aberri unibertsala besterik ez edukiaz gero.

Kanpandorreko saguzahar arraro batzu iruditu behar zitzaizkien sozialistei abertzaleok. Arraza kontuekin, beti aspaldiko euskal historiarekin gora eta behera, Foruak zirela eta ez zirela, euskararen antzinakotasuna zela eta ez zela, baserrizale eta elizazulo. Sozialistak ziren unibertsalisterekin! Abertzaleak, beti aspaldiko gauzak ahotan, ipuin zaharrak. Sozialistak, etorkizun zabalera begira, ez iragenera. Abertzaleak, ideia modernuen kontra. Dantza modernuen kontra. “Euskal” dantza eta musika aspergarriak maite, habanerak eta maite ordez, “mundu guziak” bezala. Abertzaleak euskaragatik kezka, hizkuntza kaskar eta arlote horrengatik, baserrietan baino ez bait du balio. Eta nolako buruhausteak zerabilzkiten, gero: hitzen garbitasuna eta... “Terminachos”. Sozialistek bazuten aurreragorik. Problema horien gain-gainetik sentitzen ziren (barruan

ez dauden denek, uste izaten dute, problemaren gainetik daudela). Sozialistak ez zeuden kaskarkeria horietan denbora galtzeko. Sozialistak munduaren geroaz axolatzen ziren. Mundu berri-berri bat egitera zihoazen. Mundu zabalak zuten beti begien aurrean. Irikiak ziren, buru eta bihotz zabalak. Eta ezerk harrotzen bazituen, beren zabalatasun horrexek zituen harrotzen. Halako goi eta gehi konpleso batez betetzen zituen. Beste guzien aldean oso progresista sentiarazten zituen. Oso plaza mutil. “Euskalerriguzia, Eibar izan ezik, abadien menpian dago”, esaten du norbaitek Agirrerren *Garoa*-n, Eibarko mitin batetan. Nolako satisfazioz esan ere... Horixe zuten eta beren punttua!

Sozialistek *progreso*a eta *mundu guzia* aipatzen zituzten hitzetik hortzera eta harro-harro sentitzen ziren. Ez zen edozer gauza haien “ilustrasioia”! Abertzaleak, berri, beti konpleso ikaragarri batekin zebiltzan, disimulatu ezinda, aitortu nahi ezta, hain “atzerakoi” eta “base-rritar” zirelako. Progresismoa sozialisten monopolio zen. Abertzaleek, abertzale jokatu beharra ikusten zuten, ikusi; baina lotsagarri zitzairen, beren ahalegin guziekin, euskara arlote hartaz, aberri zahar honetaz, euskal historia pobrez, etengabe ihardun beharra. Euskara: antzinakotasuna eta bitxitasuna gorabehera, edozeinek ikusten zuen haren miseria. Historia: gauza iluna, historigileek berek oso era ezberdinetan interpretatzen duten komeria, oso loriazko historiari ez behintzat inola ere. Azkenean, abertzaleetasunaren “oinarri zientifiko” bortitzenak ez ote ziren etnologoenak? Norbaiti nonbait kasualitatez hezur zahar bitxi pare bat aurkitzea suertatu zitzaiola, eta bestela inori inporta ez zaion odol mota guziz aparten baten bitxitasuna etnologo horiek begi biak haundituaz aipatzen dutela, hori ote da abertzaleetasunaren “oinarri zientifiko” guzia?

Oso guti zen hori, sozialisten teoria unibertsalen aldean...

Bestalde, optimismo hori dena ez zen teoria eta haize

hutsa. Hortan insistitu behar da. Solidaretasun sozialista orain ez bezala sentitzen zen (Iraultzaren urbiltasuna ere orain ez bezala sentitzen bait zen). Bazetorrela, uste zen, Iraultza, mundu guzian. Sobiet Batasuneko gorabeherak etxeakoak bezalaxe sentitzen ziren. Liverpooleko proletarioen burruka Eibarren bertan egiten ari balitz bezala sentitzen zen. Festaren eta iskanbilaren erdian, *Viva Rusia!* oihu egiten zen... Garbi esanahi politikurik ez, baino mistikua duen *Viva Rusia bat*, "Viva la Unión de Repúblicas socialistas soviéticas" garraisia konplikatuégia bait da, bihotzari lasaialdi bat emateko...

Sozialistek, Toribio Etxebarriak dioena, euskal interes berezien ardura politikurik ez zuten. Euskal Herriko errealitate kultural, historiku, sozialen azterketarik ere ez zuten. Sozialismoaren teoriak mundua aipatzen du. Sozialismoa mundu teoria bat da. Estatuak berek, teoria horretan, teorian bederen, inportantzia haundirik ez zuten, berehalaxe hil eta desagertu egin behar zutelako ezpada. Herri ttipirik aipatu ere ez da egiten han. Orain Estatuak daude. Estatuok desegin eta Estatu bat bakarra ezarri behar da mundu guzian. Birrindu dira, orduan, diferentzia denak. Hori zen sozialisten asmoa.

Ederra, asmoa. Praksian, sozialisten ikuspideok, euskal politika zeharo eta erabat politika espainolera erreduzitzen zuten nahitaez. Mundu Estatu berria egiteko, lehenengo Estatuak desegiteko (omen!) ahaleginez, Estatu horrexen politika egiten da edonola ere. Estatu unibertsal hura sortzen denean, ez dakigu, zer izango den. Baina, bitartean, planteamolde horiekin, oraingo Estatuok dira, beren politika eginarazten dutenak... Batzuek alde, besteak kontra: baina Estatuon politika.

Bukatzeko, espainolismo sozialistaren beste arrazoi bat aipatuko dugu (oraingo hau, kausa eta ondorio batera). Sozialismoa etorkin ideologia zela, esanez hasi gara. Konstatazio hau, alderantziz, honela irakur liteke: **SOZIALISMOAK ALDEBAT UTZI DITU EUSKALDUNAK**, baz-

tertu egin ditu euskaldunak, haien situazioari batere ez egokitzean.

Zitekeen momenturik okerrenean heldu da sozialismoa Euskal Herrira; zitekeen erarik okerrenean; eta zitekeen pedagogia okerrenaz.

XIX-gn mende azkenetan, orduantxe gerra galdu zuen herria genuen Euskal Herria. Foruak ere galdu berri zituen. Eta gerra aldi luze eta gogor baten ondorioak, galtzailearen ondorioak, sofritzen ari zena. Halako herria zein momentu psikologikotan dagoen, erraz asma liteke: galdu duenaren mina, ez da euskalduna bakarrik.

Karlistadak ez ziren euskaldunen eta espainolen arteko gerra soil. Baina eite hori ere bazuten jende askoren begitan. Foruak, egin ziren moduan, ezabatu zirenean, inpresio hura hainbat bortitzago bihurtu zen. Eta sozialismoa hain zuzen espainol horietxen ideologia bezala agertu zen. Euskaldunak, diotenez, ez ziren kristautasunera konbertitu, mugetan bisigotoak eta frankoak zebiltzan artean, kristau bait ziren horiek. Mugan mohamedanoak agertu zirenean, berehalaxe konbertitu omen ziren. Horrelako zer-bait gertatu da sozialismoarekin. Espainolak sozialista ziren artean, euskalduna ez zen sozialista egin.

Integrazioaren problema, inork sentitzekotan, sozialistek sentitu behar zuten. Eta, inork egitekotan, sozialistek ahalegindu behar zuten integrazioa iristeko. Ez dute ezer egin, ordea. Aitzitik, abertzaleek aina meritu egin dituzte, integrazioa eragozteko lanean, —euskaldunak arbuatuaz, sozialistaok.

Sozialismoak irtenbiderik ez du Euskal Herrian etorkinen eta bertakoen integrazioa lortuaz baino. Orain arte ez bait da lortu. Okerrago, batzuek ala besteek hautsita-ko kristalak, hautsita gelditu dira.

Integrazioak, ordea, irtenbiderik ez du, edo 1. Aranak nahi zuen bezala: maketoak likidatuaz, edo 2. sozialista klasikuek nahi zuten moduan: euskaldunak likidatuaz, edo

3. abertzaletasun benetan sozialista eta sozialismo benetan abertzale batez, ezpada.

Sozialismo abertzalea: beste irtenbiderik ez dago, ez sozialismoarentzat eta ez Euskal Herriarentzat.

ESTATUTU ARAZOAK

Ez daukagu luzatu beharrik, azken denboran azterketak ugaritzen ari direnez gero gai honen gainean: Jimeno Jurio, J. M. Castells, Larumbe, etc.

Xit eskematiko, puntuotara mugatuko gara hemen:

1. Konstituzio errepublikanoa bururatu zenean (II-gn Errepublika), sozialistek eragotzi zutela Espainia Estatu federal bilakatzea.
2. Lehenengo Estatutu proiektua, Lizarrakoa, ez zela “askatasuna konkistatzeko” biderik, biderik ez zegoelakoxe asmatu zen ordezkoa baino: beste biderik ez zegoelako hartu zen bidezidorra. Eta Lizarrako Estatutu proiektua sozialistek zapartatu zutela.
3. Bigarren Estatutu proiektuaren elaborazioan —Komisio Gestoreena— sozialistek parte hartu zutela; baina, gero, sozialistek ez ziotela behar bezala apuiatu eta, gainera, sozialistek sortu zutela modua, azkenekoz Nafarroa alde bat gelditu zedin.

“Mugimendu regionalisten” gora ikusirik, Alderdi Bilzarre berezi batetan sozialistek hartua zizuten “autono-

mien alde” erabakia, 1931-eko ekainean. Trenak ihes egi-
ten zien, bestela. “Sin embargo —komentatzen du S. Va-
relak—, tanto al discutirse la Constitución, como más tar-
de el Estatuto de Cataluña, las mayores críticas que, des-
des dentro del bloque gubernamental, se pronunciaron con-
tra las concesiones del Estado central en beneficio de la
región autónoma vinieron precisamente de los socialistas”
(ik. *El problema regional en la Segunda República Espa-
ñola*).

Ikusi ditugu sozialisten ikusguneak eta ikuspideak.
Abiaburu haietatik zer dinamika desarroila zitekeen, izan
ere? D. Ibarrurik honela epaitu du sozialistaon “joko gar-
bia”:

...Los partidos republicanos y el Partido So-
cialista, en lugar de defender el Estatuto de Ca-
taluña... como una causa de interés común para
toda la democracia española, presentaron el Esta-
tuto como una desgracia para España, que no se
podía eludir por la “intransigencia catalana”.

Sozialistaontzat, Estatutuak zoritxarrez eman egin be-
har dira, baina zoritxar haundiagoak ebitatzeko... Ezinbes-
tezkoa, baina zoritxar haundia bait da, Espainiaren bata-
suna era horretan lazatzea...

Atariko, federalismoaren asmoa likidatu zuten sozia-
listek, haren ordeztu “Estatu integralaren” fantasma asma-
tuaz: gero Estatutuen bidea besterik utziko ez zuena, pro-
blemak zuzenean zuzendu ordeztu, okerka eta zeharka zu-
zentzeko. Duda gabe, XIX-gn mendeko liberalen antife-
deralismoak asko pisatzen zuen oraindik haien gainean eta
haien laguntzaile intelektualen gainean (Ortega, Unamuno,
Jimenez de Asua, Araquistain...): sozialistek intelektualoi
jarraitu bait zieten, problemak hitzez eta paperez eta kon-
zeptu kuriosoz (“Estatu integrala!”) ederki konpontzeko,
—lehengo moduan utziaz. Ikusi dugu, nola intelektualok
ideologia “Espainiaren redentorista” batetan murgilduta

zebiltzan, guziaren gainera “Espainia redemitu” beharrez. Ortega buru. Eta gure Unamuno buruen buru, Konstituzioaren eztabaidan *actitudes tan marcadamente centralistas* agertu bait zituen, J. M. Castells-en esanean.

Beraz, hasteko, federazioa gabe gelditu ginan. Honek esan nahi duena, konkretu, hauxe da: Galiziak, Euskadik eta Kataluniak, beren Errepublikak sortuaz hasi ordez (beren buruen jabe baldin badira, egitea dagokienez), Estatu *kontzesioaren* bide neketsutik jo beharko dutela. Alegia, hemen ez daudela, denak printzipialki berdinak diren nazionalitate batzuk, elkarrekin elkartzen direnak; ezpada nazionalitate toleratu batzuk eta nazionalitate ofizial bat, bat hau Estatu integrean bere buruaren jabe oso eta gain dena, besteak kontzesio “berezi” batzuekin etsi beharko duten artean.

Apirilaren 17-an Gernikan Bizkaiko Udaletxeak bildu ziren, erabakiaz, *constituir un Gobierno republicano vasco vinculado a la República federal española*. (Katalanek Generalitatea proklamatu zuten.) Gobernuak alkate biltzarre hura baliagabeztatu egin zuen eta, handik egun batzuetara, euskal Errepublikaren biderik uzten ez zenez gero, Eusko Ikaskuntzak, apal-apal, Lizarrako Estatu izango zena lantzen hasi behar izan zuen. Madrilen nagusitasuna era guzietan ongi aseguraturik zegoen. Hemendik aurrera, autonomiak heteronomiak izango dira; batez ere autonomiak limosnak izango dira, gehienbat gogo txarrez eginak, burrukaz lortutako limosnak; ez bi buru soberano arteko hitzarmenak.

Cuando los partidos republicanos o los socialistas españoles dificultaban el otorgamiento de tal o cual facultad a la región autónoma, solían señalar los peligros que esa concesión entrañaba para la unidad nacional o para la soberanía del Estado español (S. Varela).

Ortegak —zeini bait zioten jarraitu sozialistek puntu honetan— “arcaica y perturbadora de los nuevos destinos

españoles” zeritzan federalismoari (begira nondik nora be-
ti destino espainol miragarri horiek!). Zer duda, Ortega
arrisku katalanak ikaritzen zuela: *el «peligro» catalán*. Eta
sozialistak ere bai. Kataluniako Estatutua Gorteetan ezta-
baidatu behar zenean, “volvieron a reproducirse las difi-
cultades que la autonomía encontraba en los socialistas.
En el seno del Gobierno, Indalecio Prieto manifestó con
insistencia su oposición al Estatuto, hasta el punto de ha-
cer peligrar en más de una ocasión, con este motivo, la
supervivencia de la coalición gubernamental. Lo más que
se consiguió fue que esta actitud no trascendiera excesi-
vamente a las Cortes, donde los socialistas guardaron un
mutismo casi absoluto a lo largo de toda la discusión del
proyecto...” (Varela). Castells berdintsu mintzo zaigu:

Cara al “hecho catalán”... se formó un espa-
ciado frente parlamentario que intentó aniquilar,
o al menos rebajar, las propuestas de aquel terri-
torio. Las alegaciones frente a la reivindicación au-
tonomista fueron de muy variada clase...; predomi-
naron las maniobras de distracción, consisten-
tes en desplazar el objetivo dialéctico a ámbitos
diferentes del regional, naturalmente con la encu-
bierta pretensión de desconocerlo...

Pero la oposición frontal a la reivindicación
autonomista, provino de sendas enmiendas de los
socialistas LARGO CABALLERO y PRIETO, que
incluso llegaron a hacer peligrar la solución de
compromiso final.

Sozialistek, alegia, teorian zerbait aurreratu dute, le-
hengo beren sozial-inperialismo fanatikuaz alderatzen ba-
ditugu behintzat: “autonomien alde” agertu dira Biltza-
rre baten erabaki paperetan. Baina autonomiak “onartze-
kotan” soil, ez berek ahalegiteko asmoz. Autonomiak onar-
tzen dituztela, ez du esan nahi onesten dituztenik. Tole-
ratu egiten dituzte. Eta nazionalitate zapalduak, autono-

mia minimu hori, bizi ahal izateko behar badu, “salba dadila bera!”, esaten dute. “Salba dadila bera” esaten duen midikurik, zertarako behar du gaisoak?

Errazago da hezur-muinetaraino zentralistaontzat batean autonomiak abstrakt onartzea, ordua datorrenean autonomiari bide uztea baino. Sozialistek ahalik eta beregaintasun kaskar-kaskarra eman nahi zieten regioei, eskualdeei —berek hala esaten zuten—, “Espainiaren beregaintasuna” inola ez mozteko. Hori bait da Estatutu sistimaren oinarritzko gaitza eta kalamitateak. Estatutuak Aginpide zentralaren murrizturak bezala dira. Aginpide zentral soberanoak, tratu neketsu eta konplikatuen buruan, toleratu egiten dituela autonomiak, ez printzipialki eta hasiera-hasieratik nazionalitateon eskubidezkotzat onartu, Estatuko nazionalitate guzien eta bakoitzaren buru-jabetasuna oinarri gisa aitortuaz eta hauen artean, berdinetik berdina, ituna erabakiaz nola bizi elkarrekin. Konstituzioa (“Estatu integrala”) ez da nazionalitate arteko itun eran sortu, baina Espainia omen den “ente unitario” abstraktu, metafisiku horren izenean eta inguruan; eta, *gero*, hala-holako autonomia batzuk ere onar daitezke, *ente unitario* horren buru eta Aginpide denak ahalmenen batzuk eta zereginen batzuk *delegatu* nahi izango balizkio eskualderen batetako Aginpideari, bere ordeez... Plurinazionaltasunari dagokiona, sistema honetan, ez da Konstituzioa, Estatutuak baino; oinarri eta arau, batasuna da, nazionalitateak salbuespen gisa edo kontsideratzen direlarik. Hau Errepublika unitarista da; Errepublika zentralista gogor bat, gaizki bigunduta.

* * *

Jeneralean Autoreek, Euskal Herriko historigileak barne, handik eta hemendik biltzen dituzte datuak eta leku-kotzak, baina ez daturik eta ez lekukotzarik bilatzen dituzte euskal literaturan, hemen historiak oina jarri ez balu bezala eta aztarrenik utzi. Horregatixe, eta polita delako,

eta Lizardirena delakoxe, pasarte luze bat aldatuko dizut honera. Ortégaren Gortetako interbentzio bat deskribatzen digu. Testu interesgarria, euskaldunek Estatutu katalanaren arazoa nolako bihotz-pilpiraz segitzen zuten ikusteko. Berena balitz bezalaxe. Berenak, ordea, ez zuen katalanak aina suerte izango Gortetan. Irakurgarria, orobat, garaiko giroaren lekukotza bezala ere (gaztelanismo harro, jaun akademikuen itzal haundi, etc.):

Ordun Besteirok [Lehendakaritzan bera ari da] itz ernerazgarri ok yalki ditu: "Ortega Gasset Yoseba yaunak du aldi".

Gizontxo bat zutitu da, Unamuno ta Maura tartean. Arraioa!, onixe ez nitxion bada nik begi-eman. Ta bera duk orratik: gogai-eltze aundixkoa atxe-samarretik ille orraztuz ebakia, bekain-lerroa aldero antxa, itsusi aurpegiz, elez eder.

Atseginez, esertokian ipur-kabia sakontxeagotu dut. "Ez diat zorion makala", diot nereko.

Ordu bete t'erdian aritu da. Unamunok, noizean bein, alako begirakun bixia botatzen zion, esan nai balio bezela: "Ez, konpañeo: nik ez nian orrela esango; nere aldean mutil-koxkorra aiz!"

Urrengo egunean, Madrیدهko izparringi batek ala zion: "Beti bezela, orain ere, buruz ezer deza-teken gizonak, gaztelarrak: Sánchez Román, Ortega Gasset..." Bereala, Unamunoren begi bixiak berritu zitzaizkidan.

Tayuz itzegitea korapilloak askatzeko aski baltiz! Baña, besteri poza ta aupegi alaia eskatzen dizkion gizon orrek, Catalunya arloa goibelki, illeta-eresiz, aurkeztu digu. Erabat zuzengarria ez omen da, alegia; minsorrez eraman (!) bearra baltzik. Catalunya erri *nai-ta-ezin* bat omen da: betidanik eta mendeen ondarretaraño goranaiaren oinaze bizia berekin ibilliko duna.

Erri aundien eta txikien abertzaletasuna ez omen dira gauza bera; iturburu batetikoak bai, alegia; baina, aundiena eraikitzailea (!) bestea ondagarria (!): batak gora (!) begiratzen, besteak bêra (!).

Asmakunde polita, benetan.

Kataluñarrek ez omen ditute beren buruak españitarren anaitakotzat; argatik korapillo aren ezin-askatua; argatik estatutoaren muin izkutua askatasun-asmoa izatea. Baña, bereala berriz, kataluñarrik geienek muin ori gogoko ez dutela esan digu.

Catalunya osoak ala nai izanda ere ordea, zer?... (Ortega ari da). Aiek gu maite ez, baña guk anaitzat baditugu, bidezko al litzake, gu geiago izanik, gure nai ori ez nagusitzea?... aiek anai ez ditugula epaitzea?... Au ere ez dago gaizki esana (orain ni ari naiz) [Arrazoipide jakobino hau lehenago beste formula honetan adierazi ohi zen: *la fraternité du la mort!*].

Baña, dana dala, zerbait eman bear zaiela aitortu du. Buru-yabetza apurrik gabe (!), aldika-aldika (!), besterik eziñak eska-ala (!), zenbait eginbide utzi (!) bear omen zaizka.

Orratik, irakaskintzakoan onetsi zabala eman du: bada zerbait. Españak Catalunyan ezer gutxi egin omen du —zer esango guk!—; Barcelona añako uri batean, Cuencan ala Sorian bezelaxe, “Instituto” bakarra, Doitxerrian berrogei ta Prantzian amalau legozkiolarik. Ta, irakaskintzari buruz bezela, gañontzeko gaietaz esan omen liteke.

Luzexko egin arren, guziok ixilik entzun diogu. Azkenaldera, txalo anitz; mintza-bitartean, batere ez: guziak erne, baña iñor ez da berotu.

Campalans kataluñar sozialista yaiki da urrena. Estatutoaren alde. Ele-eder aren ondotik itzegin bearra ez du lan atsegina, noski, ta egia aitortu bear badet, gizagaxoak, lasai-samarra dirudian arren, izerdi ederrak atera ditu; aria nondiknora zebillen, berak ere nekez âl zekian. Eseri danean, ez duzu asarre.

(...) Estatutoa orain, berriro. Batzordearen izeanean, Bellok azalpen batzu egin ondoren, Abadal, Lligakoak, itzegin du. Yatorki-samar, arraioak ez badu. Aguretxo bat duzu, oso begikoa. Ingixka batzuei gaibidea noizik-bein eskatuz, or ari dugu neke aundirik gabe.

Ortega Gasseten eta Sanchez Romanen asma-kizunak poliki-poliki autsi ditu, Españako Lege Nagusia eskuan artu utsarekin. Ez-arian bezela, orretzek bota ditu gaur arratsaldeko arrazoirik mardulenak.

Beste gauza askoen artean, Ortegari onelakoak bota dizka: "Orain zenbait urte, guk, Lligakoak bakarrik, autonomia eskatzen genduenean, gutxi ginala erantzuten zeniguten: gu ez ginala Catalunya. Pixkanaka, ango alderdi guziak abertzaletu dituzu, ta orain emen gaude guziok, kataluñatar aldun oro bat-eginik, lêngoia bera eskatuz. Ori gutxi dalarik, erri-iritzia nai zenduten eta egin da: Catalunya osoak Estatutoaren alde bota du... Eta zuek, antzinean bezela, gu ez gerala Catalunya, diozute: geienak ez daudela, Catalunyan ere, gu-re alde. Zer bear duzute bada? Zeok egindako Konstituzioa etzazue ukatu, bai, eta aski dugu".

* * *

Pasa da nolabait Kataluniako Estatutua, eskuinak ala ezkerrak aurretik oiloa poliki lumatu badute ere.

Euskal Estatutuak, aldiz, hasi eta zerraldo lur jo du, lur gainean zutitu baino ere lehen, *Lizarrako Estatutuak*: erlijio hauzi bategatik. Estatutuaren alde benetan lan egi-ten ari dena PNV da. Sozialistak begira-begira daude bar-rreratik. Abertzaleek Vatikanoarekin harremanak aparte nahi dituzte Euskadirentzat. Sozialistek, ezetz. Behingoz bederen sozialistek bazuten itxurazko arrazoi bat Estatu-tuari zankadila jartzeko (Konstituzioaren 14-gn artikulua Aginpide Zentralari erreserbatzen zizkion Estatu espainol eta Vatikano arteko harremanak); Vatikanoarekin harre-manak gorabehera, erlijio politika guzia bait zegoen hau-zitan.

Vatikanoarekin harremanak berak zuzenean izateari PNV-*ez zergatik ematen zion halako inportantzia, nekez konprenitzen da gaur, alde batetik; eta ondoegi konpre-nitzen da, bestetik: hori errealitate bilakatu izan balitz, beharbada Elizak beste paper bat jokatu izango zuen 36-an. Baina ote-otezko eta balirazko olak dira horiek. Ez dute burdinik. Azken finean, kontua da, PNV katoliko herstu kontserbazale batzuei gehiegi begiratzera behartu-rik zegoela, Estatutua aurrera ateratzeko, bere eskuin al-dera; ezker aldera, ordea, hain zuzen puntu horretantxe konpromisorik onartzen ez zuten sozialistak zeduzkala.*

Bestalde, zer inportantzia zuen puntu horrek sozia-listentzat? Inuzentekeria haunditxoa da gorabeheraotan PSOE-k progresista papera bakarrik jokatzen zuela pen-tsatzea, batzuek, PNV-ren kontra joatearren edo, sinesta-razi nari liguketen moduan. Berez, bost axola zitzaizkien sozialistei Vatikanoarekin harremanak. PSOE-k batez ere PNV-ren poderioa gonbatitzen zuen Estatutuaren inguruan; PNV-ren indarra kraskatu nahi zuen. "Nunca tuvo inten-ción la coalición republicano-socialista de que el mismo grado de autonomía que se concedía a Cataluña pudiera aprovechar también al País Vasco. Según Iturralde, ya en 1930, el Comité Revolucionario había acordado a ins-tancias de Indalecio Prieto que solamente las regiones in-

equivocamente controladas por la coalición podrían ser autónomas” (S. Varela). Alderdi interesok beren partea zuten eta ez ttipiena.

Beraz, hauzia ez zen Vatikanoarekiko harremanetara mugatzen eta ez erlijio arazo arruntera ere. Alderdi arteko elkar lehiak eta norgehiagokak zerikusirik bazuen franko.

Adibidez, urteotan ia erotu gara, Nafarroa Euskadi ote den ala ez. Begira nola hasi zen komeria hori: “El punto final de esta primera fase lo pondrá el Decreto de 8 de diciembre de 1931, cuya redacción se atribuyó posteriormente al propio PRIETO. Esta norma equivale a la más absoluta desautorización del procedimiento seguido hasta este momento en el proceso estatutario, concretamente de la labor protagonista del movimiento de Ayuntamientos. Igualmente, planteaba cierta cuestión previa de auténtica novedad, que implicaba un posible elemento distorsionador, en mayor medida cuando la exposición de motivos parecía decantarse por una de las soluciones, en base a peculiaridades forales; la cuestión planteada era: Estatuto uniforme para todo el País Vasco, o un Estatuto para cada provincia. Dice así, un párrafo de dicha exposición:

El Gobierno no debe prejuzgar si esa autonomía ha de legalizarse en un Estatuto uniforme para las tres provincias Vascongadas y Navarra o si, por el contrario, se articulará en un Estatuto por cada provincia, respondiendo así al régimen tradicional, que, con peculiaridades distintas, tuvo por Códigos los Fueros de Alava, Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, cuya diversidad legislativa nunca debilitó los vínculos fraternales que en todo tiempo unieron a las cuatro provincias, y por ello, el Gobierno, respetuoso con la voluntad de aquel País, deja a su albedrío esa resolución, invitando-

le a optar por un Estatuto uniforme o por Estatutos diversos.

El procedimiento de formación del nuevo proyecto estatutario significaba una complicación superior a la trifásica establecida en el artículo 12 de la Constitución; el recelo gubernativo se mostraba así con la mayor evidencia” (J. M. Castells).

Ipini da behaztopoa bidean. Abilki ere bai ipini! Hor behaztopatarazi dute eta da erori muturrez aurrera Nafarroa. Eta Araba, oligarkiak bere ahalak eta bost egin arren —sozialistek Gobernutik bertatik jokia egiten ziotela gainera— nahiko larri salbatuko da. Castells baitan —*El Estatuto Vasco*— ikus daitezke goitibeheitiok.

Lehenengo proiektuak porrot egin du. Beste bat prestatu beharko da.

BIGARREN PROIEKTUA-ren prestaeran sozialistek biziki esku hartu dute: prestamen komisioan sozialistek osatzen zuten talde haundiena. Sozialisten gustuko proiektua bururatu zen, hortakoz.

Baina honek ere lur joko edo erdi joko du: erlijioagatik berriz ere, eta eskuindarrengatik oraingoan. Hau Estatutu laikua zela, ateo zela eta Jainkoaren irain bat zela, eskuindarrak Estatutuaren kontra altxako dira berek “Prioreten Estatutua” bait deritzate hari.

Sozialistek, berek prestatu eta beren izenean eskuinek erasotzen dioten “Prioreten Estatutu” hau su eta fu defendatuko zutela, usteko duzu? Bai zera... Berriz ere PNV-ek ahalegindu beharko du. Sozialistek, Estatutu honen alde ere, epel-epel eta txepel jokatuko dute. Izatekotan, hola-koxea izan dadila; baina izan dadin ala ez dadin, berak ez dira gehiegi izerdituko.

Es en Navarra, donde el ímpetu contra el Estatuto alcanza mayor virulencia, en acción combinada de toda la derecha antirrepublicana y la

aquiescencia afirmativa de socialistas y anarquistas, fuertes en la Ribera... (Castells).

Azarola radikal-sozialistak —“calificado por Arraras con el título del más tenaz impugnador del Estatuto vasco”— eta bitxi-bitxiki (ala ez?) eskuinak lagundurik, Nafarroa beste hiru probintzietatik etetzea lortuko du—, “la actitud de los tradicionalistas, haciendo causa común con los socialistas, significó que por esta mayoría de votos de representantes municipales, y no por ningún plebiscito o votación popular como han mantenido algunos interesados, Navarra avanza por caminos propios con visibles repercusiones posteriores” (Castells).

Castellsek V. M. Arbeloaren eta P. M. Larumberen epaiok dakartza oraindik:

[Sozialista nafarrak] fueron desleales con sus compañeros de las Comisiones Gestoras y hasta con los mandatos del partido. Votaron en todo caso como les aconsejaban sus acérrimos enemigos de clase [hemen ere klase interesen gaintetik nazionalismoa..., hots, xobinismoa]. Republicanos y socialistas confiaron demasiado, dentro de su aislamiento, en la perennidad del Gobierno centralista de Madrid” (Arbeloa).

No voy a analizar aquí por qué Navarra en aquel momento del Estatuto, después de la aprobación del proyecto de Estella, en la Asamblea de Pamplona, se apartó, le hicieron apartarse y cuáles fueron las fuerzas que propiciaron el que Navarra quedara aislada. Tendríamos que recordar algún periódico, a muchos partidos de los denominados por los catalanes como sucurselistas, etc., para llegar a la idea clara de que Navarra fue dolosamente apartada (Larumbe).

Gero, berek sekula platerik hautsi ez balute bezala,

gauzak horrelaxe direla, Estatutua Nafarroarako ez zela, etc. argudiatuko dute sozialistek.

Gerra ondoko aldizkarietan, aklarazio ala deklarazioetan nahiz erabakietan, sozialistek —eta komunistek berdin egingo dute— ez bakarrik ez dute Nafarroa Euskadi kontsideratzen, baina, beren arrazoipide guzietan, interes kurioso bat nabari zaie, Nafarroaren berezitasuna, orijinaltasuna, bestelakotasuna eta, azken finean, ez-euskaltasuna azpimarkatzeko aldez ala moldez. Kapitulu batetan bakarrik aurkitu dugu, Nafarroa erregular-erregulariki Euskadin sartzen dutela: euskal feudalismoaz aritzerakoan; halakorik izan den ala ez den, hauzian, baietz erakusteko, naturaltasun guziarekin aipatu ohi dizute Nafarroa Euskadi bezala. Handik atera ohi bait dituzte arrazoi eta erakusbide gehienak... Efekto horretarakoxe bakarrik ikusten diegu, Nafarroa Euskadi dutenik. Gero, aldiz, post-frankismoan, eguzkiak non eman, han esegi dituzte zapiak.

Azkenean, bada, Nafarroa bazter gelditu da Estatutuen prozesotan. Zenbait istilurengatik, beste hiru probintzietan bozemaldiak berritu egin beharko dira. Oraingoan inor ez da Estatutuaren kontra azalduko hiru probintzietan, ofizialki behintzat. Estatutuaren alde agertuko dira ultraeskuinak berak. Prietok Estatutuari onerizten dio publikoki halaber. Berriz ere luzituko diren bakarrak, halare, sozialisten batzuk izango ditugu: Bizkaiko Federazio sozialistak abstenziora hots egiten du... Bitartean hauteskunde berriak suertatu dira eta Espainiaren beste salbatzaileak agintera zaizkigu: eskuindarrak. Gobernu berriarekin Estatutuak ezin aurrera irtengo du.

Errepublikako lehen Gobernaldiari —Estatuturik ez da lortu— kontaduria sinplea atera genezaioke: PNV-ek bere ahaleginak egin ditu derrigor Estatutua iristeko eta —ikuspidetara interklasista famatu haren arabera— eskuinekin ala ezkerrekin bat egiteko beti prest egon da, helburu hura lortzekotan. Aitortu behar da, aldi honetan burutsue-

na eta resultadu positiburik eman duen bakarra, ikuspide interklasista hura izan dela, gero sinplekiegi kritikatu izan bada ere. Duda gabe, postura eta fronte delimitazio bat gertatzen ari zen oraindik; Alderdien jarrerak ez ziren Euskadiri buruz oraindik aski garbitu eta erabaki, PNV-rena izan ezik behintzat.

PNV-ek ezin zuen Estatutua berak bakarrik eskura. Aliatu bila ibili behar izan du beti. Baina ez eskuinarentzat eta ez ezkerrarentzat zen beren lehenengo jomuga Estatutua lortzea. Bion jokabidea unean uneko taktikak erabaki du. Hasieran PNV-ek eskuinarekin elkartzeko zuen joera. Baina eskuina, Estatutuaren alde samar egotetik, geroz eta kontrago jokatzera pasa da; ezkerria, alderantziz, Estatutuaren geroz alderago agertu da, nahiz ez ailegatu haren alde garbi enpeinatzerara.

Eskuinaren garaitzapenak eta Gobernaldiak —“urtebi-aldi beltza”— lezio on bat eman die bai PNV-ri eta bai sozialistei. PNV-ek, eskuinarekin gehiegixko flirteatu bait du, harekin ez dagoela zer eginik, ikasiko du. PSOE-k, al diz, PNV aliatu posible gisa estimatzen ikasi beharko du.

PNV-eko abertzaleek ezin ulertu dute, atzo arte ain adiskide zituzten eskuinen gorrotoa Estatutu asmoari:

En la primera ocasión —idazten zuen *El Día*-k samindurik— en la que se ha puesto a discusión la autonomía vasca, todas las derechas españolas se han lanzado contra ella. Ni una sola de esas fuerzas, sedicentes católicas, se ha mostrado benévola para con la autonomía vasca.

PSOE-k, aldiz, Espainia salbatzearren hainbeste sakrifizio egin izan eta gero, hainbeste zentzu nazional agertu, hain eskuindar jokatu, eta ez zuen konprenitzen, nola hautesleriak halare ez zuen hori dena gehiago estimatzen eta Gobernutik behera zuen botatzen...

Nosotros creíamos —mindurikatzen zen Largo Caballero— que era nuestro deber sufrir lo que

hubiera que sufrir y aguantar por el sostenimiento de la República. Yo no voy a hacer historia de todo lo que nosotros hemos sufrido y hemos aguantado. Voy tan sólo a recordar que nosotros, socialistas, hemos sido tan leales, que... hemos contribuido, un poco a regañadientes, pero con la lealtad a que estábamos obligados, a que el Parlamento aprobase toda la legislación coactiva y restrictiva que hay en España. Legislación que irá, seguramente, contra los trabajadores; pero legislación que era necesaria para el sostenimiento del régimen. Nosotros, durante el tiempo que estuvimos en el poder, tuvimos con toda seguridad más muertos por la fuerza pública que en otras épocas en el mismo lapso de tiempo. Nosotros procuramos que no se produjesen huelgas que pudiesen trastornar la economía del país. Claro está que no podíamos cortarlas todas... El Partido Socialista y la clase trabajadora, consciente de España, no podrán olvidar jamás que, después de hacer lo que hicieron, se los haya despedido de la forma que se ha llevado a efecto.

Sozialistek, espainol guziek txaloka hartuko zituzten Espainiaren salbatzaile bezala, agertu nahi zuten. Baina Espainiaren beste salbatzailerik ere bazebilela, ikusiko da orain. Gizarte espainola bi salbatzailetan erdibiturik dago, eskuin ezker, indar berdintsukoak biak. Hemendik aurrera, gerrara arte eta gerran are gehiago, sozialistek abertzaleen laguntasuna bilatuko dute, *para el sostenimiento del régimen*. Azkenean sozialistak eta abertzaleak elkarren beharrean daude. Itxuraz, behintzat, aukera ederra Estatutua aurrera ateratzeko.

Berriro ezkerra agintera igo dadinean, Herri Frontea gogotsuago azalduko da Estatutuaren alde. Orain botako ditu Prietok hitz borobil gogoangarri haiek: "Todos aguardamos que el Estatuto sea un hecho, para alcanzar el cual

yo ofrezco mi aliento, mi alma y mi espíritu"... Estatutu Komisio berriaren buruzagi Prieto bera da. Euskal diputatuek laster aurkeztu zuten Gorteetan Estatutua... "Sin embargo, pese a esta generalizada confianza en una rápida aprobación del Estatuto, la tramitación parlamentaria del mismo vuelve a dilatarse sin motivación clara..." (Castells).

Gerrak eta ez bestek zuen azkenean ekarri Estatutua-
ren aprobazioa, *el sostenimiento del régimen* hartarako
arrazoi berri larri-larriak sortu ziren eta, sortu ere. Hola-
koxe arrazoiak behar ziren, nonbait, sozialistak noizpait
Estatutuaren alde benetan positibuki enpeinarazteko.

ALDERDI ETA ALDERDIKERIA

Sozialistak beren Alderdi interesen arabera portatu dira beti Estatutuari buruz. Ez dute inoiz pentsatu, Alderdi interesen gaintiko “euskal interes” bat egon zitekeenik. Eta bidezko da, beren politikan sekula ez bait dute oin hartu euskal nazioaren errealitate gainean. Euskadi ez da horientzat errealitate —nazio, herri— “soberanorik”.

Aitzitik, Alderdi interesak oinarritzen eta baldinpetzen dituen oinarrizko errealitatea, haien politikari sentidurik eta eremurik ematen dioena, Espainia da. Estatu espainola. Errealitate horrengatik bai, beti pronto egon dira —oroit Largo Caballero— edozein sakrifizio egiteko beren politikan. Pronto baino prontoago, Estatutuak murrizteko, trabatzeko eta eragozteko; eta errealitate harexengatik, azkenean, Estatuturik onartzeko pronto ere, baldinkizun historikuak aldatu zirenean. Printzipioak noiz eta nola sakrifikatu, konpromisoak noiz eta norekin egin, zer taktika eraman, beti Espainia santu harek determinatzen du. Bidea eta neurria beti Espainiak eman du.

Euskadi, aldiz, oinarrizko errealitate harek eskatzen duen eran eta maneran joka daitekeen karta da. Taktika kuestioa.

Euskal Estatutuek traba asko aurkitzen zuten Gortearaino ailegatzeko. Eta inoiz ailegatzen baziren, Gortee-

tako makinerian galtzen ziren beti; nola eta Espainiaren interes sakratuek ez zuten besterik eskatzen, gerra sortu zenean bezala.

Como es sabido, los diferentes proyectos de autonomía para el País Vasco no llegaron a ser discutidos a fondo por las Cortes hasta pocos meses antes de la Guerra Civil, siendo finalmente aprobado un Estatuto en octubre de 1936. Pero, ¿cuál fue la causa de esta ausencia o retraso de las decisiones parlamentarias? La primera respuesta es muy simple: nunca existió un interés suficientemente extendido e intenso en los partidos nacionales de que tales decisiones se produjeran (S. Varela).

Alderdi “nazionalak” interesik ez zuten. Eta Alderdi nazionalok, eskuineko ala ezkerreko, beti taktika obstruccionista bat eramango dute, nazionalitateekiko Estatutuak Espainiaren batasun sakratuari kaltegarri zaizkiolakoan.

Mende hasieretan bazen mugimendu foralista bortitz bat. Euskal Herriko Alderdiak batera zetozen: “Sólo los socialistas se mantuvieron en todo momento frente al movimiento foralista. Se les acusaría por ello de hacer el juego al Gobierno... Su actitud valió a los socialistas la simpatía de la prensa liberal de Madrid” (Fusi).

Bai mugimendu foralistaren aurrean eta bai Estatutu arazoaren gorabeheretan, PSOE-ren politika beti bere Alderdi interesek zuzendu dute, —Alderdi estatal eta estatalista baten interesek, hain zuzen: “...ya en 1930, el Comité Revolucionario había acordado a instancias de Indalecio Prieto que solamente las regiones inequívocamente controladas por la coalición podrían ser autónomas” (Varela).

Alderdi Sozialistak bazekien bere Alderdi interesak sakrifikatzen, Espainiak —eta nahiz Euskadiren okerrerrako izan— horixe eskatzen bazion. Bestea ez diogu inoiz ikusi,

hots, Alderdi interesak Euskadiren onerako sakrifikatzea. Badu bere logika: Espainiaren salbatzailearen interesek Espainiaren interesak izan behar bait dute.

Sarri ikusi dioguna bestea da: langile eta Alderdi interesen sakrifizioak egiteko prestasuna, abertzaleen kontra joateko bazen. Ikusi dugu, esaterako, monarkikuek Bizkaian egin zuten ituna. Une hartan, sozialistek bere zortera abandonatu zuten Pérez Solís, Valmasedako kandidatu sozialista (“que representa una tendencia mucho más terrible” sozialisten ofiziala baino, Bergéren eritzian), monarkikuen komenentzietara makurtzearren. Politika laboral guzian ere, patronalarekin konpontzeko, moderazio haundiena erakusteko eta Balpardak edo José Félix Lequericak txalotzen zuten “política de equilibrio social” bigun hura egiteko, gertu egongo dira. Patronalarekin eskuz-esku, eginahalak eginen dituzte ELA zanpatzeko; esicados o afiliados a Solidaridad de los Obreros Vascos o jituaz, alegia, “la expulsión de los trabajadores no sindi-sindicatos católicos”. Eta, nola ez: “Las entidades patronales colaboraron en la maniobra socialista-sindicalista: varias de ellas negaron a SOV el reconocimiento de personalidad legal que hasta entonces le habían otorgado” (Fusi).

Esku batak bestea garbitzen du. Sozialistek patronalari laguntzen zioten (langile mugimendu radikalen aurka, adibidez), patronalak sozialistei. Patronalak, burgesitar monarkikua ia oso-osorik, xit borondate onez kolaboratzen zuen sozialistaokin. “El entendimiento entre socialistas y monárquicos” gauza sendoa zen, sendoa alajaina, baita klase solidaretasun gainetik ere, behar izanez gero. Industrial abertzaleren batzuek langileekin istiluak zerabilzkitelarik, bakar-bakarrik aurkitu ziren, beste industrialen laguntza izpirik gabe: patrono monarkikuek ez zeuden inola ere patrono abertzaleei laguntzekotan; nahiago zuten, zeharbiz bederen, langile sozialistei eman laguntza. “Los intereses políticos se sobrespusieron a los posibles intereses de clase”.

El hecho no dejaba de ser paradójico y así lo subrayaron algunos observadores: “Los patronos tienen aliados en el campo obrero —comentaba Luis Araquistain sobre lo que él llamaba “curioso fenómeno” de Vizcaya— y los obreros en el patronal”. Araquistain quería explicarse la iniciativa de los que él identificaba como “algunos patronos nacionalistas”, por el carácter, en su opinión, “insocial e incivil” del “aldeano vasco” [oh, guziz orijinala esplikazioa eta guziz berri-berria Espainiako historian!]. La explicación era, como ya se ha indicado, menos compleja y más tangible: era la reacción de los intereses políticos perjudicados por la colaboración de las grandes empresas de Vizcaya y Liga Monárquica con las organizaciones sindicales y políticas socialistas.

Ni siquiera el pacto que en setiembre de 1920 firmaron UGT y CNT modificó la actitud de las mencionadas empresas de Vizcaya. Tal vez porque los industriales de la Liga creyeron que, tras la derrota del sindicalismo en julio de aquel año, el llamado pacto del proletariado no tendría mayores repercusiones en Vizcaya; tal vez porque creyesen que la UGT acabaría encauzando y absorbiendo el movimiento; tal vez porque en Vizcaya el pacto tuvo menos el carácter de un frente obrero antipatronal que el de una acción socialista contra los escasos reductos obreros del nacionalismo vasco (Fusi).

PSOE-k politika konsekvente eta inflexiblea eraman du beti, Espainiaren batasun sakratua jokoan zegoela, iruditzen zitzaionean.

Eta Estatutuek Espainiaren batasuna arriskuan jartzen zutela, uste zuen. Horregatik, Bigarren Errepublikan, eta konkretuago, Alderdi PSOE-zialistaren jokabidean, kontra-

dizio konstante bat somatzen dugu, alde batetik zuhurki egiten diren aitortza autonomisten eta bestetik zinez eramaten den politikaren artean. “El caso es que, durante la II República, casi todos se declararon partidarios de la autonomía regional, pero casi nadie aceptó plenamente sus consecuencias. La actitud de los dos grandes partidos de masas del período —PSOE y CEDA— fue bien significativa. Si entre los años 1931 y 1933 la política regional de los Gobiernos republicanos encontró sus mayores dificultades internas de parte socialista, dentro de la mayoría parlamentaria del segundo bienio fue el gran partido católico quien favoreció la adopción de decisiones claramente restrictivas de la autonomía” (Varela).

Euskadin, abertzaleen kontserbakoikeriagatik omen ziren, sozialisten errezeloak. Katalunian arrisku haundirik ez zegoen, halafede, “Gibraltar vaticanista” bilaka zedin! Harelare nahiko lan ibili zuten, gure modura:

Ya en las primeras jornadas de las Cortes constituyentes tuvo lugar un duro enfrentamiento entre la Esquerra y los socialistas, protagonizado por Companys, de una parte, y Largo Caballero, de otra, con motivo de los conflictos sociales desencadenados por los sindicalistas catalanes. Denunciaba el ministro del Trabajo la actitud pasiva que ante éstos tomaba el Gobierno de la Generalitat dejando la legislación laboral sin aplicación en Cataluña, mientras que Companys criticaba la política laboral del ministro y su animadversión hacia los sindicalistas. Días más tarde los socialistas criticaron abiertamente el referéndum celebrado en Cataluña para aprobar el proyecto de Estatuto que había sido elaborado por la Generalidad (Varela).

Pelai Pagések, Andreu Ninen azterketa batetan, honela dio: “Cuando, el 14 de abril de 1931 [Maciá], proclama la República Catalana, horas antes de la proclama-

ción de la República en Madrid, se halla ante la oposición flagrante del Gobierno provisional de la naciente República, que pocos días después le exige la desproclamación de la República Catalana. El acto protagonizado por Maciá sería considerado por Nin como el más revolucionario que se produjo durante la jornada del 14 de abril, y la actitud adoptada por el gobierno de Madrid como *la prueba de un espíritu chovinista, absorbente, asimilista, que no tiene nada que envidiar al del poder central monárquico desaparecido*". Lehenengo kolpeak huts eginik, katalanek Estatutu proiektu bat herri guziaren erreferenduari sometatu zioten.

El Socialista-k, aldiz, zentzu demokratiku eta nazionalitateekiko guziz errespetutsu batez, holakoxe loreak eta larrosak botatzen zizkion mugimendu katalanista hari: "Por lo visto, la ética política de ese organismo anacrónico y patriarcal de la Generalidad no se para en escrúpulos legales, y su vasta conciencia le permite sin empacho alguno ser juez y parte interesada en el divertido juego de su nacionalidad vergonzante (!). La votación para aprobar el Estatuto se ha realizado a capricho del faraónico organismo que preside Maciá e influida por su enorme poder coactivo".

Todo ello, sin embargo —jarraitzen du Varellak—, no fue sino el preludeo de la batalla que se iba a librar dentro del Gobierno y de las Cortes con motivo, primero, de la Constitución y, después, del Estatuto catalán. En un primer momento, la presión de los socialistas, especialmente a través de la Comisión parlamentaria de Constitución, en la que tenían un gran peso, fue decisiva para desechar definitivamente la fórmula del Estado federal, que hubiera recibido el apoyo de todos los partidos regionalistas y de amplios sectores republicanos, y para sustituirla por la originalidad del Estado integral. Y cuando, en setiembre

de 1931, las Cortes discutieron el título I del proyecto de Constitución, en el cual se daba cuerpo a esa fórmula fijando el reparto de competencias entre el Estado y las regiones autónomas, los socialistas hicieron peligrar la difícil y complicada transacción que se había alcanzado entre el Gobierno, la Comisión y los catalanes y que se concretaba en una enmienda defendida por el Presidente del Gobierno. Los obstáculos no vinieron además de francotiradores parlamentarios, sino de los propios ministros socialistas. Así, en la noche del 25 de setiembre, rompiendo el frágil acuerdo alcanzado previamente y amenazando una crisis profunda, Largo Caballero pedirá la palabra para oponerse a que se reconociera a las regiones la posibilidad de ejecutar la legislación social del Estado.

Behabarda sozialistak bildur izan zitezkeen, euskal abertzaleek Euskadin legegintza sozial kontserbazaleren bat asmatuko zutela; arrazoi hori esan bait dute beren kanpainetan. Baina Katalunian? Ez zegoen holako arriskurik. Non dago, beraz, kakoa?

Valerak:

El verdadero problema radicaba en que el movimiento obrero de Cataluña no estaba, en modo alguno, controlado por los socialistas y que el partido entonces dominante en la región, la Esquerra, no se hallaba muy dispuesto a enfrentarse con los anarquistas aplicando la política laboral de los socialistas gubernamentales de Madrid.

Azañak berak, gorabeheraon lekuko:

Tienen los socialistas un empeño muy grande en conservar el manejo de las cosas sociales en Cataluña o, mejor dicho, porque hoy no la tienen,

en asegurar a través de los órganos ministeriales una defensa contra sus terribles enemigos, los sindicalistas de la CNT.

Eta J. M. Castellsek:

Pero la oposición frontal a la reivindicación autonomista provino de sendas enmiendas de los socialistas Largo Caballero y Prieto... Largo pidió que la normativa social sobre el trabajo fuera de legislación y ejecución exclusiva del Estado, porque el dejar dicha "legislación a las regiones, y especialmente en el caso catalán, es entregarle en absoluto al capitalismo (!) la inspección del trabajo... dado que en Cataluña la mayoría de los obreros son apolíticos". Estaba en juego la lucha por el poder que en todo el Estado desarrollaban las dos centrales sindicales mayoritarias: la Unión General de Trabajadores y la Confederación Nacional del Trabajo (de obediencia socialista y anarquista, respectivamente). Los sindicatos de la CNT en defensa de su autonomía en el movimiento obrero, venían negándose a cumplir en Cataluña la legislación social impuesta desde Madrid, de inspiración socialista, y habían presionado para que los diputados catalanes —no hay que olvidar que Companys había sido el abogado de los obreros y causas sindicalistas— defendieran este aspecto del estatuto regional.

Los diputados catalanes anunciaron que de aprobarse la enmienda abandonarían el hemiciclo parlamentario. La carga polémica que tuvo asimismo la intervención de Prieto sobre los acontecimientos de Barcelona en los primeros días de la República, elevó más aún la tensión; finalmente se llegó a un texto transaccional sobre la enmienda de Largo y se pudo seguir adelante con el examen del proyecto constitucional.

Sozialistek Alderdi politikaren eta Alderdi arteko lehiaketa kontsiderazioen arabera ikusten dute eta zedarritzen dute Estatutua. Estatutuaren aurretik beren Alderdi interesak daude; eta Estatutua zer izan, nola muga eta antola, Alderdi interesek erabakitzen dute. Sozialistek lehenengo beren Alderdi interesak eta influentzia nahi dituzte aseguratu: xede horren serbitzuan josiko da Estatutua. Gero Katalunian zer gertatzen den, hor konpon katalanak.

Gero, hain zuzen, *rabassaires*-en hauzi hura sortuko da: Gobernu katalanak hartuko dituen neurri sozial bazuengatik, laborarien alde, Kataluniari atzera Estatutua kendu egingo bait dio, bitartean nagusitu den eskuin Gobernu errepublikanoak. Baina oinarriak ezarrita zeuden aurretik konfliktu hartarako: Prietok eta Largo Caballerok ezarrita. Sozialistek berentzat nahi zuten derrigor sozial arazoetan erabakitzeko eskua, berek, eta ez Generalitateak, agintzeko. Gero, ordea, Gobernu aldaketarekin, ahalmen hori CEDA-ri pasako zaio eskuetara. Sozialistek utzi dute babesgabe langileria katalana. Horra zein zen, lanaren begiramendua kapitalismoari entregatzen zioena...

Datuon argitara beste argitasun bat hartzen dute, gorago ikusi ditugun kontrakarra haiek: Foruekin ala gabe, langileari berdin zaiola. Halaxe izango da, izan ere, sozialisten politikan. Estatutuz ala gabe, langileari berdin berdin izan dakiola, horixe bait da, beren Estatutuarekin sozialistek lortu dutena!

Sozialistek lan haundia egin zuten, autonomia gehiegi "eman" ez zedin —Varelak: "consiguieron desde el Gobierno recortar varias concesiones autonómicas del proyecto"— eta gero, Gorteetan, isil-isilik gelditu ziren —Varelak: "los socialistas guardaron un mutismo casi absoluto"— Gorteek Estatutua onartu, ez onartu, berak neutral zeuden itxura eginaz, aspalditik ezagutzen dugun pasibitate politika zuhur hartan goxo-goxo anparaturik.

Pelai Pagèsek honela epaitzen du trikimailu guziotatik

atera den resultadua: "...se inicia un proceso de negociaciones entre Madrid y Cataluña que culmina en setiembre de 1932 con la aprobación por las Cortes de la República Española de un Estatuto de Autonomía para Cataluña que representaba casi una caricatura del que había sido plebiscitado favorablemente por el 75 % del electorado catalán, en agosto de 1931, un Estatuto que deja pendiente en sus aspectos fundamentales la resolución de la cuestión nacional catalana, puesto que no sólo no considera como tal la realidad nacional de Cataluña..., sino que recorta a las instituciones del gobierno autonómico —Generalitat y Parlamento catalán— buena parte de las facultades legislativas y ejecutivas que corresponden a un poder legítimamente constituido”.

34-ean iraultza giro bero-bero bat Asturiastik zabal-tzen da Estatu guzira; nazio arazoa ere gogortzen da bizi-ki. (Aginpidean eskuina dago iadanik). Bai nazio arazo-aren kariatz eta bai deskontentu sozialaren zioz, eskuindar Gobernuak ezin du herria kontrolpean lotu (1). Katalu-nian hauzi sozialek sortuko dute xokea eskuindar Gober-nuarekin. Parlamentu katalanak laborari maizterren one-rako lege bat eman zuen, eman, sozialistek Madrileri erre-serbatu izan arren legegintza soziala. Ez Madrilek eta ez eskuin katalanak onartu zizuten legea, pentsa daitekeenez. Iskanbila honetan, legea nolabait aurrera ateratzeko, be-

(1) Euskadiko giroa honela deskribatu du G. S. Paynek: «En el verano de 1934, la opinión nacionalista se hallaba muy excitada, sobre todo en Vizcaya. Aunque el Gobierno declaró ilegales las elecciones propuestas de consejos municipales y amenazó con sanciones, los nacionalistas siguieron adelante con sus planes de celebrar las asambleas especiales de consejos municipales y las hicieron coincidir con homenajes públicos al fallecido Francesc Maciá, primer presidente de la Generalitat catalana. Aparecieron en Vizcaya folletos anónimos que pedían el establecimiento de la *independencia nacional* y que concluían con consignas de *Viva la Revolución Vasca* y *Gora Euzkadi Azkatuta!* (Viva Euzkadi Libre). Los socialistas, los republicanos de izquierdas y la Esquerra catalana apoyaban vigorosamente la iniciativa vasca, pero las medidas del Gobierno impidieron la celebración de estas elecciones especiales en casi todos los gobiernos municipales. Fueron detenidos cuarenta alcaldes y cincuenta y tres concejales por apoyar la votación».

regaintasuna irabazteko, katalanek bigarren aldiz proklamatzeko Generalitatea. Baina lehen sozialistek desegin zutena, orain CEDA-k desegin du. Berriz hauzitan dago autonomia katalana. Guziz bihurtzen da Barzelonan jendea. “A excepción de la Federación catalana del PSOE —que seguía la política centralista de este Partido respecto a Cataluña—, el resto de las organizaciones, y particularmente los sectores marxistas, se habían colocado resueltamente a favor de la autodeterminación de Cataluña y habían participado activamente en todas las movilizaciones que se habían realizado para que la República reconciera los derechos de Cataluña” (P. Pagès).

PSOE-zialismoak, beste kontsiderazio guzien gainetik, beti bere Alderdi interesei begiratu die. Eta Estatutua, esate baterako, kontsiderazio horien barruan tolera edo aprobetxa zitekeen aina toleratuko edo aprobetxatuko du, doi-doi, ez puntu bat gehiago. Problema da, PSOE-ren estrategian, Alderdi interes horiek “Estatu integralaren” interesekin bategiten dutela. Eta PSOE-ren dinamika horrekin nazionalitateek ez dutela direktoki deus eta ezer irabazten sekula. PSOE-k ezin dinamikarik desarroila lezake nazionalitateen alde; soberania zentralarentzat arrisku bat ikusten du beti autonomietan. Onenean ere *supporta* egin ditzake dinamikaok, besteek eraman badaramatzaite eta ezin geldiarazi badira.

Sozialistek, Euskadin ere, autonomi Estatutua onartzeko asmoak aski goiz agertu zituzten, asmoak. 1931-ean bazekien Prietok, azkenean beste erremediorik ez zela geldituko. Baina sozialistak bildur ziren, autonomiarik emanaz gero, abertzaleen aginpidea eta ahalmena euskal probintzietan biziki indartuko zela, sozialistena ahulduaz; eta nahiago zuten, beraz, Madrilen ahalik eta ahalmen eta eskuarte gehienak eskuetan eduki, nazionalitateen Gobernuari eman gabe, Euskadin izango ez zuketean indarra Madrildik erabiltzeko. “Es decir, se oponía [PSOE] a todo Estatuto que, en la práctica, dejase las instituciones vascas en

poder del PNV y reservase a la representación socialista un papel secundario en la futura estructura del poder regional”.

Ez Katalunian eta ez Euskadin bait zen nagusi; baina Madrilen bai.

Politika honen arabera, nazionalitateen zortea beti Madrilen esku dago. Autonomo Madril da, ez nazionalitateok. Madrilen inork ez tul egiten badu, Galiziak, Euskadik eta Kataluniak, sasoirik hoberenean zebiltzala, derrefente akatarratu egin behar dute. Planteamolde honetan, hamar mila madrildar langileren huelga bat, Euskadiren etorkizunerako inportanteago da, Euskadin bertan ehun milak eginna baino... Hau da, Euskaditik kanpora dago Euskadiko problemen soluzio giltza. Planteamolde honetan egia da, PSOE-rentzat on dena, Euskadirentzat on dela. Premisak dira okerrak. Guk Euskadirentzat zuzen dena, behar bait dugu, PSOE-rentzat oker bada ere.

SOZIALISMO ZAHARRAREN ONDAREA

Sozialismo zaharrak alergia bezalako zerbait zeukan nazio arazoaren aurrean. Horrela bakarrik esplika liteke haren jokabidea.

Abertzaleek behinolako Euskal Herria libre eta beregain izan zela, zabaltzen zuten. Arana Goirik Bizkaiko historiatik kapitulu batzuk idatzi ere egin zituen ikuspide horrekin. Bego, Bizkaiak noizpait norainoko independentziarik izan duen ez duen. Historiazaleen kontu da. Sozialistak segituan altxatu ziren: ezetz. “Nunca existió en Vizcaya verdadera independencia”, idatzi zuen Meabek. Eta hor gelditu zen.

Abertzaleak, Euskal Herria berezi zela erakusteko, euskal arraza bereziaz eta Euskal Herriko historia bereziaz mintzo ohi ziren, Lege Zaharraren berezitasunaz bereziki. Meabek: “el nacionalismo no puede fundarse en la raza ni en la historia”, osteratu zuen. Eta hor gelditu zen.

Abertzaleek, euskaldun denak anaiak zirela eta, esaten zuten, nafar ala giputz, bizkai eta xuberotar, lapurtar nahiz arabaar. Eta euskaldun guzien artean anaitasun sentimentua indartzen lehiatu ziren. Meabek: “Ni por aficiones, ni por carácter, ni por distancia y otras causas es

siempre el vasco el más próximo”, sentenziatu zuen. Eta hor gelditu zen.

Sozialisten metodoa ezetz esatea zen. Eragozpenak atezratzea, kontrakarrak ipintzea, beste problemak planteatzea, problemak beste mailaren batetara aldatzea. Gauzak edonola endreatzea. Azken finean: nazio arazoa ignoratzea.

Metodo hori ez zen berria: Llorenteren eta Historia-ko Akademia Espainolaren metodoa zen. Zentralismoaren justifikazio ideologikoa besterik ez zen azkenean.

Triste da, tradizio horri segida eman dioena, zeintzuk eta sozialistak izatea. Sozialismoaren guraso bezala Leninek arrazionalismo burgesa aipatzen zuen bat. Euskal Herriko sozialismoa liberalismo zentralistaren seme zen. Aitararen kontra jeiki zen semea. Baina aitaren igoala. Otsoaren umea otsokume. Egurretik ezpala.

Makina bat urteren buruan, sozialismoak ez du oraindik hasieretako okerra zuzendu. Egungo sozialismoan ere nabarmena da sozialismo zaharraren ondarea.

Sozialistek ez dute inoiz esan: hemen problema bat dago eta hori konpondu egin behar da. Goazen lanera. Ez dute postura positibo bat hartu problemaren aurrean.

Sozialista klasikoen jokabide eta arazoipideei globalki begiratzen badiegu, urtez urte, horixe ikusten dugu: lehenengo atentzio ematen duena, da, ia beti zerbait ukatu bakarrik egiten dutela. Eta, gero: problema zailagotzeko beti agiri duten interesa harrigarri da. Ateratzeko denak atera dira: Euskal Herria naziorik ote den, ala naziotasun soil, ala eskualde huts; euskarak zer ikusi behar duen; Ipar Euskadi ez ote den beste nazio bat; Nafarroa Euskadi ote den gero; diferentziak aipatzea zein arriskutsu den, eta zenbait arriskutsuago burgesiarekin bategitea, etc. Problema mak asmatzeko interes haundia dute; edo, bestela, nahitaez problema asko sortu behar zaizkien erakoak daukate burua ta bihotza. Nola nahi ere, zorrotzak dira, problema aurkitzeko. Burubidatzeko, ez hainbeste. Taktika ote

da? Agian ez, egun behintzat. Agian, eskema batzuetatik irten ezina. Beren eskema ta sentieraren kontra doan zerbait onartu ezina. Tradizioaren indarra. Dena den, problemak besterik ez dute ikusten, dirudienez. Eta, postura horiekin, oraingo sozialismoak ere, behinolako prejudizio eta mitoen zein mendean jarraitzen duen, erakusten du. Zein dinamika historikoren mendean dabilen. Ezin da bere kateetatik askatu. Eta ezin du, kateaturik dagoenik ere ez du erreparatu nahi ta. Estatu interesei buruz duda berdintsuak eta haundiagoak sortzen dira; baina horiek argitzen maina gehiago ta delibero haundiagoa erakutsi dute. Hortan mutilak dira. Nazio arazoan, berriz, haien postura beti eskeptiko, negatibo, uzkurra da. Nazionalismo espainolak kutsatu gabe daudela, sinestuko ote dugu?

Euskal Herriak baino harrokeria nazional gehiago duen herririk, makina bat bada munduan, halafede. Baina apenas izango da inon sozialismo hain kartsurik, mito nazionalak porrokatzen eta desegiten eta harrokeria nazionalaren aztarrenik ere ez toleratzen istante bat ere. Euskal Herriak, aparteko gauzarik ez, baina berezitasunen batzuk baditu apika. Eta, munduan herri guziak bezala, herri honek ere, bere buruaren ustetxo ona badu. Hemengo sozialistei ikusten zaien zela, uste onik ez uzteko, santurik bere buruarekin lepo gainean ez uzteko herri honen uste onetan, sospetxoso da benetan.

Euskal feudalismoa behintzat besteena baino zerbait hobexeago izan zela, uste genuen. Ba, hori xobinismo da: ez dago euskal demokraziaren eta igualitarismoaren mitoa toleratzerik. Alemanek eta errusiarrek inbiria ematen diote bati: haien tradizio laborari-demokratikoak eta igualitaristak Engelsek eta Marx eta Leninek gorraldu dituzte, apenas gureak baino diztiratsuago baziren ere... Baina zer sozialista dira horiek, Marx eta Lenin eta, gureen aldean! Horrela demostratzen da, *e contrario*, euskal berezitasuna.

Euskaldunek, aspaldidanik, estimazio haundian zeukaten euskara. Eta euskararen gorazarrez tontakeria dexten-

teak esan izan badituzte ere, tontakeriok oso gutitan ziren inorentzat kaltegarri. Gehienetan ilusio bat ziren. Ba, akabo ilusioak oraintxe. Burgesa dela ta, hasi zaizkigu, hasi. Alegia, esaldi horrek esan nahi omen duena, ez da munduan beste edonon esatea ez dagokeen gauzarik; baina mundu guziak bestela esango lukeen zerbait da. Ideia hori esan duen sozialista asko ere izan da Madril, Paris eta Mosku artean. Baina horrela esan duen besterik ez dakigu bat bakarra. Espainola edo frantsesa burges direla esan duen sozialistaren berririk ez dugu. Zerbaitegatik izango da. Hemen, ordea, horrelaxe esan beharra zegoen. Eta hori ere zerbaitegatik izango da. Ideia ahul batek asko balio bait du, eslogan bortitz batekin. Bai, horrela demostratzen da, *e contrario*, euskal berezitasuna. Bestalde, dudarik ez dago, euskara burges delako hori, oso onuragarri izango zaiola euskarari. Erdara burges denik ez dugu batere esango: ala, izorra dadila...

Euskal literatura, egia da, ez da gauza apartekorik. Baina den baino ere puska bat gutiagotu duenik bada, orijinal ez delako, edo oso-osorik burges omen delako, edo ez dakit zer delako. Eta joan zaitez orain, aspaldiko literatura hori estudiatu ta ezagutu behar dela, jendeari esatera, eskolarik ere ez duen herri honetan hain zuzen. Ez dakit zer ari diren klasikoze horiek... Euskal literatura guzia burges dela esatea da, lan positiboa egitea.

Euskal batasuna, egia hori ere, nahiko aldrebes ibili da historian zehar. Baina euskaldun guzien batasun konzientzia apur bat ere aspaldidanik nabari da, bai historian eta bai kulturari, literatura garaian bereziki. Ba, ez jaunak, ez: Euskal Herria sekula ez dela bat izan, esan ta esan ari zaizkigu. Bistan dago, zeri esaten dioten horiek, bat izatea. Judeguak, agian, ez dira gu baino batago izan, eta herri batasunik ez zaie ukatu ohi... Gure rabinoak, ordea, oso "progre" dira ta beste batasun batzuk darabilzkite gogoan.

Mundu guzian bezalaxe, euskal hiriren batzuek beren

propiotasunak eta estatuto bereziak izan dituzte historian, politikoak nahiz populazio heinekoak. Fenomeno berberak dozenaka aurkitzea ez da batere kostatzen, Italian, Frantzian, Espainian, areago Alemanian eta Balkan herrietan, Eskandinabian nahiz herrialde baltikoetan. Edonongo kontuak dira. Baina fenomenuok hemen bakarrik sortzen dituzte halako problema ikaragarriak: Tuteran Nafarroarik ala Bilbo Bizkaiarik eta Baiona Laburdirik ote den... Guregatik balitz, laster egingo genuke mundu partizio berri bat, Avignon Italiari emanaz, Sizilia alemanei, Berlin eslaboei, eta abar. Baina Ebrotik beherako sozialista horiek ez dira batere finak: Cartagena kartaginesei eta Granada arabeei itzultzeko asmorik ez dugu ikusten behintzat horien programan. Ez al zuen Leninek esaten, Niza italiano dela? Zer dabilta, gero, sozialista frantzes horiek? Guretzat, ordea, problema haundia da Balmaseda behinola Bizkaiarik ez bazen, Oinaten Gipuzkoarik ez, Agurain eta Gasteiz ere ez Arabarik, eta abar.

Gauzaotan euskal sozialismoa patologikoa da. Bestela ez da esplikatzeko.

Planteamoldeak sekulako bitxiak asmatzen ere parerik ez du euskal sozialismoak Honelakoxe aukerak asmatzen dira: euskaldun burgesa baino euskaldun langilearen gertuago dabil erdal langilea; euskal eta erdal langileen mintzaira berdina da euskal burges eta langilearena baino, etc. Horixe beste aukerarik ez bait dago munduan, erraz ikus daitekeenez. Tamalez, sozialismo frantzesak ta, gure aldean atzera samar dabilta, eta oraindik ez dira ailegatu, problema biziki interesanteak eta funts-funtsezkuak hain garbi eta zehatz planteatzera. Baina ailegatuko dira, bai, gure atzetik. Zeinek jakin: beharbada aldrebes ikusiko dute alternatiba. Eta Bokaleko langileak bat-batean euskaltzaleen dizkigute denak, hango burgesiaren baino langileon gertuago bait dago Xuberoko artzainen mintzaira...

Historiaren ikuspide franko zientifikorik ere agertu da noizpait. Norbaitek zionez, egia da azkeneko ehun urte

honetan Euskal Herriari bere herri nortasuna erdi desegin zaiola ta nortasun politikoa zeharo itxuragabetu zaiola, Foruak kenduaz eta nola-halako probintzia bihurtuaz. Eta egia da, Euskal Herria harmaz menderatuz eta hertsatuz egin dela hori dena, goitik behera. Baina egin dena, egin da. Pilatosek esan omen zuen hori. Eta gure Autoreek ere bai, *Saioak* izeneko talde hartan (“Zergatik ez dituzte eskuak garbitu?”). Une berean, esaten dute, Euskal Herria Espainiako lurralde industriatsuen bilakatu da, eskualde moderno bat, eta honez gero denak gaztelaniaz jabetu dira, eta abar. Egungo errealitatea hori denez, eta hori dena progreso haundia denez, ontzat eman behar omen da errealitate hori. Ez dago bueltarik... Ikuspide hau sozialismo zientifikoaren izenean agertu zen. Eta positibismo historiko arrote galantagorik asmatzeko, historiaren filosofia zientifiko asko estudiantu behar da, inolaz ere, lege historikoak eta sakon ezagutzeko. Tamalez, egon dagoena izan ere arrazoizko dela, Hegel zelako batek esana da. Ez beste harek, izena Marx. Zeren-ta dagoena bait da, orobat, oso dagoena eta progreso historia dirdaitu batentan sortua, esate baterako, proletargoaren alienazio guziak ere. Zanzazio guzia. Kolonia guziak. Ez dirudi, ontzat eman behar direnik. Kolonialismoa ta inperialismoa ikuspideokin nola juzkatu beharko lirakeen ere, garbi dago. Era hortakoxe Engelsen juzkuak —haiek kopiatu bait dira— marxistek berek aspaldi kritikatu ta baztertu zituzten. Baina euskal sozialismoak berbiztu dizkigu, beharrik.

Halako adibideak hainbeste daude, hemengo sozialismoari zer gertatzen zaion, galdera sortzen bait da, etengabe halako burutentzioak asmatzeko. Apropos ere nekez egin liteke paper tristeagorik.

Hemengo sozialismoak ez du ezer positiborik egin nahi Euskal Herriko nazio arazoa ulertzeko ta konpontzeko. Beti jokabide hau erakusten du: abertzaleen arrazoi honek eta horrek ez dute aski baliorik; beraz, kontrarioa da egia. Era honetan, guti-gorabehera: “arrazoi horiek ez dute probatzen Nafarroa Euskadi denik; beraz, ez da Euskadi, ze-

reko zera baizik". Zereko zera beti Espainia da, noski. Eta, azken finean: arrazoi horiek ez dute probatzen Euskal Herriaren berezitasunik; beraz, halakorik ez dago. Ez da garbi probatzen euskal naziotasunik; beraz, ez dago. Ez da probatzen euskal batasunik; beraz, ez dago. Horixe esaten ez bada ere, hortara jotzen dute arrazoipide guziek: hemen ez da berezitasunik probatzen, beraz espainola da. Sozialista horientzat Espainia ebidentzia bat da, besterik proba dadin artean. Besterik probatzen, ordea, berak ez dira deus alferrik nekatuko. Ematen diren arrazoiak ez direla nahikoa, probatzen bakarrik saiatuko dira berak. Zentsore hutsak dira. Hori bai, oso argiak eta zorrotzak hortan. Nondik sortzen da postura hori? Eta nondik sortzen da, kontrarioa probatu arte irmo dagoen ebidentzia hori, eta ebidentzia horren halako defentsa konstantea?

Bestalde, inon ez bezalako proletarismo purista, anti-burges amorratua predikatzen da hemen. Beste edonon proletargoak zilegi du burgesiaz elkar hartzea: hemen ez. Beste edonon, proletargoak zilegi du eginkizun burges tipikotan aritzea (askatasun demokratiko burgesak restauratzeko adibidez): hemen ez. Zein jarreretatik sortzen dira jokabideok?

Areago, nazio arazoa faltseatzen da, problema guzia separazio/separaziorik ez puntu soilera mugatuz. Nazio arazoak badu *oraintxe* ere zereginik franko. Eta guzi horietaz sozialista klasikoak ez dira akordatzen nonbait. Nazio arazoaz dakiten guzia puntu huraxe bakarrik da: batzuek separazioa nahi omen dutela eta berek ez dutela nahi.

Batasun mitoak preso dauka sozialismoa, XIX-gn mendetik egunotara arte. Gehienez ere, Espainiaren batasunetik proletargoaren batasunera pasa gara, hitzetan: eta azpian errealitate bera gelditu da beti. Ez funtzionaltasuna eta ez signifkazioa aldatzen dituen aldakuntza bait da hura, praksian.

Dударик gabe, gauzak asko sinplifikatzen ari gara. Egungo sozialismoa ez da, aipatzen dugun nahasketa hori bakarrik. Eta nahasketa horrek berak ere beti ez du

hemen ematen diogun sentidoa. Baina honexegatik egin dugu hori, hain zuzen:

Sozialismo zaharretik sozialismo berrira eboluzio haundia dago nazio arazoan. Baina berrian ere, sozialismo zaharraren postura negatiboek indar gehiegi dute. Oraindik asko falta da tradizio oker haiek superatzeko.

Batetik, tradizio horien ur zikina dago. Izan ere, tradizio horri erreka gora segitzen badiogu, iturburuetan Godoy, Llorente ta Historiako Espainol Akademiaren kanpainak aurkitzen ditugu Euskal Herriaren kontra. Euskal batasunik inoiz ez dela egon, euskal berezitasuna ipuin hutsa dela, eta abar: horiek denak Gobernu espainolaren enkarguz eta paguz aspaldi asmatutako arrazoiak dira. Eta, egia esateko, ez ziren batere gaizki asmatuak.

Bestetik, nazioarteko sozialismoaren eboluzioa dago, nazio bakoitzaren aldera. Euskal sozialismoak ere, munduko martxari segitzekotan, biraje bat egin behar du, argi ta garbi, bere bakoiztasunaren alde. Euskal Herriaren alde.

Euskal literaturaren burgeskeria, euskal batasunaren problemak, etc., eztabaida litezke. "Euskal demokraziaren" kritika, egin liteke lasai-lasai (sozialisten asmorik ez da iragandako laborari demokraziaren bat restauratzea). Honelako eztabaiden batzuek, banaka eta berez, inportantzirik ez dute. Inportantea sozialismoak postura garbi positibo bat hartzea da nazio arazoan. Zalantza gehiegirekin bait dabil. Bestela sozialismoak betiko errezeloa ta deskonfiantza sortuko du berriz ede. Eta arrazoi guziarekin. Eta sozialismoak beti bezain negatibo jarrraituko du.

Ezker aldean gaur ia inork ez du ukatzen nazio arazoaren esistentzia. Daukagun historiarekin, garbi omen bait dago, aspaldian eta egun ere "ha venido existiendo y existe en España un problema nacional" (Santiago Alvarez). Sozialismoarentzat ia trajiko da, aitortza hortara ailegatze-ko behar izan den eboluzioa, hainbeste burruka ta sakrifizioarekin, sozialismoaren parterik gabe eta, hein haundi batetan, sozialismoaren kontra, burutu izana.

INDEPENDENTZIA

Espainia bat eta bakar omen delako mito inperialista horrek, mesede guti ekarri dio Erresumako nazionalitateen elkartasunari eta elkar bizitzari. Ikus, esaterako, batasuna gauzatu behar ziguten inposaketa zakar eta tirania urteok. Zenbat batago, elkarrekin istilu eta gerra are gehiago erabili dugu. Diktadurak, Errepublikak eta monarkiak, atsedengabe entseiatu ditugu behin eta berriro, eta dena alferrik izan da. Foruak eta nazionalitateen beregain-tasunak "liberalki" ezabatu zirenez geroztiko ehun urteok, elkar ezin eramanaren "batasun" urteak izan dira. Bata-sunaren parabisua egin beharrok, elkar ikusi ezinaren in-fernuua sortu dugu. Espainia bata ez da herri gartzela es-painol bata besterik.

Politika absurduetara bait garamatza, Espainia bat omen delako horrek: hasteko, alferrikako problema nahas-keta mordoilo kaltegarrietan endreatzen gaitu behin eta berriro.

Begira karlistadak. Atzeraturik zeudela eta, Foru pro-blema omen zegoen. Ongi da. Baina Foru problema, ge-ro, Erdiuharteko edozein bazterretako edozein problema-rekin nahasturik agiri zaigu, azkenean igarri ere ezin bait diogu igarri, gerra nahaste sozial, ekonomiko, erlijiozko,

foral, dinastiko, nazional absurdu hau zer katramila den. Bazter guzietako problema guziak nahastu dira eta bat ez da konpondu azkenean.

Espainia bat eta bakar omen bada, ez da batere harritzekoa, hangoak eta hemengoak nahastea; dinastia kon-tuetan sekula sartu ez den Euskal Herriko Foruen pro-blema, eta euskal Foruei bakean uzten zieten gaztelauen dinastia problema, itxuragabeki nahastea; edo euskal ne-kazariak karlista eta espainolak liberal izatea, etab.: ez he-rrri et ez klase batasunik bait da “batasun” honetan po-sible.

Pretenitzen den batasun honen premisa, nazionalitate ez-gaztelauen inesistentzia da. Horiek ez dira aintzakotzat hartzen. Hor daude, ordea: eta begiratu beharra dago. Bai-na, egiazko nazionalitate beregain bezala ez aintzat har-tzeagatik, eta nahitaez zerbait berezitat hartu beharrean, akklaraten ez garen ente arraro eta esplikazio garbi gabeko zerbait bezala hartzen dira. Nazionalitateok, orduan, “pro-blema bat” dira; konplikazio bat, anomalia bat... Ez bait da aitortu nahi, nazioak direla, ezin asmatu da, zer diren.

Sasi absurduetan kateatzen da orduan gure politika. Esate baterako, guziz demokrata gara: Euskadi guziak Es-tatutu bat nahi baleza, baina Madrilen gorriak eta Iruin-nan zuriak nagusi badira, Estatutu hori zihur-zihur ez da posible izango. Bietan gorriak edo bietan zuriak nagusi badira, agian bai. Baina batean gorria eta bestean zuria suertatu orduko berriz pikutara joango da Estatutua... Kontua hau da; posibilitateok eta ezintasunok erabakitzea beti alderdi baten esku dago; eta alderdi hori, ahalt-suena —ez progresistena, ez justuena, ez sozialena, izan beharrik batere gabe— beti Madrilen dago. Progresistena bera bal-din bada, progresistena delako, erabiliko ditu “bere esku-bideak” nazionalitate ttipi atzerakoiaren kontra; atzera-koiena bera baldin bada, halare, “eskubideotaz” lasai-la-sai baliatuko da orduan ere, ahalt-suena bera bait da, eta zeinek eragotzi hari. Beraz, beti harek izanen du arrazoia.

Batasunaren printzipioa, errealitate plurinazionalaren ukapena izanik, nazionalitate baten pribilejio absolutuen printzipio da. Inperialismoaren printzipio.

Xelebreak ere badira, orduan, Estatutuen arazoetan ikusi behar izan ditugun bezalako xelebrekeria tristeak.

Adibidez, sozialistek ez dutela Estatuturik nahi, Katalunian edo Euskadin berak indartsuenak ez direlako. Eta guri zer? Berak nagusi izatekotan Euskadik Estatutu batetarako eskubide badu, ez ote du eskubiderik, besteren bat nagusi izanik? Estatutuak, ikusten denez, Alderdien eskubidezkoak dira, ez herrien eskubidezkoak... Ez da sozialisten alderdikeria eta itsukeria bakarrik, holakoak irakurriaz, indignatzen gaituena: "contradicción, entre un teórico reconocimiento del regionalismo y el temor de potenciar en las regiones otras fuerzas políticas que no se controlaban", edo eta: "los temores socialistas ante la autonomía catalana habían sido en realidad los temores ante una izquierda diferente" (Varela). Euskaldun batek hor ikusten duena, alderdikeria ximurrak baino gehiago da: inperialismoaren printzipioa.

Sozial-inperialismoak uste du, nonbait, Estatutuok erregaliak edo holako zerbait direla, adiskide minei eta mutil txintxoei egitekoak; ez, rigoroski eta justizian zor diren zorrak. Negargarri eta amorragarri da, sozialisten jokabide guzi-guziak eta, azkenean, 1931-eko Konstituzio errepublikanoak, zentralismo eta inperialismo klasikuenen printzipioa, piska bat bigunduaz eta bigunarekin disimulatuaz bai, baina konfirmatu besterik egin ez badute funtsean, *al considerar la autonomía de una región como algo excepcional, cuyo establecimiento y marco de competencias debía discutirse y graduarse para cada caso. Con ello, se institucionalizaba una política de regateo entre el Estado central y las regiones, lo cual suponía también institucionalizar, perpetuar de alguna forma, las diferencias entre las fuerzas políticas que regateaban* (Varela).

Handik hara, nazionalitate baztertuak beti limosna es-

ke ibili beharko du. Gainera, justizian zor zaiona, garesti kobratu egingo diote... Han zebiltzan katalanak Estatutu bila Gorteetan. Sozialistak Lurraren jabego Erreformaz gehiago arduratzen ziren Estatutuaz baino: Lur Erreforma legea, ordea, Extremadurako eta Andaluziako situazioari begira zegoan bururaturik; jabe ttipiz osatzen den nekazalgo katalarentzat ez zekarren abantailarik. Ezer ekartzekotan zenbait kalte zekarkien, ekarri. Baina, “zuek guri eta guk zuei”, paratu ziren sozialistak: eta katalanek, batiere komeni ez zitzaient Lur Erreforma baten alde ahalegindu behar izan zuten, gero sozialistek Estatutuari lagun zezaioten... Estatuturik nahi badugu, igoal esijituko digute hurrengoan, euskaldun guziok urteoro Manzaneresera pelegrinazioan joateko promesa! Eta prometitua egin beharko dugu, zer demonio... Sozial-inperialismoaren anaia birritxi eta monozigote bait da sozial-xantajismoa.

Euskadi naziorik baldin bada, bere buruaren jabe da; berak ikus beza bere burujabetasuna nola antolatu. Eta Euskadik, ez historia eta ez geografia ahantz daitezkeelako, eta Erdiuharteko beste nazionalitateekin elkartasunean bizitzeko arrazoiak badakitzalako, nazionalitateekin elkartasunean bizi nahi badu, berdinetik berdinerara erabaki beza besteekin elkar bizitza legez nola ordenatu. Hori erabakitzeko ez dira inor Madrilgo Gorteak. Han, beti ere, aldebakarki erabakitako *diktat* bat emango da; onen-onenean *kontzesio* haundi samarren batzuk. Madrilgo Gorteak eta Iruinako Gorteak ikusi behar dute erabaki hori, berdinetik berdinerara, inork inori diktatik inposatu gabe. Bestela betikoan gaude beti.

Baina Euskadi ez da naziotzat jotzen, nola konpondu ezin asmatu den “problematzat” baino. Kalamitateen kalamitaterako, Alderdi arteko tirabira eta kontradizio dialektika ere, nazionalitate baztertuek pagatu behar izaten dizute, hortakoz. Estatutuaren alde ezkerrek? Esquinak, automatiko, haren kontra. Holako Estatutua nahi dutela eskuinek? Ezkerrek, derrefente, bestelakoa.

...Tras la victoria del centro-derecha en las elecciones parlamentarias de 1933 —idazten du Varelak—, tuvo lugar un proceso inverso al anterior, lo que impediría tanto el desarrollo de la autonomía catalana como de la vasca. Al haberse identificado durante el período anterior la política favorable a las autonomías regionales con la política general de la izquierda republicana, la reacción frente a ésta supuso también una reacción frente a aquélla... Este centralismo por reacción impidió lo que hubiera supuesto la consolidación definitiva de las autonomías regionales y un proceso de concentración de fuerzas políticas a nivel nacional...

Bistan da, situazio horrek Espainiari berari ez dioela batere onik egiten. Halare nazionalitateek irtetzen dute okerrena.

Errealitatea hori da: ESPAINIA BATUAREN proiektu denek ez dute ESPAINIA NAHASTU besterik egin. Eta Erresumako nazionalitateen elkartasun haundiagoa, herstuagoa, sortu behar zuenak, ez du nazionalitateon artean gerra eta gorrotoa besterik ekarri.

Foruak kenduez gero, Konzertu ekonomikuak eman ala Estatutuak edo Estatutu erdiak asma, mila entseiu alfer egin eta ez da ezer burubidatu, nazionalitateon elkar bizitza hobetzeko, periodikoki gerra bat egin beharra baino. Soluzioa, ez bait da kontzesioak eta pribilegioak ematea: Euskadiri bere nortasun nazionala, ondorio guziekin, onartzea eta aitortzea baino.

Beraz, ehun urte honen azterketa batek nahiko erakusten duela, ematen du, euskal arazoaren irtenbide bakarra, azkenean, independentzia dela, beste irtenbiderik ez dela gelditzen.

Nazio bakoitza beregain eta libre, independente, ez den artean, egiazko elkartasunik eta elkarren errespeturik, li-

bertatean eta berdintasunean, beraz anaitasunean, ez da posible eta ez da posible izango.

Espainol “zuhur” eta “politikuen gainetiko” bere us-tezko intelektual askok eta askok esan du, harri filosofa-la aurkitu baligu bezala, eta horrela nazionalitateekiko kon-prentzio haundia erakutsiko baligu bezala, Madrilgo zen-tralismoa izan dela “separatismoaren” kausa... Euskaldu-nak hori aspaldian daki. Hori Ortegak esaten zuen eta, Ortegak baino lehenago, liberal foralista euskaldun guziek esaten zuten, Kanpionek adibidez. Egia esan, deskubri-mendu horrek ez digu asko laguntzen. Nazio sentimen-tuak zergatik esasperatu diren, ez digu asko inporta; ba-tez ere, hori esaten ari zaizkigun “zuhurrek”, hemendik aurrera ez dela zentralismorik egongo eta euskaldunok ere “zuhur” bihurtu behar dugula, adierazi nahi izaten bait digute... Izan ere, kontua iadanik ez da liberalek zuzen jokatu ote zuten ala karlistek zer burubide zerabiltzaten, edo geroagoko Alderdiren batzuek zer nahi omen zuten; baina bai, batzuen eta besteen artean, behin eta berriro, ehun urte haundi onetan, beti atera duten resultadua: beti katastrofala, politika aldetik, Euskadirentzat.

Eta resultadua da, Euskadik nazio sentitzen duela be-re burua eta nazio bezala ezagutua izan nahi duela besteen artean; Espainian, ordea, Esparteroren egunetatik eguno-taraino, ezein Gobernuak eta ezein Alderdik duela nazio bezala onartu, *región* bezala baino. Eta, beraz, menpeko eta azpiko bezala.

1941-ean Errege Katolikuek *nación separada* zeritza-ten Bizkaiari. Horixe da Euskadik berriro esijitzen due-na: ezagut eta onar dadila *nación separada* bezala, *nación separada* dena, konsekuentzia guziekin. Nazionalitate ez-berdin berdinen arteko elkar bizitza justu eta bakezko batetarako oinarri sendo bakarra horixe da: nazionalitate bakoitzaren egiazko burujabetasuna eta independentzia. Berdintasuna, ez-dependentzia, beregaintasuna.

Ez da aski Kontzertu ekonomiku pribilejiaturen ba-

tzuk ematea, deskontentuak bakeatzeko (klase lehendik ere nahiko pribilejiatuen pribilejio gehiagotarako, bestalde) edo administrazio piska bat erdigunetik bazterretara delegatzea. Euskadik bere buruaren jabe izan nahi du, ez bere buruaren administratzaile bakarrik. Garibayek eta beste "pakto-teorikuek" (Gaztelako Koroearekin Euskal Herriak libreki eta itun batez elkartu zirela, esaten zutenean) beharbada ez zuten espresatzen egia historikua; euskaldunen bai orduko, bai geroko eta bai gaurko autokonzientzia bai, espresatzen zuten. Euskal Herria soberano eta jaun sentitzen da, bere buruaren jabe eta beregain.

Goitik behera datozkion kontzesio denak, hortakoz, goitik behera datozkion egurrak eta zigorrak baino atseginago bazaizkio ere, erlazio injustu eta inperialista baten produktu bezala kontsideratuko ditu.

AURKIBIDEA

1. Sozialista klasikuak eta abertzaletasuna	5
2. Euskal abertzaletasuna zer den sozialistaontzat	7
3. Abertzaletasuna atzerakoi da	21
4. Abertzaletasuna burgeskeria da	33
5. Sozial-inperialismo espainolista	53
6. Espainolismoaren sustraiak	77
7. Estatutu arazoak	111
8. Alderdia eta alderdikeria	127
9. Sozialismo zaharraren ondarea	139
10. Independentzia	147